eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco

Euskal Herriko Unibertsitatea



Daptomizinaren eta linezoliden populazio farmakozinetika eta analisi farmakozinetiko/farmakodinamikoa gaixo larrietan dosifikazioa optimizatzeko

Amaia Soraluce Olañeta

Vitoria-Gasteiz 2018

Daptomizinaren eta linezoliden populazio farmakozinetika eta analisi farmakozinetiko/ farmakodinamikoa gaixo larrietan dosifikazioa optimizatzeko

(Population pharmacokinetics and pharmacokinetic/ pharmacodynamic analysis of daptomycin and linezolid for dosing optimisation in critically ill patients)

PharmaNanoGene: Farmakozinetika, Nanoteknologia eta Terapia Genikoa taldea

Farmazia eta Elikagaien Zientziak saila

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea

Han pasado casi seis años desde que decidí involucrarme en este proyecto. Desde entonces, no han sido pocas las vueltas que ha dado mi vida, y, por ello, probablemente esta no habrá sido la forma más convencional de realizar una tesis doctoral. Sin embargo, durante estos años tan caóticos he tenido la oportunidad de conocer a muchas personas (algunas de ellas maravillosas), y creo que, solo por eso, ha merecido la pena el esfuerzo realizado.

Por tanto, me gustaría daros las gracias a todos mis nuevos amigos, que, a pesar de no ser "los de siempre", lo seréis para siempre. También a los que habéis dedicado vuestro tiempo a enseñar a la novata, por la ilusión que ponéis en vuestro trabajo y por ser capaces de transmitir toda esa energía a los de alrededor. A aquellos que me sacáis de quicio con la forma que tenéis de ver el mundo, gracias. Ya que, siempre es enriquecedor escuchar cómo piensan los que, en principio, nada tienen que ver contigo.

A todos los que me habéis hecho reír, me habéis ayudado, divertido, enseñado, ilusionado, enloquecido y querido, ¡mil gracias de todo corazón!

Badira ia sei urte proiektu honetan sartzea erabaki nuenetik. Ordutik ugariak izan dira nire bizitzan eman diren aldaketak eta lan munduan eman ditudan bueltak. Beharbada ez dut doktoretza tesi bat egiteko modu konbentzionalena jarraitu, baina urte kaotiko hauek pertsona desberdin asko ezagutzeko aukera ere eman didate (benetako altxorrak batzuk) eta, horregatik bakarrik, esfortzuak pena merezi izan duela esan nezake.

Beraz, eskerrak eman nahi nizkizueke egindako lagun-min berriei, betikoak izan ez arren, betirako izango zaretenoi. Baita aprendizari irakasteko denbora hartu duzuen guztiei, zuen lanean ilusioa jarri eta albokori adorea emateko gai izan zaretenei. Mundua ikusteko duzuen erarekin nire onetik atera nauzuenoi ere, mila esker; aberasgarria baita, beti, bestelako ikuspuntuak entzutea.

Barre-arazi, lagundu, dibertitu, ilusionatu, irakatsi, zoratu eta maitatu nauzuen guztiei, bihotz-bihotzez, eskerrik asko!

Gracias a Arantxa y Alicia, por vuestros consejos y por permitirme realizar este trabajo en vuestro equipo.

Baina batez ere, mila esker beti hor egon zarienoi. Eskerrik asko Kuatrila, alkarrekin pasatako deskonexio ordu polit guztiengatik, ongien ezagutzen nauzuenak izateagatik. Mila esker Ander, tontoetan tontoena izateagatik, egun okerrenetan ere irribarre bat ataratzeko gai izateagatik. Eta nola ez, eskerrik asko Ama, Aita eta Jaione, nigan gehien sinetsi dozuenak izateagatik, etxeko txikia beti holako ederto zaintziagatik.

Pero se puede y vale la pena mejorar el mundo. No hay una salida apocalíptica, de un día para el otro, o que llegamos y tenemos un desfile o un arco del triunfo. Es una escalera interminable donde vamos subiendo escalones, aprendemos algo, dejamos algo, y otros siguen, y así sucesivamente. Es un camino sin fin. El día que creamos que hemos llegado, estamos fritos

-Pepe Mujica-

Badira bide batzuk derrigorrez ibili behar ditugunak, inora ez doazela jakiteko

-Joseba Sarrionaindia-

GLOSSARY// GLOSARIOA

AIC: Akaike information criteria// Akaike informazio kriterioa

AKI (en): Acute kidney injury

AME (eu): Antimikrobianoekiko erresistentzia

AMR (en): Antimicrobial resistance

APACHE II: Acute Physiology and Chronic Health Evaluation II

ARC (en): Augmented renal clearance

AUC: Area under the curve// Kurba azpiko azalera

BMI (en): Body mass index

CFR: Cumulative fraction of response// Erantzunaren metatze frakzioa

CL: Total body clearance// Gorputzeko argitzapena

CL_{NR}: Non-renal clearance// Giltzurrun-kanpoko argitzapena

CL_{R}: Renal clearance// Giltzurrun-menpeko argitzapena

Clcr: Creatinine clearance// Kreatinina argitzapena

CL_{EC} : Extracorporeal clearance// Gorputz-kanpoko argitzapena

CLSI: Clinical and Laboratory Standard Institute

Cmax: Maximum plasma drug concentration// Farmakoaren plasma kontzentrazio maximoa

$Cmin_{ss}$: Minimum concentration in steady-state// Kontzentrazio minimoa oreka egonkorrean

CoNS: Coagulase negative *Staphylococcus*// Koagulasa negatiboko estafilokokoa

CPK: Creatinine phosphokinase// Kreatinina fosfokinasa

CRRT(en): Continuous renal replacement therapies

CV: Coefficient of variation// Aldakuntza-koefizientea

CVVHD: Continuous venovenous haemodialysis// Etengabeko hemodialisi beno-benosoa

CVVHDF: Continuous venovenous hemodiafiltration// Etengabeko hemodiafiltrazio beno-benosoa

CWRES: Conditional weighted residuals// Haztatutako baldintzapeko hondar-balioak

DV: Dependent variable. In pharmacokinetic modelling it normally refers to the concentration of the drug// Menpeko aldagaia. Analisi farmakozinetikoan orokorrean farmako kontzentrazioa da

EGOT (eu): Etengabeko giltzurrun - ordezkatze teknikak

EPA (eu): Efektu post-antibiotikoa

EUCAST: European Committee on Antimicrobial Susceptibility Testing

f: Unbound fraction of the drug// Farmakoaren frakzio askea

FOCE+I: First order conditioned estimation method with interaction// Baldintzazko lehen mailako estimazio metodoa interakzioarekin

GGA (eu): Giltzurrun-gutxiegitasun akutua

GMI (eu): Gorputz masaren indizea

GOF: Goodness-of-fit// Doikuntza-egokitasunaren ebaluazioa

HAI (en): Healthcare-associated infections

HPLC: High performance liquid chromatography// Bereizmen handiko kromatografia likidoa

ICU (en): Intensive care unit

IDSA: Infectious Diseases Society of America// Gaixotasun Infekziosoen Amerikako Elkartea

I + G (eu): Ikerketa eta garapena

IIV: Inter-individual variability// Aldakortasun interindibiduala

IOV: Inter-occasion variability// Aldi-desberdinetako aldakortasuna

IPRED: Individual predicted concentration// Norbanakoen aurreikusitako kontzentrazioak

IWRES: Individual weighted residuals// Norbanako bakoitzaren haztatutako hondar-balioak

LADME: Liberation, absorption, distribution, metabolism and excretion// Askapena, xurgapena, banaketa, metabolismoa eta iraizketa

LEBI (eu): Larruazal eta ehun bigunetako infekzio

MIC: Minimum inhibitory concentration// Kontzentrazio minimo inhibitzailea

MCS: Monte Carlo simulation// Monte Carlo simulazioa

MRSA: Methicillin-resistant *Staphylococcus aureus*// Metizilinarekiko erresistentea den *Staphylococcus aureus*

NBE (eu): Nazio Batuen Erakundea

NLME: Nonlinear mixed-effects// Efektu mistoetako modelizazio ez-lineala

OEI (eu): Osasun-asistentziarekin erlazionatutako infekzioa

OFV: Objective function value// Funtzio-objektiboaren balioa

PAE (en): Post-antibiotic effect

PD: Pharmacodynamic// Farmakodinamia

PDI: Pharmacokinetic/pharmaco-dynamic index// Indize farmakozinetiko/farmakodinamikoa

PDT: Pharmacodynamic target// Helburu farmakodinamikoa

PK: Pharmacokinetics// Farmakozinetika

PK/PD: Pharmacokinetics/ Pharmacodynamics// Farmakozinetiko/Farmakodinamiko

PRED: Predicted population concentrations// Aurreikusitako populazio kontzentrazioak

PTA: Probability of target attainment// Helburua lortzeko probabilitatea

pvc-VPC: Prediction-and-variability-corrected visual predictive check// Predikzioa eta aldakortasuna zuzenduta dituen azterketa bisual iragarlea

Q_{ef}: Effluent flow// Efluentearen fluxua

R&D (en): Research and development

RE: Residual error// Hondar-errorea

RSE: Relative standard error// Errore erlatibo estandarra

Sc: Sieving coefficient// Sieving koefizientea

TAD: Time after dose// Dosi osteko denbora

$T_{>MIC}$: Time above the MIC// MICaren gaineko denbora

UN (en): United Nations

V: Apparent volume of distribution// Banaketa-bolumena

V_1: Central compartment volume of distribution// Konpartimentu zentraleko banaketa-bolumena

V_2: Peripheral compartment volume of distribution// Konpartimentu periferikoko banaketa-bolumena

VPC: Visual predictive check// Azterketa bisual iragarlea

VRE: Vancomycin-resistant enterococci// Bankomizinarekiko erresistenteak diren enterokokoak

ZIU (eu): Zainketa intentsiboetako unitatea

AURKIBIDEA

SARRERA

1. Kapitulua

Analisi farmakozinetiko/farmakodinamikoa antimikrobianoen erabilera hobetzeko gaixo larrietan

A. Soraluce[1], A. Rodríguez-Gascón[1], A. Isla[1]

EKAIA. 2018;33:19-33

[1] Farmakozinetika, Nanoteknologia eta Terapia Genikoa taldea. Farmazia Fakultatea, Lascaray-ikergunea, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU, Vitoria-Gasteiz.

LABURPENA: Azken urteotan infekzioen tratamendua mundu mailako osasun publikoko arazo bilakatu da, erresistentzien garapenaren ondorioz, bakterio multirresistenteen agerpena izugarri igo baita. Antibiotiko berrien gabeziak merkatuan daudenen dosifikazioen optimizazioaren premia areagotzen du. Zenbait pazientetan, gaixo larrietan esaterako, aipatutakoa egitea bereziki zaila suerta daiteke. Izan ere, beraien egoera fisiopatologikoa dela-eta, medikamentuen farmakozinetika eta farmakodinamia eraldatuta daukate. Analisi farmakozinetiko/farmakodinamikoak, Monte Carlo simulazioekin batera, dosifikazio-erregimenen optimizazioa ahalbidetzen du. Horrela, tratamenduaren arrakasta bermatu eta erresistentzien agerpena ekiditen da.

1. Sarrera

Gaur egun, infekzioen diagnostikoa eta tratamendua geroz eta konplexuagoa bilakatzen ari da medikuentzat. Alde batetik, osasun sistemarentzat gainkarga bat suposatzen duelako batez ere mendebaldeko herrialdeetan ematen ari den bizi itxaropenaren gorakadak. Izan ere, zenbait gaitzen intzidentzia altuagoa da pertsona nagusietan, gripea edota gaixotasun neumokozikoa kasu, eta, sarritan, epe luzerako zainketen beharra areagotzen dute. Bestalde, infekzioekiko bereziki sentikorrak diren immunokonprometituta dauden pazienteen gorakada eragin dutelako hainbat tratamenduk, besteak beste, minbiziaren aurkako kimioterapia zein organo transplanteak[1,2].

Badira ia 90 urte antibiotikoen aurkikuntzatik eta terapeutikan erabiltzeari ekin zitzaienetik. Ordutik, medikamentu hauek funtsezko papera eduki dute infekzioen tratamenduan. Haatik, azken hamarkadetan hainbat antimikrobianoekiko erresistentziak garatu dituzten patogenoen kopuruak gora egin du. Ondorioz, aurretik tratagarriak ziren zenbait infekziok ez diote behar bezain ondo erantzuten farmakoei. Erresistentzia mekanismoak mikroorganismoek garatzen dituzten fenomeno naturalak badira ere, antimikrobianoen erabilera ezegokia dela-eta, bizkortu eta areagotu daitezke[3]. Egun, antimikrobianoekiko erresistentziak (AME) direla-eta, estimatzen da urtean 700.000 hildako baino gehiago daudela. AMEn propagazioa murrizteko neurririk hartu ezean, zifra hori 2050. urtean 10 milioira igo daitekeela uste da[1]. Honek esan nahi du antimikrobianoekiko erresistentziak lehenengo hilkortasun kausa bilakatu

[1] Review on Antimicrobial Resistance. Tackling drug-resistant infections globally. Eskuragarri: *https://amr-review.org/Publications.html* [kontsulta: 2018ko maiatza].

[2] European Centre for Disease Prevention and Control. ECDC strategic multi-annual programme 2014–2020. Stockholm: ECDC; 2014.

[3] Ventola CL. The antibiotic resistance crisis: part 1: causes and threats. P T. 2015;40(4):277-83.

daitezkela, minbizia gailenduz, eta hiru segunduro pertsona bat hiltzea daukala bakterio erresistente batek eragindako infekzio batengatik.

Gauzak horrela, medikamentuekiko erresistenteak diren infekzioak medikuntzarentzat erronka izateaz gain, mundu mailako osasun-mehatxu bilakatu dira[4,5,6]. Honen harira, 2016. urteko irailean, munduko agintariak Nazio Batuen Erakundearen (NBE) Asanblada Orokorrean bildu ziren, antimikrobianoekiko erresistentzien aurka elkarrekin borrokatzeko konpromezua hartzeko[7]. Honakoa historiako laugarren aldia izan zen NBEn osasunarekin erlazionaturiko gai bat eztabaidatzen zela Asanblada Orokor batean. Aurretik landutako alorrak giza immunoeskasiaren birusa (GIB), gaixotasun ez kutsakorrak eta ebola izan ziren.

Egoera honetan, 2017. urte hasieran Osasunaren Munduko Erakundeak antibiotiko berrien premia duten bakterio erresistenteen zerrenda argitaratu zuen. Horrela, giza osasunarentzat arriskutsuenak kontsideratu zituzten 12 patogeno-familiak 3 talde desberdinetan banatu zituzten, lehentasun mailaren arabera: kritikoa, altua eta erdi mailakoa[8,9]. Kritikoen artean ospitale zein pertsona nagusien egoitzetan infekzio larriak eragiteagatik bereziki arriskutsuak diren bakterio multirresistenteak daude: *Acinetobacter baumannii, Pseudomonas aeruginosa* eta

[4] Roca I, Akova M, Baquero F, Carlet J, Cavaleri M, Coenen S, et al. The global threat of antimicrobial resistance: science for intervention. New Microbes New Infect. 2015;16;6:22-9.

[5] PLOS Medicine Editors. Antimicrobial Resistance: Is the World UNprepared? PLoS Med. 2016;13(9):e1002130.

[6] Hernández-Marrero P, Martins Pereira S, de Sá Brandão PJ, Araújo J, Carvalho AS. Toward a bioethical framework for antibiotic use, antimicrobial resistance and for empirically designing ethically robust strategies to protect human health: a research protocol. J Int Med Res. 2017;45(6):1787-93.

[7] General Assembly of the United Nations. High-level Meeting on Antimicrobial Resistance. Eskuragarri: *https://www.un.org/pga/71/event-latest/high-level-meeting-on-antimicrobial-resistance/* [kontsulta: 2018eko maiatza].

[8] World Health Organization (WHO). Global priority list of antibiotic-resistant bacteria to guide research, discovery, and development of new antibiotics. Eskuragarri: *http://www.who.int/medicines/publications/global-priority-list-antibiotic-resistant-bacteria/en/* [kontsulta: 2018ko maiatza].

[9] Tacconelli E, Carrara E, Savoldi A, Harbarth S, Mendelson M, Monnet DL, et al. Discovery, research, and development of new antibiotics: the WHO priority list of antibiotic-resistant bacteria and tuberculosis. Lancet Infect Dis. 2018;18(3):318-327.

zenbait enterobakterio. Lehentasun altua edo erdi mailakoa dutenen artean, aldiz, gaixotasun ohikoak eragin eta botikekiko geroz eta erresistenteago bilakatzen ari diren bakterioak daude, *Enterococcus faecium, Staphylococcus aureus* edota *Haemophilus influenzae*, esaterako. Zerrenda honen helburu nagusia antibiotikoen ikerketarako eta garapenerako (I+G) lehentasunak ezartzea da, eta mundu mailako koordinazioa bermatu.

Antimikrobiano berrien beharra bistakoa bada ere, ez da farmako hauetan asko inbertitzen. Horrela, 2003. eta 2013. urte-tartean industria farmazeutikoak I+Gra bideratutako kapitalaren %5 baino gutxiago gastatu zuen antimikrobianoak aztertzen[10]. Horren zergatietako bat da medikamentu hauen salmentek beraien garapenean inbertitutakoa ez dutela konpentsatzen[9,11]. Ondorioz, azken urteotan nabarmenki murriztu da antimikrobiano berrien garapena. Gainbehera horri aurre egiteko asmoz, hainbat ekimen martxan jarri dira. Hala nola, Gaixotasun Infekziosoen Amerikako Elkarteak (*Infectious Diseases Society of America*, IDSA) 2010. urtean abian jarritako 10 x 20' ekimena. Proiektu honek 2020 urtea baino lehen 10 antibiotiko sistemiko sortzeko konpromezu globala hartzea du helburu[12].

Botika berrien gabeziak egungo antibiotikoen efikazia babesteko premia areagotzen du. Erabilera egokirako, agente infekziosoek farmakoari dioten sentikortasunaz gain, medikamentuen, pazienteen eta mikroorganismoaren artean gertatzen diren elkarrekintza konplexuak ere kontuan hartu behar dira (**1. irudia**). Bada, hauen arteko aniztasunak dosi-erantzun erlazioan aldakortasun handia eragin dezake.

Beste botika batzuekin gertatzen ez den bezala (antihipertentsibo edota basopresoreak, esaterako), klinikan ezin daiteke antibiotikoen efektua zuzenean neurtu. Horregatik, zenbait paziente-taldetan bereziki zaila da hautatzea zein den

[10] Silver LL. Challenges of Antibacterial Discovery. Clin Microbiol Rev. 2011; 24(1): 71–109.

[11] Davies J. Where have All the Antibiotics Gone? Can J Infect Dis Med Microbiol. 2006;17(5):287-90.

[12] Infectious Diseases Society of America. The 10 x '20 Initiative: pursuing a global commitment to develop 10 new antibacterial drugs by 2020. Clin Infect Dis. 2010;50(8):1081-3.

beraien tratamendurako antibiotiko eraginkorrena eta dosifikazio egokiena. Horren adibide dira gaixo pediatrikoak zein kritikoak.



1. Bakterioak infekzioa eragiten du.
2. Ostalariaren erantzun immunologikoa martxan jartzen da.
3. Ostalari eta antibiotikoak elkarri eragiten diote eta farmakozinetika zehaztu.
4. Antibiotikoak efektu bakteriostatiko edo bakterizida eragiten du.
5. Antibiotikoak pazientearen fisiologia eraldatu dezake eta toxikotasuna edota efektu sekundarioak eragin.
6. Bakterioak farmakoaren aurkako erresistentziak garatu ditzake.

1. irudia: Ostalariaren, mikroorganismoaren eta antibiotikoaren arteko elkarrekintzak.

2. Antibioterapia gaixo larrietan

Nahiz eta zerbitzuen zein pazienteen artean aldakortasun handia egon, infekzioek mundu osoko zainketa intentsiboetako unitateetan (ZIU) zehar presentzia nabarmena dute. Alde batetik, bertan ospitaleratzearen zergatietako bat infekzioak izan ohi direlako (hala nola, pneumonia, meningitisa edo sepsia).

Bestetik, gaitz desberdinengatik ingresaturiko pazienteak osasun-asistentziarekin erlazionatutako infekzioekin (OEI) kutsa daitezkeelako[13].

OEI terminoak pazientearen zainketarekin lotutako infekzio guztiak barne hartu arren, jakina da, orokorrean, ZIUetan tasa altuagoan gertatzen direla, gaixoen ahultasun orokorra dela-eta[14,15]. Bestalde, erabilitako teknika inbaditzaileek (intubazio endotrakealak zein nasogastrikoak edota maskuriko zundaketak, esaterako), infekzioak garatzeko arriskua handitzen lagundu dezakete[16]. Horrela, munduko 75 estatuk esku hartu zuten prebalentzia-ikerketa batean (EPIC II), 1.265 ZIU desberdinetako 14.414 parte-hartzaile egon ziren, eta gaixoen %51 infekzioren bat jasaten ari zirela konprobatu zuten. Horien artean nagusi ziren biriketako infekzioak (%63,5), infekzio intraabdominalak (%19,6) eta bakteriemiak (%15,1). Beste pazienteekin konparatuz, kutsatutakoen artean heriotza-tasa altuagoa izan zen, %11 eta %25, hurrenez hurren[17].

Beharbada horren ondorioz, nahiz eta ospitaleratzeen %10 baino gutxiago izan, gaixo kritikoek bestelako pazienteek baino hamar bat aldiz antibiotiko-kopuru handiagoa hartzen dute[18]. Kontsumo altu horren beste arrazoietako bat izan daiteke ZIUetako patogenoek antibiotikoei orokorrean baino sentikortasun baxuagoa diotela, medikamentu hauek maizago erabiltzeak erresistentziak

[13] Burke A. Cunha. Infectious Diseases in Critical Care Medicine (Third Edition). Informa Healthcare USA, Inc. 52 Vanderbilt Avenue New York, NY 10017. 2010.

[14] World Health Organization (WHO). Healthcare-associated infections: fact sheet;2014. Eskuragarri: *http://www.who.int/gpsc/country_work/gpsc_ccisc_fact_sheet_en.pdf.* [kontsulta: 2018ko maiatza].

[15] Bianco A, Capano MS, Mascaro V, Pileggi C, Pavia M. Prospective surveillance of healthcare-associated infections and patterns of antimicrobial resistance of pathogens in an Italian intensive care unit. Antimicrob Resist Infect Control. 2018;7:48.

[16] Alberti C, Brun-Buisson C, Burchardi H, Martin C, Goodman S, Artigas A, et al. Epidemiology of sepsis and infection in ICU patients from an international multicentre cohort study. Intensive Care Med. 2002;28(2):108-21.

[17] Vincent JL, Rello J, Marshall J, Silva E, Anzueto A, Martin CD, et al. International study of the prevalence and outcomes of infection in intensive care units. JAMA. 2009;302(21):2323-9.

[18] Abdul-Aziz MH, Lipman J, Mouton JW, Hope WW, Roberts JA. Applying pharmacokinetic/pharmacodynamic principles in critically ill patients: optimizing efficacy and reducing resistance development. Semin Respir Crit Care Med. 2015;36(1):136-53.

sorrarazteko presio selektiboa eragiten baitu[19,20]. Patogeno erresistenteen agerpenak antibiotikoen erabilera inplikatzen duen praktika klinikoa etengabe aldatu behar izatea eragiten du. Horren adibide dira, alternatiba gehiago ez edukitzeagatik, azken urteotan toxikotasun-arazoak direla-eta, administrazio-formula berriak garatzea eta aspaldi erabiltzeari utzi zitzaion antibiotikoak berriz ere ematen hasi izana (kolistina, adibidez)[21,22].

Medikamentuen dosi-erregimenen ezarpena boluntario osasuntsuekin burututako entsegu klinikoetan egin ohi da, eta ondoren, gaixo ez hain larrietan dosifikazioaren doikuntza gauzatu. Entsegu hauetan lortutako emaitzak gaixo kritikoetan erabiltzeko estrapolatzen dira sarritan. Dena den, estrapolazio horiek gehienetan ematen ez den baldintza bat onartzea dakartzate; alegia, gaixo kritikoetan eta gaixotasun moderatuak dituzten subjektuetan antibiotikoek antzeko farmakozinetika eta farmakodinamia daukatela baieztatzea. Izan ere, aipatu bezala, orokorrean patogeno erresistenteagoek eragin ohi dituzte infekzioak. Gainera, paziente kritikoetan aldaketa fisiopatologiko ugari ematen dira, beraien osasuna hobetzeko tratamendu desberdinak ezartzen zaizkie eta medikamentu konkomitanteak hartzen dituzte. Beraz, paziente hauetan protokolo estandarrekin dosifikazio erregimen egokiena aukeratzea ez da lan erraza izaten.

Laburbilduz, paziente kritikoetan farmakoen farmakozinetika eta farmakodinamia aldatuta egoten denez, askotan ez dira espero diren

[19] Savage RD, Fowler RA, Rishu AH, Bagshaw SM, Cook D, Dodek P, et al. Pathogens and antimicrobial susceptibility profiles in critically ill patients with bloodstream infections: a descriptive study. CMAJ Open. 2016;4(4):E569-E577.

[20] Rhomberg PR, Fritsche TR, Sader HS, Jones RN. Antimicrobial susceptibility pattern comparisons among intensive care unit and general ward Gram-negative isolates from the Meropenem Yearly Susceptibility Test Information Collection Program (USA). Diagn Microbiol Infect Dis. 2006;56(1):57-62.

[21] Cassir N, Rolain JM, Brouqui P. A new strategy to fight antimicrobial resistance: the revival of old antibiotics. Front Microbiol. 2014;5:551.

[22] Muller AE, Theuretzbacher U, Mouton JW. Use of old antibiotics now and in the future from a pharmacokinetic/pharmacodynamic perspective. Clin Microbiol Infect. 2015;21(10):881-5.

kontzentrazioak lortzen. Ondorioz, maiz gertatzen dira dosi baxuek eragindako porrot terapeutikoa, edo akumulazioak eragindako toxikotasuna[23,24].

3. Farmakozinetika (PK)

3.1. Kontzeptua

Behin farmako bat paziente bateri administratuta, LADME prozesuek (askapena, xurgapena, banaketa, metabolismoa eta iraizketa biltzen dituen ingeleseko terminoa) baldintzatuko dute botikaren kontzentrazio-denboraren profila. Farmakozinetikak farmakoen eta haien metabolitoen kontzentrazioen eboluzioa aztertzen du denboran zehar, pazienteen fluido desberdinetan. Hori dela-eta, "gorputzak medikamentuari egiten diona" aztertzen duela esaten da.

3.2. Aldaketa farmakozinetikoak gaixo larrietan

Antibiotikoei dagokienez, bereziki hiru dira gaixo larrietan aldaketa farmakozinetikoak eragin ditzaketen egoerak: banaketa-bolumena (V) handitzea, proteinekiko lotura modifikatzea eta gorputz-argitzapen totalean (CL) aldaketak gertatzea. Dena den, oso ohikoa da PK baldintzatu dezaketen egoera desberdinak

[23] del Mar Fernández de Gatta M, Martín-Suárez A, Lanao JM. Approaches for dosage individualisation in critically ill patients. Expert Opin Drug Metab Toxicol. 2013;9(11):1481-93.

[24] Olofsson SK, Cars O. Optimizing drug exposure to minimize selection of antibiotic resistance. Clin Infect Dis. 2007;45 Suppl 2:S129-36.

aldi berean gertatzea, eta honek kontzentrazioen iragarpen egokia gauzatzea zailtzen du[25,26,27].

3.2.1. Banaketa-bolumena handitzea

Edemak sortzean, sepsietan edota erredura handien fase postakutuetan, farmakoen Va handitu ohi da, bereziki likido interstiziala baldintzatuz. Bestalde, ZIUetan sarritan egiten diren bestelako interbentzioek ere (berpizte-fluidoek, bentilazio mekanikoak edota drainatze poskirurgikoek) Va handitu dezakete[25,28]. Banaketa-bolumenaren handipena bereziki garrantzitsua izango da antimikrobiano hidrofilikoetan, normalean ehunetan gutxi sakabanatu ohi baitira. Honen adibide dira, besteak beste, betalaktamikoak edota aminoglikosidoak[25]. Farmako hauek zelulaz kanpoko eremuetara mugatuak egoten direnez, antibiotiko diluzio nabarmena gertatuko da hodi barneko likidoak ehunetan zehar barreiatzen diren egoera patologikoetan. Antimikrobiano lipofiloek, aitzitik, sarritan zelula barnean sakabanatzen direnez, V handiagoak izaten dituzte. Hortaz, parametro farmakozinetiko hau normalean ez da horrenbeste aldatzen gaixo larrietan. Linezolid, makrolidoak edota rifanpizina antibiotiko lipofiloen adibide dira. Banaketa-bolumenaren handitzeak plasma kontzentrazio maximoaren (Cmax) gutxitzea ekar dezake, eta, honek, eraginkorrak ez diren kontzentrazioak izatea eta infra-dosifikazioa eragin.

---

[25] Blot SI, Pea F, Lipman J. The effect of pathophysiology on pharmacokinetics in the critically ill patient-concepts appraised by the example of antimicrobial agents. Adv Drug Deliv Rev. 2014;77:3-11.

[26]Smith BS, Yogaratnam D, Levasseur-Franklin KE, Forni A, Fong J. Introduction to drug pharmacokinetics in the critically ill patient. Chest. 2012;141(5):1327-1336.

[27] Pea F, Viale P, Furlanut M. Antimicrobial therapy in critically ill patients: a review of pathophysiological conditions responsible for altered disposition and pharmacokinetic variability. Clin Pharmacokinet. 2005;44(10):1009-34.

[28] Álvarez-Lerma F, Grau S. Management of antimicrobial use in the intensive care unit. Drugs. 2012;72(4):447-70.

3.2.2. Proteinekiko lotura modifikatzea

Proteinekiko lotura farmakoen propietate garrantzitsua da; izan ere, soilik frakzio askeak dauka efektu farmakologikoa eragiteko gaitasuna. Proteinekiko loturaren arduradun nagusia albumina izan ohi denez, hipoalbuminemia ematen den kasuetan antimikrobianoen proteinekiko lotura gutxitu egiten da maiz. Gaixo kritikoetan oso ohikoa izaten da hipoalbuminemia. Horrela, ZIUetan onarturiko pazienteen %40-50ek 25 g/L baino albumina-kontzentrazio baxuagoak dituztela ikusi da[29]. Gainera, proteinetara lotzeko antibiotikoen eta beste medikamentu batzuen arteko lehia egon daiteke. Faktore hori proteinekiko lotura handia duten antibiotikoekin hartu beharko da aintzat batik bat[25], besteak beste, daptomizinarekin (%90)[30] eta ertapenemenekin (%95-92)[31].

Proteinen kontzentrazio baxuagoak izateak farmakoaren frakzio askearen proportzioa handitzea ekar dezake, eta horrek efektua eragiteko (alegia, bakterioak hiltzeko) probabilitatea handitzen du. Dena den, hipoalbuminemia Varen handipenarekin erlazionatuta egoten da normalean, proteinekiko lotura handia duten medikamentuetan bereziki. Izan ere, proteinekiko lotura gutxitzean, farmako molekula gehiagok odol-korrontea utzi dezakete eta ehunetan barrena banatu daitezke.

Gainera, kontuan hartuta soilik frakzio askeak jasan dezakela argitzapen hepatikoa edo giltzurrun bidezko eliminazioa, farmako askearen igoerak

[29] Ulldemolins M, Roberts JA, Rello J, Paterson DL, Lipman J. The effects of hypoalbuminaemia on optimizing antibacterial dosing in critically ill patients. Clin Pharmacokinet. 2011;50(2):99-110.

[30] Dvorchik BH, Brazier D, DeBruin MF, Arbeit RD. Daptomycin Pharmacokinetics and Safety following Administration of Escalating Doses Once Daily to Healthy Subjects. Antimicrob Agents Chemother. 2003;47(4):1318-23.

[31] Majumdar AK, Musson DG, Birk KL, Kitchen CJ, Holland S, McCrea J, et al. Pharmacokinetics of ertapenem in healthy young volunteers. Antimicrob Agents Chemother. 2002;46(11):3506-11.

argitzapen totalaren handipena eragin dezake. Horrela, jakina da hipoalbuminemiak farmakoaren eliminazio totala areagotzen duela[29,32].

3.2.3. Argitzapenean aldaketak

Farmako gehienak gibel-metabolismoz edo giltzurrun-iraizketaz eliminatzen dira. Gaixo larrietan organo hauen funtzionalitatea eraldatuta egon ohi denez, antimikrobianoen argitzapena baldintzatzen da. Kontuan hartu beharreko egoera nagusiak dira gibel-disfuntzioa, giltzurrun-gutxiegitasun akutua eta giltzurrun-funtzioa handitua izatea.

a) Gibel-disfuntzioa

Gaixo larrietan gibel-gutxiegitasuna infekzioekin loturiko kolestasiarekin eta min hepatozelularrarekin dago erlazionatuta gehien bat[33], nahiz eta farmako hepatotoxikoak administratzeagatik ere gerta daitekeen, adibidez[25,33]. Egoera honetan, medikamentuen metabolismo hepatikoa moteldu daiteke. Hala ere, botika baten argitzapen hepatikoa zehaztea ez da lan erraza izaten, ez baitago gibel-funtzioa espezifikoki neurtzea ahalbidetzen duen markatzailerik. Gutxiegitasun hepatikoa gibel-entzimen igoerarekin dago erlazionatuta, baita bilirrubinarenarekin eta amoniakoarenarekin ere. Bestalde, koagulazio-faktoreen eta albuminaren sintesiaren murrizpena ekar dezake[32] eta horrek, aipatu bezala, farmakoen Van eta proteinekiko loturan eragin dezake.

b) Giltzurrun-gutxiegitasun akutua (GGA)

Oliguria edo anuria eragiten duen gaitz honek giltzurrun-funtzioaren galtze partziala edo osoa dakar. Ondorioz, kreatinina-plasmatikoaren igoera gertatzen da. ZIUetako pazienteen erdiak baino gehiago gaitz hau pairatzen dutela ikusi

[32] Roberts JA, Joynt GM, Choi GY, Gomersall CD, Lipman J. How to optimise antimicrobial prescriptions in the Intensive Care Unit: principles of individualised dosing using pharmacokinetics and pharmacodynamics. Int J Antimicrob Agents. 2012;39(3):187-92.

[33] Chand N, Sanyal AJ. Sepsis-induced cholestasis. Hepatology. 2007;45(1):230-41.

da[34]. Proportzio desberdinetan bada ere, antibiotiko-kopuru handia giltzurrun bitartez eliminatzen denez, GGAk eragin nabarmena edukiko du farmako hauen PKn, eta sarritan dosifikazioa egokitzea beharrezkoa izango da.

GGAk bizi-arriskua eragiten duenean, giltzurrun-ordezkatze teknikak erabiltzen dira, eta horien artean, gehien bat, etengabekoak (EGOT). Teknika horiek antibiotikoen CLan parte hartzen dute, bereziki proteinekiko lotura txikia dutenetan. Horien bitartez eliminatzen den farmako-kantitatea teknika beraren, filtroaren materialaren eta azaleraren, eta odol fluxuaren menpe egongo da, besteak beste[35]. Hortaz, dosifikazio egokiena aukeratzerako orduan, teknika hauen bidez ematen den farmakoaren gorputz-kanpoko argitzapena (CL_{EC}) aintzat hartu beharko da[36,37].

c) Giltzurrun-funtzio handitua (GFH)

Paziente larrien %20-65k giltzurrun-funtzio handitua daukatela deskribatu da[38]. Gaixo hauetan gastu kardiakoa areagotu egiten da, eta, ondorioz, giltzurrunetako odol-fluxua handitzen da eta hiperfiltrazio glomerularra eragiten da. Egun, paziente batek GFH duela esango da baldin eta 130 mL/min/1,73m^2 baino altuagoa den filtrazio glomerularra badauka; ahal izanez gero, gernuan neurtutakoa izango dena. Gehienetan sepsia edota traumatismoren bat duten gizonezko gaixo gazteak izan ohi dira, larritasun maila baxuagoa dutenak. Giltzurrun-gutxiegitasunarekin gertatzen ez den

[34] Hoste EA, Bagshaw SM, Bellomo R, Cely CM, Colman R, Cruz DN, et al. Epidemiology of acute kidney injury in critically ill patients: the multinational AKI-EPI study. Intensive Care Med. 2015;41(8):1411-23.

[35] Thongprayoon C, Cheungpasitporn W, Ahmed AH. Trends in the use of renal replacement therapy modality in intensive care unit: a 7 year study. Ren Fail. 2015;37(9):1444-7.

[36] Roberts DM, Roberts JA, Roberts MS, Liu X, Nair P, Cole L,et al. Variability of antibiotic concentrations in critically ill patients receiving continuous renal replacement therapy: a multicentre pharmacokinetic study. Crit Care Med. 2012;40(5):1523-8.

[37] Choi G, Gomersall CD, Tian Q, Joynt GM, Freebairn R, Lipman J. Principles of antibacterial dosing in continuous renal replacement therapy. Crit Care Med. 2009; 37(7):2268-82.

[38] Bilbao-Meseguer I, Rodríguez-Gascón A, Barrasa H, Isla A, Solinís MÁ. Augmented Renal Clearance in Critically Ill Patients: A Systematic Review. Clin Pharmacokinet. 2018 Feb 13. doi: 10.1007/s40262-018-0636-7.

bezala, GFH ez da horren ondo ikertu, eta sarritan dosifikazio estandarrak administratzen zaizkie paziente hauei. Ondorioz, kontzentrazio sub-terapeutikoak eta emaitza kliniko okerragoak lortzeko probabilitate altuagoak dituzte[38,39].



2. irudia: Antibiotikoen distribuzioa eta eliminazioa baimentzen duten faktore fisiopatologiko eta iatrogenikoak eta kasu bakoitzean jarraitu beharreko gomendio orokorrak.

Laburbilduz, faktore fisiopatologiko ugarik eragin dezakete antibiotikoen propietate farmakozinetikoetan (**2.irudia**), ZIUetako pazienteen artean antzeman ohi den aldakortasun nabariaren eragile izanik. Bestalde, aldaketa hauek indibiduo berean ere gerta daitezke, gaixotasunaren larritasuna aldatzen den heinean. Horrela, paziente batentzat momentu batean dosi egokia dena ezegoki bilaka daiteke denbora gutxian.

[39] Hobbs AL, Shea KM, Roberts KM, Daley MJ. Implications of Augmented Renal Clearance on Drug Dosing in Critically Ill Patients: A Focus on Antibiotics. Pharmacotherapy. 2015;35(11):1063-75.

Gaixo bakoitzari dosifikazio egokia administratzeko, farmakoaren portaera farmakozinetikoari erreparatzea ezinbestekoa bada ere, egunerokotasun klinikoan, ez da medikamentu hauen monitorizazioa egiten normalean[23,40]. Horrek paziente konkretuetan sarritan farmakoaren PK ezezaguna izatea eragiten du. Bestalde, zenbaitetan, paziente-talde berezi batentzat dosifikazio-gomendioak egin nahi izaten dira. Kasu horietan guztietan, informazioa aurretik egindako populazio-ikerketetatik lortu behar da.

3.3. Populazio-farmakozinetikaren ikuspuntua

Populazio batek farmako jakin baten klinikoki-egokiak diren dosiak jaso ostean, indibiduo desberdinen farmako kontzentrazioetan eragiten duten aldakortasunaren iturriak eta korrelazioak aztertzen ditu populazio-farmakozinetikak[41]. Dosi-kontzentrazio erlazioan aldaketak eragiten dituzten eta neurtu daitezkeen faktoreak bilatzea eta desberdintasun hauen magnitudea aztertzea da bere helburu nagusia. Hau bereziki baliagarria izango da populazio talde desberdinen artean farmakoaren farmakozinetika aldatu daitekeenaren susmoa dagoenean. Izan ere, dosia modu egokian pertsonalizatzea bermatzen du[42].

Tradizionalki, ikerketa farmakozinetikoak etapa biko metodoa erabiliaz burutu dira. Metodo honen lehenengo etapan, indibiduoen parametro farmakozinetikoak erregresio ez-linealaren bidez estimatzen dira. Horretarako, indibiduoen kontzentrazio-denboraren datu nahikoak beharko dira. Aurreneko etapa honetan estimatutako balioak bigarren fasean sarrera-datu moduan erabiliko dira, laginaren estatistika deskribatzaileak kalkulatzeko. Normalean estimatutako

[40] Minne L, Eslami S, Kuiper RA, Abu-Hanna A, Dongelmans DA. Five years of therapeutic drug monitoring in the intensive care did not change vancomycin prescription behaviour: perceived needs for decision support. Minerva Anestesiol. 2012;78(6):684-92.

[41] Aarons L. Population Pharmacokinetics: Theory and Practice. Br J Clin Pharmacol. 1991;32(6):669-70.

[42] Charles B. Population pharmacokinetics: an overview, Aust Prescr 2014;37:210-131.

parametroen batez bestekoa, bariantza eta kobariantza izan ohi dira. Metodo honen muga nagusia indibiduo bakoitzeko kontzentrazio-denbora datu nahiko behar direla da[43].

Etapa biko metodoa erabili ezin denean (datu sakabanatuak baino ez daudenean, adibidez), fase bakarreko metodoa erabili beharko da. Hau da, efektu mistoetako modelizazio ez-lineala (*non linear mixed-effects*, NLME). Metodo honen bidez indibiduoen arteko informazioa partekatu daitekeenez, datu sakabanatuak daudenean ez ezik, informazio aberatsa dagoenean edota azken bien konbinazio bat ematen denean ere erabili daiteke.

Efektu mistoetako modelizazio ez-lineala datuak erabiltzeko modu efizienteagoa da, farmakozinetikari buruz informazio integratua lortzeko aukera ematen baitu. Izan ere, metodo honek parametroen batez bestekoa eta aldakortasuna estimatzen ditu momentu berean, baina gai da aldakortasun-intra eta -interindibidualaren artean desberdintzeko. Beste modu batean esanda, ikertutako populazioaren batez besteko joera deskribatzen du; eta, aldi berean, subjektuen artean ikusitako profil desberdinen arduraduna den indibiduoen arteko aldakortasuna kuantifikatzen du.

Efektu mistoetako modelizazio ez-lineala inplementatua duten zenbait software badaude ere, azken hamarkadetan farmakometrian gehien erabili direnen artean NONMEM dago (NON-liner Mixed Effects Modelling)[44].

3. irudian populazio-farmakozinetika analisiaren oinarriak azaltzen dira. Farmako baten populazio-farmakozinetika aztertzean, eredu-estrukturalak parametro-tipikoak (efektu-finkoak) deskribatuko ditu. Hortaz, populazioaren kontzentrazio-denboraren profilaren arduraduna izango da. Ezaugarri demografiko edota fisiopatologikoek parametro horietan eragin dezakete; besteak

[43] U.S Department of Health and Human Services, Food and Drug Administration, Center for Drug Evaluation and Research (CDER) and Center for Biologics Evaluation and Research (CBER). Guidance for Industry. Population Pharmacokinetics. Rockville; 1999.

[44] Bauer R. NONMEM users guide: introduction to NONMEM 7.4.1. ICON Plc. Gaithersburg, Maryland; 2017.

beste, sexuak, adinak edota kreatinina argitzapenak. Faktore horiei aldagai deritze. Aldagaiak eredu-estrukturalaren parte izango dira ere, eta indibiduoen arteko aldakortasuna azalduko dute.

Bestalde, eredu-estatistikoak ausazko-aldakortasuna kuantifikatzen du. Alegia, eredu-estrukturalaren bitartez populazioaren kontzentrazioetan azaldu ezin daitekeen aldakortasuna. Modu honetan, ausazko-efektuek honako aldakortasunak kontuan hartuko dituzte: aldakortasun-interindibiduala (*inter-individual variability*, IIV), aldi-desberdinetako aldakortasuna (*inter-occasion variability*; IOV) eta hondar-errorea (*residual error*, RE).



3**. irudia**. Analisi farmakozinetikoa populazio-ikuspuntua erabilita.

3.3.1. Aldakortasun-interindibiduala (IIV)

IIVk populazioaren parametro tipikoaren (θ) eta indibiduo bakoitzaren balioen arteko desberdintasunak definitzen ditu. Hobeto ulertu ahal izateko, argitzapena (CL) erabiliko da adibide moduan 1.ekuazioan (**Eq.1**):

$$CL_i = \theta_{CL} \times e^{\eta_{CL,i}} \quad \textbf{(Eq.1)}$$

Non *CLi i*-indibiduoaren argitzapena den; θ_{CL} populazioaren balio tipikoa eta $\eta_{CL,i}$ populazioaren eta indibiduoen arteko desberdintasuna. Era honetan, θ_{CL}-k balio bera edukiko du subjektu guztientzat eta η, aldiz, indibiduo bakoitzarentzat desberdina izango da. Populazio baten η balioen distribuzioa normaltzat hartuko da, 0 batez bestekoarekin eta estimatutako ω^2_{CL} bariantziarekin. Horrela, geroz eta bariantzia handiagoa izan, orduan eta CLrekin erlazionatutako IIV handiagoa izango da.

3.3.2. Aldi-desberdinetako aldakortasuna (IOV)

Subjektu berdinari farmako bat aldi desberdinetan administratuz gero, parametroetan ematen den aldakortasunari deritzo. Batzuetan aldakortasunaren jatorria identifikatzea dago; hala nola, pazientearen egoera aldatzea edota tratamenduari atxikimendu desegokia. IOVren parametroak horrela definitu daitezke (**Eq.2**):

$$\text{If (Occasion = 1) then IOV} = \eta_1$$

$$\text{If (Occasion = 2) then IOV} = \eta_2$$

$$\text{IIV} = \eta_3$$

$$CL_i = \theta_{CL} \times e^{IIV+IOV} \quad \textbf{(Eq.2)}$$

Populazio-ereduan IOV sartu ahal izateko, aldi bakoitzetik (okasio bakoitzetik) lagin bat baino gehiago behar izango da. Osterantzean, ezin izango da hondar-erroretik bereiztu.

3.3.3. Hondar-errorea

Finkatutako parametroak subjektu baten, *i*, denbora jakin bateko, *j*, farmako-kontzentrazioak aurreikusteko erabiltzen dira. Dene den, neurtutako kontzentrazioak ($C_{obs,ij}$) eta aurreikusitakoak ($C_{pred,ij}$) ez dira berdinak izango. Desberdintasun hauek, ε_{ij}, hondar-erroreak hartuko ditu barne. Errore mota honek entseguarekin erlazionatutako erroreak, laginak hartzean eta dosifikazioan emandako akatsak edota ereduaren zehaztapen okerrak kontuan hartuko ditu (**Eq.3**):

$$C_{obs,ij} = C_{pred,ij} + \varepsilon_{ij} \qquad \textbf{(Eq.3)}$$

ε_{ij} balioek zero inguruan distribuzio normala daukatela eta beraien bariantza σ^2 dela onartuko da.

4. irudiak subjektu jakin batentzat neurtutako farmako kontzentrazioak, bere aurreikusiak eta populazioaren aurreikusiak (balio tipikoak) azaltzen dira. Gainera, aldakortasun desberdinak ere ikus daitezke.



4. irudia. Subjektu jakin batentzat neurtutako farmako kontzentrazioak eta aurreikusitakoak azaltzen dira, baita balio tipikoak ere. Bestalde, aldakortasun-interindibiduala (IIV) eta hondar-errorea (RE) ikus daitezke.

Populazio edota azpitalde jakin batentzat eredu farmakozinetiko bat sortzean aldakortasuna kuantifikatzea ezinbestekoa izango da. Gainera, eredu-estrukturalak egokia izan behar du, aldarapenik edota zehaztasun okerrik gabea, ondorio desegokiak ekiditeko. Hortaz, populazio-eredua garatzen ari den bitartean edota behin azken eredua lortu ostean, ezinbestekoa izango da ereduaren ebaluazioa egitea. Izan ere, ereduaren eta datuen arteko doikuntzaren egokitasuna aztertuz, egindako hurbilketen egokitasuna ezagutu ahal izango da.

3.4. Ereduaren ebaluazioa

Nahiz eta eredu farmakozinetikoak ebaluatzeko tresna ugari dauden, ez dago aurretik zehaztutako pausu idealik edo optimorik jarraitzeko. Ebaluazio-metodoak etengabe aldatzen ari dira eta diagnostiko tresna desberdinak erabiltzea

gomendagarria da[45]. Metodo hauek hiru talde desberdinetan banandu dira: zenbakizkoak, grafikoak eta simulazioetan oinarritutako diagnostikoak.

3.4.1. Zenbakizko diagnostikoa

Parametroak estimatzeko NONMEMek egiantza-maximoaren metodoa erabiltzen du. Hurbilketa honek karratu txiki zabalduen funtzio-objektiboa minimizatzen du. Azken hori, egiantza-logaritmoaren bikoitzarekiko proportzionala da ia (-2xlog egiantza). Normaltasun egoera batean, egiantza-maximoaren estimatuak funtzio-objektiboaren balio (OFV) minimoan lortzen dira. OFVren balio absolutua ez dauka esanahirik, eta bere beherakada da garrantzitsua izango dena. Horrela, habiratutako bi ereduren artean aukeratzeko OFV-ren diferentzia (ΔOFV, egiantza-ratioa) erabiliko da. Modu honetan, parametro extra bat ereduan gehitzean, ΔOFVren -3,84 eta -6,63 balioak <0,05 eta <0,01 esangura-mailekin bat etorriko dira, hurrez hurren[46]. Habiaratuta ez dauden ereduen artean ΔOFV eta esangura mailaren artean ezin daitekeenez erlaziorik zehaztu, konparaketak Akaike informazio-kriterioa (*Akaike information criteria*, AIC) erabiliz egin beharko dira.

Populazio-eredu bat eraikitzean ezinbestekoa izango da parametroak zein doitasunarekin estimatu diren jakitea. Horretarako, errore erlatibo estandarrak (*relative standard errors*, RSE) aintzat hartu behar dira, aldakuntza-koefiziente moduan adieraziko direnak (*coefficient of variation*, CV)[47]. Eredu-estrukturaleko parametroek ez dituzte %25 baino RSE balio handiagoak eduki behar eta eredu-estatistikoarenak %50 baino txikiagoak izan behar dira. Parametroen doitasunak

[45] Nguyen TH, Mouksassi MS, Holford N, Al-Huniti N, Freedman I, Hooker AC, et al. Model Evaluation of Continuous Data Pharmacometric Models: Metrics and Graphics. CPT Pharmacometrics Syst Pharmacol. 2017;6(2):87-109.

[46] Wählby U, Jonsson EN, Karlsson MO. Assessment of Actual Significance Levels for Covariate Effects in NONMEM. Pharmacokinet Pharmacodyn. 2001;28(3):231-52.

[47] Ette EI, Williams PJ. Population pharmacokinetics II: estimation methods. Ann Pharmacother. 2004;38(11):1907-15.

zenbait faktorek baldintzatuko dute, besteak beste, entseguaren diseinuak, datuen kalitateak edota ereduaren zehaztapen okerrek eta parametro gehiegi zehazteak.

Eredu farmakozinetikoak sendotasun nahikoa duen egiaztatzeko, bootstrap metodoak erabili daitezke. Horiek parametroen zehaztasuna estimatzeko erabiltzen diren ber-laginketa teknikak dira. Laburbilduz, bootstrap-ak datu basetik indibiduoak aleatorioki hartzen ditu eta base datu berriak erreplikatzen ditu. Hortaz, erreplika bakoitzean indibiduo bera behin baino gehiagotan hautatu daiteke edo behin ere ez. Behin erreplikazioak burutu ostean, parametro bakoitzeko mediana eta 5. eta 95. pertzentilak kalkulatzen dira eta hautatutako ereduarekin lortutako balioekin konparatu[48].

3.4.2. Grafikoen bidezko diagnostikoa

Ebaluazio metodo hauen abantaila nagusia zenbakizko-diagnostikoak baino errazago interpretatu daitezkela da. Nahiz eta grafiko mota asko egon, gehien erabiltzen direnak doikuntza-egokitasuna ebaluatzeko grafikoak (*goodness-of-fit*, GOF, *plots*) dira.

Ezagunenen artean honako GOF grafikoak daude:

a) Populazio- (*population predictions*, PRED) eta norbanakoen- (*individual predictions*, IPRED) aurreikusiak versus behatutakoak (*observations*, DV)

Grafiko hauek oso baliagarriak dira ereduaren errendimendu orokorra aztertzeko. Eredua egokia denean IPREDak DVetatik gertu egongo dira. Hortaz, datuak identitate-lerroaren ondoan sakabanatuta egongo dira. Bestalde, PREDen balioak eta neurtutakoen batez bestekoak antzekoak izango dira. Grafiko hauetan joerak antzemateak iradoki dezake aldaketak egin behar

[48] Efron B, Tibshirani R. Bootstrap methods for standard errors, confidence intervals, and other measures of statistical accuracy. Stat Sci. 1986;1: 54–77.

izatea eredu-estrukturalean edota hondar-erroreen ereduan zein aldakortasun-interindibidualean.

b) Haztatutako baldintzapeko hondar-balioak (CWRES) versus denbora edo versus PRED

Grafiko hauek eredu-estrukturala ebaluatzeko erabilgarriak dira. Datuak zero balioa duen lerro horizontalaren inguruan sakabanatuak egon behar dira, inolako joerarik aurkeztu gabe.

c) IPRED versus denbora edo norbanako bakoitzaren haztatutako hondar-balioak (*individual weighted residuals*, IWRES).

Grafiko hauek oso baliagarriak dira hondar-errorea modelizatzean egon daitezkeen akatsak hautemateko. IWRESi dagokionez, hautatutako eredua egokia denean, datuak zero balioa duen lerro horizontalaren inguruan sakabanatuak aurkituko dira, eta puntu gehienak -1,96 eta 1,96 balioen artean kokatuko dira.

Dena den, indibiduoen datuek parametro bateri edo gehiagori dagokionez informazio nahikoa ematen ez dutenean, IPREDak ez dira sinesgarriak izango. Izan ere, kasu hauetan, indibiduoen estimatutako parametroak populazioaren batez bestekoari hurbilduko zaizkio eta grafikoari so egitean eredua egokia dela ondoriozta daiteke; benetan ereduaren zehaztapen oker baten aurrean egon arren. Fenomeno hau kuantifikatzeko η-shrinkage-a eta ε-shrinkage-a erabiliko dira. Horrela, indibiduoen grafikoekin fidatu ahal izateko, desbiderapen estandar moduan kalkulatutako %20-30 arteko shrinkage balioak limite moduan finkatu dira[49].

[49] Karlsson MO, Savic RM. Diagnosing model diagnostics. Clin Pharmacol Ther. 2007;82(1):17-20.

3.4.3. Simulazioetan oinarritutako diagnostikoak

Populazio eredu farmakozinetiko bat ebaluatzeko gehien erabiltzen diren simulazioetan oinarritutako diagnostikoak azterketa bisual iragarleak dira (*visual predictive check*, VPC). Grafiko hauek aldagai-independentearen aurrean (gehienetan denbora) neurtutako balioen distribuzioa eta aurreikusitakoen distribuzioa konparatzen dituzte. Horrela, bisualki ebaluatu daiteke ea ereduaren zati estrukturala eta estatistikoa joera-zentrala eta neurtutako informazioaren aldakortasuna aurreikusteko gai diren. Horretarako, hautatutako eredua erabiltzen da jatorrizko informazioaren ezaugarri berdinak dituzten datu berriak simulatzeko (normalean 500 edo 1000). Simulatutako datu-multzo bakoitzeko 2,5., 50. eta 97,5. pertzentilak kalkulatzen dira denbora-puntu bakoitzeko. Ostean, horien %95ko konfiantza-tarteak datu experimentalen 2,5., 50. eta 97,5.pertzentilekin bat irudikatzen dira. Gainera VPCak desberdinketak eginda irudikatu daitezke, interesgarriak diren aldagaien arabera, pisua edota kreatinina argitzapena, esaterako. Modu honetan, ereduaren egokitasuna aldagai desberdinak aintzat hartuta ebaluatu daiteke. Dosifikazio erregimen desberdinak administratu direnean, edota aldagaien arteko erlazioan zein ikerketaren diseinuan desberdintasunak eman direnean, predikzioa zuzenduta duten VPCak erabili behar dira (*prediction-corrected VPC*, pc-VPC). Izan ere, neurtutako balioak eta PREDen oinarritutako simulatutako mendeko-aldagaia normalizatzen ditu eta diferentzia hauek maneiatzea bermatzen du.

Gaur egun, populazio-ereduak garatzeko eta ebaluatzeko tresna ugari dago. Ezagunenen artean honakoak topatu ditzakegu: Xpose (NONMEMekin

egindako populazio-ereduak lantzeko R-n oinarritutako laguntza-paketea)[50], PSN[51] edo Pirana[52].

4. Farmakodinamia (PD)

4.1. Kontzeptua

Medikamentuen posologia optimizatzeko, farmakozinetikaz gain, farmakodinamia ere kontuan hartu behar da. Farmakodinamiak medikamentu batek, bere ekintza mekanismoari esker, kontzentrazio zehatz batean, organismoan eragiten dituen efektu biokimiko eta fisiologikoak aztertzen ditu. Sinplifikatuz, "farmakoak gorputzari egiten diona" bezala definitu izan da. Terapia antimikrobianoan, farmakoaren esposizioa eta efektu mikrobiologikoa edo klinikoa erlazionatzen duen jakintzagaia da[53,54].

Antibiotiko baten efektua neurtzeko erabiltzen den adierazle nagusia kontzentrazio minimo inhibitzailea da (*minimum inhibitory concentration*, MIC). Alegia, bakterioen ageriko-hazkuntza ekiditeko beharrezkoa den kontzentrazio

[50] Jonsson EN, Karlsson MO. Xpose--an S-PLUS based population pharmacokinetic/pharmacodynamic model building aid for NONMEM. Comput Methods Programs Biomed. 1999;58(1):51-64.

[51] Lindbom L, Ribbing J, Jonsson EN. Perl-speaks-NONMEM (PsN)--a Perl module for NONMEM related programming. Comput Methods Programs Biomed. 2004;75(2):85-94.

[52] Keizer RJ, van Benten M, Beijnen JH, Schellens JH, Huitema AD. Piraña and PCluster: a modeling environment and cluster infrastructure for NONMEM. Comput Methods Programs Biomed. 2011;101(1):72-9.

[53] Drusano GL. Antimicrobial pharmacodynamics: critical interactions of 'bug and drug'. Nat Rev Microbiol. 2004;2(4):289-300.

[54] Schmidt S, Schuck E, Kumar V, Burkhardt O, Derendorf H. Integration of pharmacokinetic/ pharmacodynamic modeling and simulation in the development of new anti-infective agents-minimum inhibitory concentration versus time-kill curves. Expert Opin Drug Discov. 2007;2(6):849-60.

minimoa. Adierazle hau kalkulatzeko metodologia desberdinak erabili izan dira[55]. MICak modu estatikoan, mikroorganismoen eta antibiotikoen arteko elkarrekintza baino ez du kontuan hartzen, ostalariarekin dituztenak aintzat hartu gabe. Ondorioz, antimikrobianoen efikazia ebaluatzeko soilik MIC balioak aintzat hartzea desegokia izan daiteke.

5. Analisi farmakozinetiko/farmakodinamikoa

Farmakodinamia medikamentuaren kontzentrazioaren menpe dagoenez, eta kontzentrazioa farmakoaren farmakozinetikak baldintzatzen duela kontuan hartuz, PK eta PD estuki erlazionatuta daude (**5. irudia**). Analisi farmakozinetiko/farmakodinamikoak indibiduo desberdinentzat eta infekzio mota bakoitzarentzat antibiotikoen dosi egokiena aukeratzea ahalbidetzen du, eta efektu desiragaitzak edota erresistentziak agertzea saihesten du.



5. irudia. PKren eta PDren arteko erlazioa.

[55] Andrews JM. Determination of minimum inhibitory concentrations. J Antimicrob Chemother. 2001;48 Suppl 1:5-16.

Parametro farmakozinetikoen eta mikrobiologikoen arteko erlazio kuantitatiboari indize farmakozinetiko/farmakodinamiko (PDI) deritzo. Antibiotikoen efektua aurreikusteko hiru deskribatu dira (**6. irudia**). Alde batetik, oreka-egonkorreko egoeran kontzentrazio plasmatikoak MIC balioaren gainetik mantentzen diren denbora ($T_{>MIC}$); bestetik, antibiotikoaren kontzentrazio maximoaren eta MICaren arteko ratioa (Cmax/MIC), eta azkenik, oreka-egonkorrean farmakoaren kontzentrazio-denbora kurbaren azpian mugaturiko azalera (normalean 24 ordutan zehar) eta MICaren arteko erlazioa (AUC_{24h}/MIC). Antibiotiko bakoitzarentzat, indize horiek balio jakin bat lortu beharko dute eraginkortasuna bermatzeko[56,57].



6. irudia: Antibiotikoen efikaziarekin erlazionatuta dauden PDIak.

[56] Scaglione F. Pharmacokinetic/Pharmacodynamic (PK/PD) considerations in the management of Gram-positive bacteraemia. Int J Antimicrob Agents. 2010;36 Suppl 2:S33-9.

[57] Lodise TP, Drusano GL. Pharmacokinetics and pharmacodynamics: optimal antimicrobial therapy in the Intensive care unit. Crit Care Clin. 2011;27(1):1-18.

Antibiotikoek daukaten aktibitatearen arabera hiru patroi nagusi deskribatu dira, eta PDI egokiena farmakoaren araberakoa izango da:

a) Kontzentrazioaren menpeko eragina duten antimikrobianoak, efektu post-antibiotiko (EPA) luzearekin

EPA luzea dutenez, farmako kontzentrazioak MICaren azpitik daudenean ere inhibitua dago bakterioen hazkuntza. Beraien efikazia determinatzeko gehien erabiltzen diren indizeak Cmax/MIC eta AUC_{24h}/MIC dira. Horregatik, medikamentu-kontzentrazio altuak eta dosifikazio-tarte luzeak erabiltzen dira. Izan ere, bakterioen heriotza-tasa altuagoa eta efektu azkarragoa ikusi izan dira antibiotikoaren dosia handitzean. Talde honetan, besteak beste, aminoglikosidoak edota fluorokinolonak daude.

b) Denboraren menpeko efektua duten antibiotikoak, EPA motzarekin

Antibiotiko hauen efikaziarekin ongien korrelazionatu den indizea $T_{>MIC}$ da, eta normalean dosifikazio-tartearen ehuneko moduan adierazten da. Horrela, medikamentu baten erdibizitza geroz eta motzagoa izan, orduan eta maiztasun handiagoan administratu beharko da. Zenbait kasutan, bereziki behar den $T_{>MIC}$ altua denean, zain-barneko perfusioa beharrezkoa izan daiteke. Talde honen barruan antibiotiko betalaktamikoak daude[56,57].

c) Kontzentrazioarekiko independente den efektua duten antibiotikoak, EPA luzearekin

Lehenengo taldean gertatzen zen moduan, antibiotiko-kontzentrazio altuek heriotza bakterianoa handitzen dute arinki, baina mikroorganismoen hazkuntza inhibituko dute luzaroko, kontzentrazioak MICaren azpitik mantentzen direnean ere. Talde honetan erabiltzen diren indikadoreak AUC_{24h}/MIC edo Cmax/MIC dira eta bankomizina, tetraziklinak edota tigeziklina bezalako antibiotikoak hartzen ditu barne[56,57].

Esan bezala, analisi farmakozinetiko/farmakodinamiko egokia egiteko, PDI aproposa aukeratzeaz gain, antibiotiko bakoitzarekin arrakasta terapeutikoa lortzeko behar den indizearen balio zehatza ere determinatu behar da, alegia, helburu farmakodinamikoa zehaztu behar da (*pharmacodynamic target*, PDT)[58]. Antibiotiko baten dosifikazio bat eraginkortzat hartzeko, beraz, dagokion PDIarentzat helburu farmakodinamiko jakin batera heltzen den aztertu beharko da, aurretik egindako *in vivo*[59] zein *in vitro*[60,61] ikerketetan adostuko dena. Batzuetan, PDTa zehazteko, farmakoaren kontzentrazio totala kontuan hartu beharrean, frakzioa askea (*f*) hartzen da aintzat, hau baita efektu farmakologikoa eragiteko gai den bakarra. Adibide moduan, **1. taulan** zenbait antibiotikoren PDIak zein PDTak jaso dira.

[58] Asín-Prieto E, Rodríguez-Gascón A, Isla A. Applications of the pharmacokinetic/pharmacodynamic (PK/PD) analysis of antimicrobial agents. J Infect Chemother. 2015;21(5):319-29.

[59] Turnidge J, Paterson DL. Setting and revising antibacterial susceptibility breakpoints. Clin Microbiol Rev. 2007;20(3):391-408.

[60] Andes D, Craig WA. Animal model pharmacokinetics and pharmacodynamics: a critical review. Int J Antimicrob Agents. 2002;19(4):261-8.

[61] Zhao M, Lepak AJ, Andes DR. Animal models in the pharmacokinetic/pharmacodynamic evaluation of antimicrobial agents. Bioorg Med Chem. 2016;24(24):6390-400.

1. taula: Zenbait antibiotikoren aktibitate mota, PDIak eta PDTak.

Aktibitate mota	Antibiotikoa	Indize farmakozinetiko/ farmakodinamikoa	Helburu farmakodinamikoa
Kontzentrazio-menpekoa EPA luzearekin	Aminoglikosidoak	Cmax/MIC	10[62]
	Fluorokinolonak	AUC_{24h}/MIC	125[63,64]
	Daptomizina	AUC_{24h}/MIC	666[65]
Denbora-menpekoa EPA motzarekin	Betalaktamikoak:		
	Penizilinak	$fT_{>MIC}$	50-60[53]
	Zefalosporinak		60-70[53]
	Karbapenemak		40-50[53]
Kontzentrazio independentea EPA luzearekin	Linezolid	AUC_{24h}/MIC -- $T_{>MIC}$*	80 -- 85[66,67]*
	Bankomizina	AUC_{24h}/MIC	400[68]
	Tigeziklina	AUC_{24h}/MIC	17,9[69]

*Linezoliden kasuan, bai AUC_{24h}/MIC baita $T_{>MIC}$ ere kontuan har daitezke.

[62] Kashuba AD, Nafziger AN, Drusano GL, Bertino JS Jr. Optimizing aminoglycoside therapy for nosocomial pneumonia caused by gram-negative bacteria. Antimicrob Agents Chemother. 1999;43(3):623-9.

[63] Schentag JJ. Pharmacokinetic and pharmacodynamic surrogate markers: studies with fluoroquinolones in patients. Am J Health Syst Pharm. 1999;56(22 Suppl 3):S21-4.

[64] Aminimanizani A, Beringer P, Jelliffe R. Comparative pharmacokinetics and pharmacodynamics of the newer fluoroquinolone antibacterials. Clin Pharmacokinet. 2001;40(3):169-87.

[65] Canut A, Isla A, Betriu C, Gascón AR. Pharmacokinetic-pharmacodynamic evaluation of daptomycin, tigecycline, and linezolid versus vancomycin for the treatment of MRSA infections in four western European countries. Eur J Clin Microbiol Infect Dis. 2012;31(9):2227-35.

[66] Pea F, Viale P, Cojutti P, Del Pin B, Zamparini E, Furlanut M. Therapeutic drug monitoring may improve safety outcomes of long-term treatment with linezolid in adult patients. J Antimicrob Chemother. 2012;67(8):2034-42.

[67] Rayner CR, Forrest A, Meagher AK, Birmingham MC, Schentag JJ. Clinical pharmacodynamics of linezolid in seriously ill patients treated in a compassionate use programme. Clin Pharmacokinet. 2003, 42:1411-23.

[68] Moise-Broder PA, Forrest A, Birmingham MC, Schentag JJ. Pharmacodynamics of vancomycin and other antimicrobials in patients with *Staphylococcus aureus* lower respiratory tract infections. Clin Pharmacokinet. 2004;43(13):925-42.

[69] Meagher AK, Passarell JA, Cirincione BB, Van Wart SA, Liolios K, Babinchak T, et al. Exposure-response analyses of tigecycline efficacy in patients with complicated skin and skin-structure infections. Antimicrob Agents Chemother. 2007;51(6):1939-45.

6. Monte Carlo simulazioa

Gaixo larrietan pertsonen arteko aldakortasuna nabaria izan ohi da eta ZIUetan egindako ikerketan parte hartzen duen gaixo-kopurua mugatua izaten da. Informazio murritz horrek dosifikazioen doikuntza ezegokia edota, helburu terapeutikoak lortzeari dagokionez, predikzio okerrak egitera eraman gaitzake. Hori gertatu ez dadin, indibiduoen arteko aldakortasuna aintzat hartu eta laginaren tamaina handiagotu edo maximizatu egiten duten estrategiak egin daitezke, Monte Carlo simulazioa (MCS) erabiliz. MCSak, aurretik eraikitako eredu farmakozinetikoaren ekuazioak aintzat hartzen ditu eta, indibiduo desberdinen artean lortutako parametroen distribuzioa kontuan hartuz (batez bestekoa eta desbiderapen estandarra, esaterako), milaka subjektu desberdin simulatzen ditu[70].

Simulazio horiek, beraz, baliagarriak izango dira terapia enpirikoan zein populazio berezietan (gaixo larriak, paziente obeso zein pertsona nagusiak, etab.) dosifikazio optimoak aurreikusteko. Dena den, emaitza fidagarriak lortzeko eta alborapenik egon ez dadin, nahitaezkoa izango da balioztatu den eredu farmakozinetiko bat edukitzea, barne hartzen dituen aldagaiak kontuan hartuz. Bestalde, ezinbestekoa izango da ere PKren eta PDren arteko erlazioa ondo definitzen duen eredu farmakodinamikoa izatea[71].

MCSa egitean, helburu farmakozinetiko/farmakodinamikoa lortzeko probabilitateen (PTA) kalkulua egiten da. PTAk, MIC balio zehatz batentzat, PDIak balio jakin bat lortzeko probabilitatea zehazten du, adibidez %30ko $T_{>MIC}$ edota 200eko AUC_{24h}/MIC. Hau da, simulatutako pazienteen zein ehunekok

[70] Bonate PL. A brief introduction to Monte Carlo simulation. Clin Pharmacokinet. 2001;40(1):15-22.

[71] Roberts JA, Kirkpatrick CM, Lipman J. Monte Carlo simulations: maximizing antibiotic pharmacokinetic data to optimize clinical practice for critically ill patients. J Antimicrob Chemother. 2011;66(2):227-31.

lortzen duen PDIaren balio berdina edo handiagoa determinatzen du, MIC balio konkretu batentzat.

Hala ere, askotan, eguneroko praktika klinikoan ez da mikroorganismoen sentikortasuna ezagutzen. Kasu horietan, baliagarria izan daiteke erantzunaren metatze-frakzioa (CFR) erabiltzea. CFRak arrakasta izateko probabilitatea kalkulatzen du antibiotiko baten dosifikazio-erregimen zehatz batekin eta mikroorganismoen populazio jakin batentzat. Hortaz, populazio baten zein ehunekok lortuko duen helburu farmakodinamikora heltzea estimatzen du, Monte Carlo simulazioak burutu ostean eta mikroorganismo jakin baten distribuzioa ezagututa. CFRa horrela kalkulatuko da:

$$CFR = \sum_{i=1}^{n} PTA_i \times F_i \qquad \textbf{(Eq.4)}$$

Non *i* azpiindizeak mikroorganismo populazio batean dagoen MIC balio txikienetik handienerako balioak hartzen dituen; PTA*i* MIC balio bakoitzarentzat lortutako PTA den eta F*i* mikroorganismo populazioan MIC balio bakoitzak duen frakzioa den.

Hurbilketa hau patogenoen sentikortasuna oraindik ezaguna ez denetan baliagarria izan daiteke; baita ospitale konkretu batean antibiotiko baten dosifikazio-erregimen egokiena zein den determinatzeko ere. Hala ere, CFRaren estimazio egokia egiteko, ezinbestekoa izango da aurretik MICen distribuzioa leku eta denbora konkretu batentzat ondo zehaztua izatea. Izan ere, bakterioek antibiotikoekiko duten sentikortasun-patroiak alda daitezke denboran zehar, baita lurralde, ospitale zein zerbitzu artean ere. Hori dela eta, askotan literaturan argitaratutako MICen balioak ez dira momentu zehatz bateko errealitatearen adierazgarri.

7. Ondorioak

Analisi farmakozinetiko/farmakodinamikoak, populazioaren modelizazio farmakozinetikoarekin eta MCSekin batera, antibiotikoen dosifikazio-erregimenen optimizazioa egitea ahalbidetzen du. Hau bereziki erabilgarria izango da gaixo larrietan. Alde batetik, farmakoen PK modu nabarian eraldatuta izan ohi dutelako, eta bestetik, infekzioak antibiotikoekiko erresistenteagoak diren mikroorganismoek eragiten dizkietelako.

HELBURUAK

Helburuak

Azken urteotan, gaixotasun infekziosoen kudeaketa osasun publikoko arazo bilakatu da. Antimikrobianoekiko erresistentzien igoerak hainbat antibiotikoek infekzioen aurka egiteko zuten gaitasuna galarazi du, bakterioen aurkako tratamenduen efikazia gutxituz. Arazo honen larriagotzea ekiditeko, ezinbestekoa da hainbat ekintza desberdin aurrera eramatea, hala nola, antimikrobiano berrien garapena, infekzioen prebentzioa edota dosifikazioen optimizazioa bultzatzea.

Tratamenduaren optimizazioari dagokionez, premiazkoa da farmakoek pazienteetan jasaten dituzten prozesu farmakozinetikoak eta antibiotikoen farmakodinamia ezagutzea. Hau da, antibiotikoak eragiten duen efektuaren berri izatea infekzioa eragiten duen mikroorganismoan. Horrela, analisi farmakozinetiko/farmakodinamikoa eta Monte Carlo simulazioa erreminta erabilgarriak izan daitezke dosifikazio optimoa bermatzeko; arrakasta probabilitateak handituz eta erresistentziak zein eragin desiragaitzak azaltzea galaraziz. Horrek berebiziko garrantzia izango du farmakoen farmakozinetika zein farmakodinamia eraldatuak izan ohi dituzten pazienteetan, gaixo kritikoetan, esaterako.

Gauzak horrela, tesi honen helburu nagusia gaixo larrietan daptomizinarentzat eta linezolidentzat populazio-eredu farmakozinetikoak garatzea izango da; modu honetan, Gram-positiboen aurkakoak diren bi antibiotiko berrienetarako hauen dosifikazio-erregimenen eraginkortasuna ebaluatzeko, analisi farmakozinetiko/farmakodinamikoa eta Monte Carlo simulazioak erabiliz. Xede hau gauzatzeko asmoz, hurrengo helburu partzialak proposatu dira:

1) Daptomizinarentzat eta linezolidentzat populazio-eredu farmakozinetikoak garatzea, antimikrobiano hauen farmakozinetikan eragin esanguratsua duten faktore fisiologikoak eta patologikoak identifikatzeko, eta hortaz, pazienteek duten antibiotikoarekiko esposizioa aztertzeko asmoz. Aldakortasun farmakozinetikoaren zergatiak identifikatu eta kuantifikatuko dira; beharrezko kasuetan, etengabeko giltzurrun ordezkatze teknikak ere aintzat hartuta.

2) Tratamenduaren eraginkortasunarekin erlazionaturiko indize farmakozinetiko/farmakodinamikoak eta efektu desiragaitzekin lotutako kontzentrazioak kontuan hartuta, dosi estandarrarekin kontzentrazio eraginkorrak eta segurtasunarekin erlazionaturiko profilak lortzeko probabilitateak ebaluatzea.

3) Dosifikazio erregimen alternatiboen simulazioak egitea eta terapia antimikrobianoaren emaitza mesedegarriak lortzeko gomendioak proposatzea. Horretarako, tratamenduaren efikazia ez ezik, albo-eraginekin lotutako antibiotiko kontzentrazioak lortzeko probabilitateak ere kontuan hartu beharko dira.

ATAL-ESPERIMENTALA

2. kapitulua

Daptomizinaren populazio-farmakozinetika gaixo larrietan

A. Soraluce[1], E. Asín-Prieto[1,2], A. Rodríguez-Gascón[1], H. Barrasa[3], J. Maynar[3], E. Carcelero[4], D. Soy[4], A. Isla[1]

Int J Antimicrob Agents. 2018 Mar 20. pii: S0924-8579(18)30079-7
(doi: 10.1016/j.ijantimicag.2018.03.008)

[1] Farmakozinetika, Nanoteknologia eta Terapia Genikoa taldea. Farmazia Fakultatea, Lascaray-ikergunea, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU, Vitoria-Gasteiz; [2]Pharmacometrics & Systems Pharmacology Research Unit, Department of Pharmacy and Pharmaceutical Technology, School of Pharmacy and Nutrition, University of Navarra, Iruña; [3]Zainketa Intentsiboetako Unitatea. Arabako Unibertsitate Ospitalea, Vitoria-Gasteiz; [4]Pharmacy Department, Hospital Clinic – Division of Medicines, Bartzelona.

LABURPENA: Daptomizinak hainbat bakterio Gram-positiboren kontra aktibitatea erakutsi du. Haatik, gaixo kritikoetan onartutako dosiak sarritan ez dira nahikoak izaten. Ikerketa honen helburu nagusia izango da gaixo larrientzat daptomizinaren populazio-eredu farmakozinetiko bat garatzea eta baita analisi farmakozinetiko/farmakodinamikoa burutzea, terapiaren efikazia zein den estimatzeko asmoz. Zainketa intentsiboko unitateko hamasei pazientek parte hartu zuten ikerketan, eta horietatik lauk etengabeko giltzurrun-ordezkatze teknikak (EGOT) ezarriak zituzten. Behin daptomizina administratu ostean, plasma eta efluente laginak aurretik zehaztutako denbora-tarteetan jaso ziren. Datuak analizatzeko populazio-eredu bat garatu zen NONMEM 7.3 programa erabiliz. Dosifikazio-erregimen desberdinen egokitasuna zehazteko, Monte Carlo simulazioak egin ziren. Horrela, terapiaren arrakastarekin erlazionatutako balioak eta toxikotasunarekin lotutako kontzentrazioak lortzeko probabilitateak kalkulatu ziren; hau da, AUC_{24h}/MIC ≥ 666 eta $Cmin_{ss}$ ≥ 24.3 mg/L, hurrenez, hurren. Daptomizinaren plasma kontzentrazioak ongien deskribatu zituen eredua konpartimentu bakarrekoa izan zen. Kreatinina argitzapenaren (Clcr) eragina farmakoaren eliminazioan identifikatu zen, eta, EGOTak ezarriak zituzten pazienteetan, baita gorputz-kanpoko argitzapenarena ere. Analisi farmakozinetiko/farmakodinamikoaren bitartez, egiaztatu zen MIC balioak ≥ 1 mg/L direnean, 280 eta 420 mg/24h-ko dosiek ez dutela eraginkortasuna lortzeko probabilitatea altuak izango pazienteen Clcr > 60 mL/min denean, edo oraindik baxuagoa denean EGOTak ezarriak izatean. Horrela, paziente hauetan dosi altuagoak beharko lirateke (560-840 mg/24h). MIC balioa ≥ 4 mg/L duten bakterioek eragindako infekzioak tratatzeko, dosi altuena administratzea ere ez litzateke nahikoa izango.

1. Sarrera

Daptomizina bakterio Gram-positiboen aurkako jarduera duen antibiotiko lipopeptidikoa da. Besteak beste, eraginkortasuna frogatu du metizilinarekiko erresistenteak diren *Staphylococcus aureus* (MRSA) eta bankomizinarekiko sentikorrak diren enterokokoen aurka. Egun, bakterio Gram-positiboek sortutako larruazal eta atal biguinen infekzio konplexuak, eskuineko endokarditis infekziosoa eta *S. aureus*-ek sortutako bakteriemia tratatzeko indikazioetan baimendua dago[1,2,3].

Daptomizina zelulaz kanpoko fluidoetan zehar banatzen da gehienbat, eta odoleko proteinekiko lotura handia izan ohi du (%90 inguru). Batez ere giltzurrun bidez iraizten denez, giltzurrun-gutxiegitasuna duten pazienteetan dosia doitzea aholkatzen da. Egunean 4 mg/kg-tik 12 mg/kg-ra arteko dositan administratuz gero, antibiotiko honek farmakozinetika (PK) lineala duela egiaztatu da[3,4].

Antimikrobiano hau gaixo larrien terapia enpiriko moduan erabiltzen da maiz. Izan ere, zainketa intentsiboetako unitateetan (ZIU) oso ohikoak izan ohi dira bakterio Gram-positiboek eragindako infekzioak[5]. Pazienteen egoera fisiopatologikoa dela eta, antibiotikoen farmakozinetika eraldatuta egoten da sarritan, bereziki farmako hidrofilikoena. Horrela, farmakoen farmakozinetikan

---

[1] Tally FP, DeBruin MF. Development of daptomycin for Gram-positive infections. J Antimicrob Chemother. 2000;46(4):523-6.

[2] Straus SK, Hancock RE. Mode of action of the new antibiotic for Gram-positive pathogens daptomycin: comparison with cationic antimicrobial peptides and lipopeptides. Biochim Biohys Acta. 2006;1758(9):1215-23.

[3]European Medicines Agency. Cubicin®: summary of product characteristics. Eskuragarri: http://www.ema.europa.eu/docs/en_GB/document_library/EPAR_-_Product_Information/human/000637/WC500036049.pdf [kontsulta: 2017ko maiatza].

[4] Benvenuto M, Benziger DP, Yankelev S, Vigliani G. Pharmacokinetics and tolerability of daptomycin at doses up to 12 milligrams per kilogram of body weight once daily in healthy volunteers. Antimicrob Agents Chemother. 2006;50(10):3245-9.

[5] Vincent JL, Rello J, Marshall J, Silva E, Anzueto A, Martin CD, et al. International study of the prevalence and outcomes of infection in intensive care units. JAMA. 2009;302:2323–9.

ematen diren aldaketen artean daude, besteak beste, banaketa-bolumenaren handipena (V), proteinekiko loturaren aldaketa, giltzurrun-funtzioa handitua izatea edota giltzurrun-gutxiegitasuna zein gibel-disfuntzioa[6,7,8]. Gainera, zerbitzu hauetan osasuna bermatzeko erabiltzen diren zenbait bizi-euskarriko neurriek ere –etengabeko giltzurrun-ordezkatze teknikek (EGOT), esaterako– profil farmakozinetikoa eralda dezakete.

Hori dela eta, ZIUko pazienteen farmakozinetikan aldakortasun handia egon ohi da eta, ondorioz, antibiotikoen posologia egokiena aukeratzea erronka garrantzitsua da sarritan[8]. Gauzak horrela, populazio-eredu farmakozinetikoak eraikitzea lagungarri izan daiteke aldakortasun hori identifikatzeko eta kuantifikatzeko. Izan ere, eredu hauei esker, paziente bakoitzarentzat egokiena den dosifikazio optimoa zehazteko analisi farmakozinetiko/farmakodinamikoak (PK/PD) egin ahal izango dira. Hortaz, ikerketa-lan honen helburu nagusia izango da gaixo larrientzat daptomizinaren populazio-eredu farmakozinetiko bat garatzea eta baita analisi farmakozinetiko/farmakodinamikoa burutzea, efikazia-zein segurtasun-profilak aintzat hartuta, hain zuzen ere posologia egokiena zehazteko asmoz.

[6] Scaglione F. Can we transfer pharmacokinetics/pharmacodynamics of antimicrobials into clinical practice? Int J Antimicrob Agents. 2015;46(Suppl 1):S40–S42.

[7] Blot S, Pea F, Lipman J. The effect of pathophysiology on pharmacokinetics in the critically ill patient - concepts appraised by the example of antimicrobial agents. Adv Drug Deliv Rev. 2014;77:3–11.

[8] Tsai D, Lipman J, Roberts JA. Pharmacokinetic/pharmacodynamic considerations for the optimization of antimicrobial delivery in the critically ill. Curr Opin Crit Care. 2015;21(5):412-20.

2. Pazienteak eta metodoak

2.1. Ikerketaren diseinua

Behaketa bidezko saiakuntza irekia, prospektiboa eta zentro-anitzekoa burutu zen Arabako Unibertsitate Ospitaleko (Vitoria-Gasteiz) eta Clinic Ospitaleko (Bartzelona) ZIUetan. Horretarako, aldez aurretik erakundeen Ikerketa Klinikoetarako Batzorde Etikoen oniritzia jaso zen. Bestalde, entsegu honetan parte hartu ahal izateko, paziente bakoitzaren edota gertuko senideen baimen informatua izatea premiazkoa zen. Parte hartzeko irizpideak honakoak izan ziren: i) ZIUko pazientea izatea; ii) bakterio Gram-positibo batek eragindako infekzioa pairatzeko susmoa izatea eta, ondorioz, daptomizinarekin tratatua izatea; iii) baimen informatua eman izana; eta iv) plasma-laginak eskuratzea posible izatea, baita efluente-laginak ere, pazienteek EGOTak ezarriak izatean. Baztertzeko irizpideak, berriz, honako hauek izan ziren: adin txikikoa izatea (<18 urte), haurdun egotea edota daptomizinarekiko zein eszipienteekiko hipersentikortasuna azaltzea.

1. taulan pazienteen datu demografikoak eta biokimikoak bildu dira, baita APACHE II puntuazioa ere (ingeleseko terminoa, *Acute Physiology and Chronic Health Evaluation II*). Kreatinina-argitzapena (Clcr) Cockcroft-Gault ekuazioa erabiliz kalkulatu zen. Horretarako, pazienteen benetako gorputz-pisua erabili zen gaixo ez obesoetan; aldiz, GMI ≥ 30 kg/m^2 zuten pazienteetan gorputz-pisu ideala erabili zen[9].

[9] Nguyen MT, Fong J, Ullah S, Lovell A, Thompson CH. Estimating glomerular filtration rate in obese subjects. Obes Res Clin Pract. 2015;9(2):152-7.

1. taula. Ikerketan parte hartu zuten 16 pazienteen datu demografikoak eta biokimikoak, APACHE II puntuazioa eta ingresatutako ospitalea. AUO: Arabako Unibertsitate Ospitalea; CO: Clinic Ospitalea; EGOT: etengabeko giltzurrun-ordezkatze teknikak; GMI: gorputz-masaren indizea; Clcr: kreatinina argitzapena; GOT: glutamato-oxalazetato transaminasa; GPT: glutamato-pirubato transaminasa; CPK: kreatinina-fosfokinasa; CL_{EC}: gorputz-kanpoko argitzapena.

Pazienteen ezaugarriak	N/N*	Mediana (Tartea)
Ospitalea		
AUO (EGOT gabe/EGOT)	12/2	
CO (EGOT gabe/EGOT)	0/2	
Datu demografikoak		
Adina (urteak)	-	67 (48-83)
Sexua (gizonezko/emakumezko)	7/9	-
Pisua (kg)	-	84 (52-100)
GMI (kg/m^2)	-	29,6 (20,3-42,2)
Datu biokimikoak		
Kreatinina (mg/dL)	-	0,95 (0,6-1,8)
Clcr (mL/min)	-	
EGOT gabe	-	66 (20-121)
EGOT	-	8 (0-54)
Glukosa (mg/dL)	-	197 (106-299)
Hemoglobina (g/dL)	-	9,1 (7,2-11,7)
Hematokritoa (%)	-	25,7 (21,0-33,2)
Albumina (g/dL)	-	2,7 (1,7-3,8)
Proteina totalak (g/dL)	-	5,3 (3,9-6,9)
Bilirrubina (mg/dL)	-	0,7 (0,3-2,6)
Leukozitoak (/mm^3)	-	13.100 (5.500-2.000)
GOT (UI/L)	-	25 (10-200)
GPT (UI/L)	-	38 (6-566)
CPK (U/L)	-	53 (7-520)
APACHE II	-	18 (7-30)
CL_{EC}[a] (L/h)		0,46 (0,32-0,48)

[a]Soilik EGOTak ezarriak zituzten pazienteentzat.

2.2. Farmakoaren administrazioa, lagin-bilketa eta analisia

350-850 mg bitarteko daptomizina-dosiak (Cubicin®) administratu zitzaizkien pazienteei, 24 edo 48 ordutik behin. Antibiotikoa zain-barneko infusio motz bidez eman zen kasu guztietan, 20-tik 60 minutura bitarteko iraupenarekin. Lagin-bilketarekin hasi baino lehen, paziente bakoitzari batez beste 4 daptomizina-

dosi eman zitzaizkion. Odol-laginak dosia eman baino lehen eta infusio amaieran jaso ziren. Bestalde, lagin bana hartu zen 4 eta 8 orduko tartean, 10 eta 14 orduko tartean eta 24 eta 48 ordu pasa ostean (azken hau bakarrik 48 orduro dosifikatu zenean). Lagin bakoitza berehala zentrifugatu zen, 10 minutuz 3.000 rpm-tan. Lortutako plasma-laginak -80º C-tan izoztu ziren analizatu arte. EGOTak ezarriak zituzten pazienteetan, odola ez ezik, efluente-laginak ere hartu ziren denbora tarte berdinetan, eta zuzenean -80º C-tan gorde ziren.

Plasma-laginetan zegoen antibiotiko-kontzentrazioa kuantifikatzeko, aldez aurretik balioztatutako detekzio ultramoredun bereizmen handiko kromatografia likidoa (*high performance liquid chromatography*, HPLC) erabili zen (**1. eranskina**). Lehenik eta behin, proteinak azetonitriloarekin prezipitatu ziren, eta horrek kuantifikaziorako erabiliko zen barne estandarra (propil-4-hidroxibenzoato) disolbatua zuen. Ostean, laginak 10 minutuz zentrifugatu ziren, 12.000 rpm-ko baldintzapean. Bertatik lortutako gainjalkinak, baita efluente-laginak ere, HPLC sisteman injektatu ziren. Banaketa Simmetry® C8 zutabe batekin burutu zen (4,6 mm x 150 mm x 5 μm). Linealtasuna plasman eta efluentean espero ziren kontzentrazio tarteetan frogatu zen; 2,5-150 μg/mL eta 0,1-20 μg/mL, hurrenez hurren. Intra eta inter-egun zehaztasuna eta doitasuna kuantifikazio-limiteekin eta linealtasun tarteko beste hiru kontzentraziorekin frogatu ziren. Alegia, plasma-laginen kasuan 2,5, 7, 40 eta 120 μg/mL-tako kontzentrazioekin, eta efluente-laginen kasuan 0,1, 0,3, 2 eta 16 μg/mL-rekin. Kalkulatutako kontzentrazioen desbiderapenak inoiz ez zuen balio teorikoaren %15 gainditu. Bestalde, intra- eta inter-saiakuntza doitasuna, aldakuntza-koefiziente moduan adierazia (*coefficient of variation*, CV), %15 balioaren azpitik mantendu zen beti. Daptomizina estandarra Novartis Pharma AGri esker lortu zen.

2.3. Populazio-eredu farmakozinetikoa

2.3.1. Oinarrizko eredua

Populazio-eredua sortzeko baldintzazko lehen mailako estimazio metodoa interakzioarekin (FOCE-I) erabili zen NONMEM 7.3 programa baliatuz[10]. Farmako totalaren kontzentrazioen disposizioa aztertzeko eredu konpartimentalak erabili ziren eta, hondar-balioen banaketa aztertu ostean, datuak logaritmoetara transformatzea erabaki zen. Ereduen ebaluaziorako, funtzio-objektiboaren balioaren beherakada (OFV = -2 x log-egiantza), parametroen kalkuluan emandako errore erlatibo estandarrak (*relative standard errors*, RSE) eta doikuntza-egokitasuna ebaluatzeko grafikoak (*goodness-of-fit*, GOF, *plots*) kontuan hartu ziren. Aldakortasun interindibiduala (*inter-individual variability*, IIV) adierazteko eredu esponentziala erabili zen, eta hondar-errorerako eredu aditiboa, eskala logaritmikoan. Bestalde, omega bariantza-kobariantza matrizearen diagonaletik kanpo geratzen diren elementuen esangura ikertu zen.

2.3.2. Aldagaien aukeraketa

Neurri batean IIV azaltzeko eta populazio eredua hobetzeko asmoz, pazienteen ezaugarri demografikoek eta biokimikoek (**1. taula**) daptomizinaren parametro farmakozinetikoetan izan dezaketen efektua behatu zen. Gainera, EGOTak ezarriak zituzten pazienteetan gorputz-kanpoko argitzapena (CL_{EC}) kontuan hartu zen. CL_{EC} efluentearen fluxua (Q_{ef}) eta sieving koefizientea (Sc) biderkatzean lortzen den parametroa da. Sc-a gorputz-ordezkatze tekniketan mintzaren bidez kanporatutako farmako-frakzioa da. Kasu honetan, denbora jakin bakoitzean harturiko efluente- eta plasma-laginen kontzentrazioen zatiduraren batez bestekoa eginez kalkulatu zen. Populazio-eredu farmakozinetikoan

[10] Beal S, Sheiner LB, Boeckmann A, Bauer RJ. NONMEM User's Guides. (1989-2009), Icon Development Solutions, Ellicott City, MD, USA, 2009.

aldagaiak gehitzean, paziente guztien medianarekin normalizatu ziren. Horien aukeraketa egiteko, mailakatutako prozesua burutu zen, PsN 4.7.0-ren SCM tresna erabiliz. Prozesua aurrerako barne-hartze prozesuan eta atzerako ezabatzean oinarritzen da. Horrela, ereduan gehitu eta bertan mantentzeko esangura-mailak 0,05-en eta 0,01-en finkatu ziren, hurrenez hurren. GOF grafikoak ere erabilgarriak izan ziren aldagaiak ereduan mantentzea edo ez mantentzea erabakitzerako orduan.

2.3.3. Ereduaren ebaluazioa

Ereduaren garapenean eta ebaluazioan parametroen egiantza eta zehaztasuna aintzat hartu ziren. Gainera, honako GOF grafikoak ere kontuan hartu ziren: mendeko-aldagaia (kuantifikaturiko daptomizina-kontzentrazioen logaritmoa) vs. populazioaren eta norbanakoen aurreikusiak (PRED eta IPRED), haztatutako baldintzapeko hondar-balioak (*conditional weighted residuals*, CWRES) vs. dosi osteko denbora (*time after dose*, TAD), eta norbanako bakoitzaren haztatutako hondar-balioak (*individual weighted residuals*, IWRES) vs. IPRED. Bestalde, predikzioa eta aldakortasuna zuzenduta dituen azterketa bisual iragarlea (*prediction-and-variability-corrected visual predictive check*, pvc-VPC) irudikatu zen ereduaren egokitasuna zehazteko. Horretarako, PsN 4.7.0-ko VPC tresnarekin mila paziente birtual simulatu ziren daptomizinaren populazio-eredu finala erabiliz eta baldintza berdinen mendean. Behaturiko datuak zein simulatutakoak 5 bin desberdinetan banatu ziren, dosi osteko denbora (h) kontuan harturik. Gainera, horien 2,5., 50. eta 97,5. pertzentilak kalkulatu eta konparatu ziren. Emaitzak grafiko batean irudikatu ziren, R 3.4.0 programaren Xpose4 paketea baliatuz[11]. Bestalde, parametroen zehaztasuna ebaluatzeko 2.000 datu multzoko bootstrap bat exekutatu zen (Bootstrap tresna PsN 4.7.0-n). Eredua sortu eta ebaluazio-

[11]Jonsson, EN, Karlsson, MO. Xpose--an S-PLUS based population pharmacokinetic/ pharmacodynamic model building aid for NONMEM. Computer Methods and Programs in Biomedicine. 199;58(1):51-64.

prozesuan lortutako datu eta emaitzak antolatzeko Pirana v.2.9.5 softwarea erabili zen[12].

2.4. Monte Carlo simulazioa

2.4.1. Analisi farmakozinetiko/farmakodinamikoa (PK/PD)

Helburua lortzeko probabilitatearen (PTA) estimazioa

PTA (*probability of target attainment*) antibiotiko baten efikaziarekin erlazionaturiko indize farmakozinetiko/farmakodinamiko bat lortzeko probabilitatea da, patogeno-suszeptibilitate jakin batentzat (kontzentrazio minimo inhibitzailea edo *minimum inhibitory concentration*, MIC). PTAk kalkulatzeko, 5.000 subjektuko Monte Carlo simulazioak burutu ziren MIC desberdinentzat (0,25-tik 4-mg/L-rako tartean). Horretarako hainbat dosifikazio simulatu ziren: 280, 420, 560, 700 eta 840 mg/24 h. Hau da, 70 kg-ko pisua duen heldu estandar batentzat 4, 6, 8, 10 eta 12 mg/kg/24 h-ren baliokide izango liratekeen dosiak.

Daptomizinaren aktibitatea kontzentrazio-menpekoa denez gero, horren efikaziarekin ongien erlazionatuta dagoen parametro farmakozinetiko/farmakodinamikoa 24 h-tako kontzentrazio-denbora kurbaren azpian mugaturiko azalera eta mikroorganismoen kontzentrazio minimo inhibitzailearen arteko ratioa da (AUC_{24h}/MIC)[13,14]. Horrela, 666 baino altuagoak diren farmako-totalaren

[12] Keizer RJ, van Benten M, Beijnen JH, Schellens JH, Huitema AD. Piraña and PCluster: a modeling environment and cluster infrastructure for NONMEM. Comput Methods Programs Biomed. 2011;101(1):72-9.

[13] Louie A, Kaw P, Liu W, Jumbe N, Miller MH, Drusano GL. Pharmacodynamics of daptomycin in a murine-thigh model of *Staphylococcus aureus* infection. Antimicrob Agents Chemother. 2001;45:845–51.

[14] Safdar N, Andes D, Craig WA. In vivo pharmacodynamic activity of daptomycin. Antimicrob Agents Chemother. 2004;48:63–68.

AUC_{24h}/MIC balioak terapiaren arrakastaren probabilitate altuekin erlazionatu dira[15].

EGOTak ezarriak ez zituzten pazienteentzat 10 eta 130 mL/min arteko Clcr-ak ebaluatu ziren. EGOTak ezarriak zituzten gaixoen kasuan, aldiz, 0tik 30 mL/min-ra arteko Clcr-ak aztertu ziren, eta, gainera, CL_{EC}-a ere aintzat hartu zen. Azken hori pazienteetan neurtutako Sc-a (0,2 ± 0,05) eta bi Q_{ef} desberdin kontuan izanda kalkulatu zen (1,5 eta 2,5 L/h, pazienteetan ezarritako fluxu baxuenetik eta altuenetik gertu zeuden balioak). Simulazioak R programaren 3.4.0 bertsioarekin burutu ziren, mlxR paketea erabiliz[16].

Erantzunaren metatze-frakzioaren (CFR) kalkulua

CFRak (*cumulative fraction of response*) antibiotiko baten dosifikazio-erregimen zehatzek arrakasta izateko duten probabilitatea kalkulatzen du; MICen balio espezifikorik ezagutu ez arren, populazio batean horien frekuentzia jakina denean. Horrela, MIC balio bakoitzarentzat lortutako PTA aintzat hartuz, eta populazio jakin bateko bakterioen MICen distribuzioa ezagututa, tratamenduaren emaitza onuragarriak lortzeko probabilitatea kalkula daiteke[17].

2013. eta 2015. urte bitartean Arabako Unibertsitate Ospitaleko ZIUetan lortutako suszeptibilitateen informazioa erabili zen CFRn balioak estimatzeko. Era horretan, tratamenduaren arrakasta lortzeko probabilitateak kalkulatu ziren honako bakterio hauentzat: *Enterococcus faecalis*, *Enterococcus faecium*, *Staphylococcus epidermidis*, *Staphylococcus aureus* eta koagulasa negatiboko

[15] Canut A, Isla A, Betriu C, Gascón AR. Pharmacokinetic-pharmacodynamic evaluation of daptomycin, tigecycline, and linezolid versus vancomycin for the treatment of MRSA infections in four western European countries. Eur J Clin Microbiol Infect Dis. 2012;31(9):2227-35.

[16] Lavielle M. mlxR: Simulation of Longitudinal Data. R package version 3.2.0. 2016. Eskuragarri: *https://CRAN.R-project.org/package=mlxR*. [kontsulta: 2017ko abendua].

[17] Mouton JW, Dudley MN, Cars O, Derendorf H, Drusano GL. Standardization of pharmacokinetic/pharmacodynamic (PK/PD) terminology for anti-infective drugs: an update. J Antimicrob Chemother. 2005;55(5):601-7.

estafilokokoak (**2. taula**). Mikrobiologiako departamentutik lortutako datuak Whonet programarekin kudeatu ziren[18] eta PTA-k estimatzeko erabilitako egoera berdinak ebaluatu ziren.

Bai PTA bai CFR balioentzat %90etik gorako emaitzak optimotzat hartu ziren. Arrakasta moderatuarekin erlazionatu ziren, aldiz, %90 eta %80 arteko datuak[19].

2. taula. 2013.eta 2015. urte bitartean Arabako Unibertsitate Ospitaleko ZIUetan lortutako MICen distribuzioa daptomizinarentzat, *E. faecium, E. faecalis, S. epidermidis, S. aureus* eta koagulasa negatiboko estafilokokoentzat (CoNS).

Mikroorganismoa	Suszeptibilitate mozte-puntu klinikoa MIC (mg/L)[a]	Isolatutako andui kopurua	MIC (mg/L) balio bakoitzarekin inhibitzen den anduien ehunekoa					
			0,5	1	2	4	8	16
Enterococcus faecium	4	18		17	38	39	6	
Enterococcus faecalis	4	52	21	60	15	2		2
Staphylococcus epidermidis	1	18		100				
Staphylococcus aureus	1	58	26	74				
CoNS	1	63	2	94	2		2	

[a] Clinical and Laboratory Standard Institute (CLSI) eta European Committee on Antimicrobial Susceptibility Testing (EUCAST) erakundeen arabera.

[18] WHONET 5.6. Eskuragarri: *http://www.who.int/medicines/areas/rational_use/AMR_WHONET_SOFTWARE/en/* [kontsulta: 2018ko maiatza].

[19] Bradley JS, Dudley MN, Drusano GL. Predicting efficacy of antiinfectives with pharmacodynamics and Monte Carlo simulation. Pediatr Infect Dis J. 2003;22(11):982-92.

2.4.2. Segurtasunaren ebaluazioa

Kontzentrazio minimoaren estimazioa oreka egonkorrean ($Cmin_{ss}$)

Simulatutako subjetuetatik toxikotzat hartzen diren antibiotiko-kontzentrazio plasmatikoak ($Cmin_{ss} \geq 24,3$ mg/L)[20] zer ehunekok lortzen zituzten behatu zen. Horretarako, R programaren mxlR paketea erabili zen[16].

3. Emaitzak

Guztira, adin nagusiko 16 gaixo larrik parte hartu zuten ikerketa honetan eta horietatik lauk EGOTak ezarriak zituzten (**1. taula**). Paziente bakoitzeko 5 plasma-lagin analizatu ziren (6 daptomizina 48 orduro administratzean). EGOTak ezarriak zituzten pazienteetan efluente-lagin kopuru bera bildu zen. Pazienteei diagnostikaturiko gaitzen artean, sepsia (n = 5), larruazal eta ehun bigunetako infekzioak (n = 3), infekzio abdominalak (n = 3), bakteriemia (n = 2) edota bestelako infekzioak (n = 3) zeuden.

EGOTak ezarriak zituzten lau pazienteek etengabeko hemodiafiltrazio beno-benosoa egotzia zuten. Odol fluxua 150-180 mL/min artean mantendu zen eta efluentearena, aldiz, 1.600 eta 2.550 mL/h artean. Fluxua indikazio klinikoen arabera alda zitekeen. Ur-oreka negatiboa mantendu zen paziente orotan, 50 mL/h-tik 200 mL/h-ra.

[20] Bhavnani SM, Rubino CM, Ambrose PG, Drusano GL. Daptomycin exposure and the probability of elevations in the creatine phosphokinase level: data from a randomized trial of patients with bacteremia and endocarditis. Clin Infect Dis. 2010;50(12):1568-74.

3.1. Populazio eredu farmakozinetikoa

3.1.1. Oinarrizko eredua

Daptomizinaren plasma kontzentrazioak (eskala logaritmikoan) ongien deskribatu zituen eredua konpartimentu bakarrekoa izan zen. Eredu horrekin gorputzeko argitzapena (CL) eta banaketa bolumena (V) kuantifikatu ziren. Doikuntza GOF grafikoekin egiztatu zen (**1. irudia**). IIV esponentzialki gehitu zitzaion CLri eta Vri eta ez zen korrelaziorik aurkitu bi parametroen artean.



1. irudia. Hautatutako ereduarekin lortutako GOF grafikoak: Populazioaren (PRED)[a] eta norbanakoen (IPRED)[b] aurreikusiak versus menpeko aldagaia (kuantifikatutako daptomizina plasma-kontzentrazioak, μg/mL, eskala logaritmikoan), haztatutako baldintzapeko hondar-balioak (CWRES) versus dosi osteko denbora (h)[c], eta norbanako bakoitzaren haztatutako hondar-balioak (IWRES) versus norbanakoen aurreikusitako balioak[d].

3.1.2. Aldagaien aukeraketa

Antibiotiko honen argitzapena, giltzurrun-kanpoko argitzapenaren (CL_{NR}) eta giltzurrun-menpeko argitzapenaren (CL_R) arteko batura moduan kalkulatu zen; eta azken hori Clcr-aren eraginpean zegoen. EGOTak egotziak zeuzkaten pazienteen kasuan, paziente bakoitzaren CL_{EC} propioa gehitu zitzaion argitzapenaren ekuazioari. Clcr ereduan sartzean argitzapenean azaldu gabeko IIVa erdira jaitsi zen (%75etik %37ra). SCMak emaitza hauek berretsi zituen. Ereduan barne hartzeko bestelako aldagai adierazgarririk ez zen aaurkitu.

3.1.3. Ereduaren ebaluazioa

GOF grafikoetan ez zen joera adierazgarririk sumatu, ez CWRES versus dosi osteko denboran ezta IWRES versus iragarritako balio indibidualetan ere (**1. irudia**). Gainera, neurtutako eta iragarritako populazioren zein norbanakoen balioek korrelazio egokia erakutsi zuten. Bestalde, RSE (%) eta bootstrap-aren emaitzek parametroen estimazioa zehaztasunarekin burutu zela erakutsi zuten (**3. taula**) eta pvc-VPCak (**2. irudia**) datu gordinen eta populazio-eredutik lortutako simulazioen arteko korrelazio ona irudikatu zuen.

3.taula. Oinarrizko eredua eta hautatutako populazio-eredu farmakozinetikoa daptomizinaren zain-barneko infusio motzerako. Estimatutako parametroak, shrinkage[a] balioak eta bootstrap-aren emaitzak.

Parametroa	Oinarrizko eredua	Hautatutako eredua	Bootstrap, mediana (5. eta 95. pertzentilak)
	Estimatutako balioa, RSE (%)	Estimatutako balioa, RSE (%)	
CL (L/h) = CL_{NR} + CL_R+ CL_{EC}[b]	0,491 (21) +CL_{EC}		
CL_{NR}		0,16 (54)	0,160 (0,013-0,324)
CL_R = θ x (Clcr/49)		0,367 (20)	0,366 (0,239-0,527)
V(L)	12,50 (13)	12,30 (13)	12,31 (10,10-15,13)
IIV_$_{CL}$ (%)	74,6 (29)	36,7 (30)	32,5 (17,7-54,4)
IIV_$_{V}$ (%)	35,4 (25)	27,8 (30)	27,0 (11,9-42,8)
Hondar errorea_aditiboa (log-eskala)	0,110	0,123 (17)	0,114 (0,086-0,153)

[a]CLηsh= %30; Vηsh = %10; εsh = %11

[b] Soilik EGOTak ezarriak dituzten pazienteetan. Norbanakoen CL_{EC} balio aintzat hartu zen.

CL: argitzapena; CL_{NR}: giltzurrun-kanpoko argitzapena; CL_R: giltzurrun-menpeko argitzapena; Clcr: kreatinina-argitzapena; V: banaketa-bolumena; EGOT: etengabeko giltzurrun-ordezkatze teknikak; IIV: aldakortasun interindibiduala; RSE: errore erlatibo estandarra; ηsh: shrinkage balioa parametro batentzat; εsh: shrinkage balioa hondar-errorearentzat.



2. irudia. Dosi osteko denboran (0-tik 24 h-ra) lortutako pvc-VPCren emaitzak. Puntuak aurreikusitako kontzentrazioekin zuzendutako kuantifikatutako kontzentrazioak dira (µg/mL). Etengabeko marrak kuantifikatutako datuen batezbesteko balioa irudikatzen du eta bestelako marrek, 2,5. eta 97,5. pertzentilak. Itzal ilun eta argiek simulazioan lortutako %90eko konfiantza tartea erakusten dute, medianarentzat eta 2,5 eta 97,5. pertzentilentzat, hurrenez hurren.

3.2. Monte Carlo simulazioa

3.2.1. Analisi farmakozinetiko/farmakodinamikoa

Helburua lortzeko probabilitatea (PTA)

4. taulak eraginkortasunarekin erlazionaturiko helburu farmakodinamikoa (AUC_{24h}/MIC ≥ 666) lortzeko probabilitateak biltzen ditu simulatutako egoera guztientzat. Orokorrean, zenbat eta dosi altuagoak eta Clcr balio baxuagoak, orduan eta PTA handiagoak lortu ziren. Clcr balio berarentzat arrakasta-probabilitate baxuagoak estimatu ziren EGOT ezarriak zituzten pazienteetan. Kasu guztietan, badirudi 280 mg/24 h-ko dosia nahikoa litzatekela MIC ≤ 0,25 mg/L dituzten bakterioek eragindako infekzioak tratatzeko. MIC balioa 1 mg/L izanez gero, aldiz, tratamenduarekin arrakasta izateko probabilitate altuak (> %90) lortuko lirateke dosi altuenarekin (840 mg), 130 mL/min-ko Clcr-ak dituzten pazienteetan izan ezik. Bestalde, MIC ≥ 4 mg/L dituzten bakterioen infekzioak tratatzeko daptomizina ez litzateke eraginkorra izango.

Erantzunaren metatze-frakzioa (CFR)

5. taulan mikroorganismo desberdinentzat daptomizinarekin lortutako CFR balioak bildu dira. Ikus daitekeenez, *E. faecium*-entzat ez zen arrakasta terapeutikorako probabilitate alturik lortu, ezta dosi altuenarekin ere. *E. faecalis*-en kasuan, berriz, 560 mg-tako dosiekin, edo altuagoekin, CFR ≥ %90 balioak lortu ziren, betiere pazienteen Clcr ≤ 30 mL/min izanez gero eta EGOTak ezarriak ez bazituzten. Bestelako mikroorganismoei dagokienez, efikaziarekin erlazionatutako CFR balioak lortu ahal izatea dosiaren, Clcr-aren eta, EGOTak ezarriak egotean, CL_{EC}-aren menpe egongo litzateke.

4. taula. Daptomizinaren PTA balioak (%). Letra lodiz PTA ≥ %90 balioak eta letra etzanez PTA ≥ %80 balioak irudikatu dira.

Dosia/24h	**Clcr** (mL/min)	**EGOT gabe**					**EGOT**									
							Q_{ef} 1.5 L/h					**Q_{ef} 2.5** L/h				
280 mg	0						**100**	**100**	35	1	0	**100**	*89*	5	0	0
	10	**100**	**100**	**99**	38	5	**100**	**99**	18	0	0	**100**	73	3	0	0
	30	**100**	**100**	61	12	2	**100**	*84*	6	0	0	**100**	40	1	0	0
	60	**100**	*86*	21	4	1										
	90	**100**	52	10	2	1										
	130	**91**	25	5	2	1										
420 mg	0						**100**	**100**	**96**	8	0	**100**	**100**	40	1	0
	10	**100**	**100**	**100**	*83*	18	**100**	**100**	*80*	4	0	**100**	**100**	25	0	0
	30	**100**	**100**	**96**	32	6	**100**	**100**	38	1	0	**100**	**97**	10	0	0
	60	**100**	**100**	55	11	2										
	90	**100**	**93**	26	5	2										
	130	**100**	63	13	3	1										
560 mg	0						**100**	**100**	**100**	35	1	**100**	**100**	*89*	5	0
	10	**100**	**100**	**100**	**99**	38	**100**	**100**	**99**	18	0	**100**	**100**	73	3	0
	30	**100**	**100**	**100**	61	12	**100**	**100**	*84*	6	0	**100**	**100**	40	1	0
	60	**100**	**100**	86	21	4										
	90	**100**	**100**	52	10	2										
	130	**100**	**91**	25	5	2										
700 mg	0						**100**	**100**	**100**	75	3	**100**	**100**	**99**	17	0
	10	**100**	**100**	**100**	**100**	64	**100**	**100**	**100**	47	1	**100**	**100**	**97**	10	0
	30	**100**	**100**	**100**	85	20	**100**	**100**	**99**	18	1	**100**	**100**	*80*	3	0
	60	**100**	**100**	**98**	36	7										
	90	**100**	**100**	80	17	4										
	130	**100**	**99**	43	8	2										
840 mg	0						**100**	**100**	**100**	**96**	8	**100**	**100**	**100**	40	1
	10	**100**	**100**	**100**	**100**	*83*	**100**	**100**	**100**	*80*	4	**100**	**100**	**100**	25	0
	30	**100**	**100**	**100**	**96**	32	**100**	**100**	**100**	38	1	**100**	**100**	**97**	10	0
	60	**100**	**100**	**100**	55	11										
	90	**100**	**100**	**93**	26	5										
	130	**100**	**100**	63	13	3										
MIC (mg/L)		**0,25**	**0,5**	**1**	**2**	**4**	**0,25**	**0,5**	**1**	**2**	**4**	**0,25**	**0,5**	**1**	**2**	**4**

5. taula. Daptomizinaren CFR balioak bakteria desberdinentzat, kontuan hartuta 2013. eta 2015. urte bitartean Arabako Unibertsitate Ospitalean lortutako MICen distribuzioen frekuentzia. Letra lodiz CFR ≥ %90 balioak eta letra etzanez CFR ≥ %80 balioak irudikatu dira.

		Dosia (mg/24h) **EGOT gabe**					**Dosia** (mg/24h) **EGOT**									
							Q_{ef} 1.5 L/h					**Q_{ef} 2.5** L/h				
Bakterioa	**Clcr** (mL/min)	**280**	**420**	**560**	**700**	**840**	**280**	**420**	**560**	**700**	**840**	**280**	**420**	**560**	**700**	**840**
Enterococcus faecium	0						6	20	31	47	58	1	7	17	24	33
	10	34	57	71	*81*	*89*	3	15	24	36	50	0	4	14	20	27
	30	16	31	46	58	67	1	7	17	24	32	0	2	7	15	20
	60	6	14	25	34	43										
	90	3	7	14	21	28										
	130	2	4	7	11	17										
Enterococcus faecalis	0						42	*80*	*86*	**92**	**96**	22	45	75	*83*	*87*
	10	*86*	**94**	**97**	**97**	**98**	32	70	*83*	*88*	**93**	17	36	65	*81*	*85*
	30	60	*84*	**90**	**94**	**96**	21	44	72	*83*	*87*	9	26	45	69	*81*
	60	31	55	76	*85*	*89*										
	90	17	36	54	70	*81*										
	130	9	21	35	48	61										
Staphylococcus epidermidis	0						35	**96**	**100**	**100**	**100**	5	40	*89*	**99**	**100**
	10	**99**	**100**	**100**	**100**	**100**	18	*80*	**99**	**100**	**100**	3	25	73	**97**	**100**
	30	6	**96**	**100**	**100**	**100**	6	38	*84*	**99**	**100**	1	10	40	*80*	**97**
	60	21	55	*86*	**98**	**100**										
	90	10	26	52	*80*	**93**										
	130	5	13	25	43	63										
Staphylococcus aureus	0						52	**97**	**100**	**100**	**100**	27	56	**92**	**100**	**100**
	10	**99**	**100**	**100**	**100**	**100**	39	*85*	**100**	**100**	**100**	21	44	*80*	**98**	**100**
	30	71	**97**	**100**	**100**	**100**	26	54	*88*	**99**	**100**	11	33	55	*85*	**98**
	60	38	66	**90**	**98**	**100**										
	90	21	44	64	*83*	**95**										
	130	10	26	43	58	73										
Koagulasa negatiboko estafilokokoak	0						36	**93**	**98**	**98**	**99**	7	40	*86*	**97**	**98**
	10	**96**	**99**	**99**	**99**	**99**	19	78	**97**	**98**	**99**	4	26	72	**95**	**97**
	30	61	**94**	**98**	**99**	**99**	7	38	82	**96**	**98**	2	11	40	78	**94**
	60	22	54	*84*	**96**	**98**										
	90	11	27	52	76	**91**										
	130	5	13	26	43	63										

3.2.2. Segurtasunaren ebaluazioa

Kontzentrazio minimoa oreka egonkorrean ($Cmin_{ss}$)

6. taulan oreka egonkorrean daptomizina kontzentrazio minimoak 24,3 mg/L-tako balioak, edo altuagoak, lortzeko probabilitateak bildu dira; izan ere, toxikotasunarekin erlazionatu den kontzentrazioa da. Ikus daitekeenez, Clcr balio berdina izanda, toxikotasunarekin erlazionaturiko kontzentrazioak izateko probabilitate baxuagoak dituzte EGOTak ezarriak dituzten pazienteek. Horrela, EGOT gabeko pazienteetan, dosi baxuenarekin ere $Cmin_{ss} \geq 24,3$ mg/L lortzeko probabilitate altuak lortu ziren Clcr baxuentzat (Clcr ≤ 30 mL/min). EGOTak ezarriak dituzten pazienteei dagokienez, toxikotzat hartzen den kontzentrazioa lortzeko probabilitate altuagoak lortu ziren 1,5 L/h-ko efluente fluxuarekin.

6. taula. $Cmin_{ss} \geq 24,3$ mg/L balioak lortzeko probabilitatea (%).

	Dosia (mg/24h) **EGOT gabe**					**Dosia** (mg/24h) **EGOT**									
						Q_{ef} 1,5 L/h					**Q_{ef} 2,5** L/h				
Clcr (mL/min)	**280**	**420**	**560**	**700**	**840**	**280**	**420**	**560**	**700**	**840**	**280**	**420**	**560**	**700**	**840**
0						12	45	75	88	94	2	8	21	38	54
10	87	98	99	100	100	6	26	51	72	83	1	4	12	24	38
30	38	67	84	92	96	2	8	21	36	50	0	2	5	10	17
60	12	25	39	52	63										
90	6	11	18	25	33										
130	3	6	9	12	15										

4. Eztabaida

Lan honetan daptomizinarentzat populazio-eredu farmakozinetiko bat burutu da, gaixo larrietan. Eredu hau dosifikazio-erregimen desberdinen egokitasuna aurreikusteko erabili da, irizpide farmakozinetikoak eta farmakodinamikoak aintzat hartuta. Guk dakigula, EGOTak ezarriak dituzten eta ez dituzten gaixo larriak barne hartzen dituen lehenengo populazio-eredu farmakozinetikoa da honako hau. Horri esker, etengabeko teknikek farmakoaren farmakozinetikan duten eragina azter daiteke.

Daptomizinaren farmakozinetika eredu mono-[21,22,23] zein bi-konpartimentalen bidez[24,25,26] azaldu da. Lan honetan, plasma kontzentrazioa vs. denbora datuak ongien deskribatu zituen eredua mono-konpartimentala izan zen, hobekuntzarik ez baitzen sumatu eredu bi-konpartimentala aplikatzean. Aukeratutako ereduaren arabera, aztertutako antibiotikoaren argitzapena giltzurrun-menpeko (CL_R) eta giltzurrun-kanpoko argitzapenaren (CL_{NR}) arteko

[21] Dvorchik B, Arbeit RD, Chung J, Liu S, Knebel W, Kastrissios H. Population pharmacokinetics of daptomycin. Antimicrob Agents Chemother. 2004;48(8):2799-807.

[22] Di Paolo A, Tascini C, Polillo M, Gemignani G, Nielsen EI, Bocci G, et al. Population pharmacokinetics of daptomycin in patients affected by severe Gram-positive infections. Int J Antimicrob Agents. 2013;42(3):250-5.

[23] Pai MP, Russo A, Novelli A, Venditti M, Falcone M. Simplified Equations Using Two Concentrations To Calculate Area under the Curve for Antimicrobials with Concentration-Dependent Pharmacodynamics: Daptomycin as a Motivating Example. Antimicrob Agents Chemother. 2014;58(6):3162-7.

[24] Aikawa N, Kusachi S, Mikamo H, Takesue Y, Watanabe S, Tanaka Y, et al. Efficacy and safety of intravenous daptomycin in Japanese patients with skin and soft tissue infections. J Infect Chemother. 2013;19(3):447-55.

[25] Falcone M, Russo A, Cassetta MI, Lappa A, Tritapepe L, d'Ettorre G, et al. M. Variability of pharmacokinetic parameters in patients receiving different dosages of daptomycin: is therapeutic drug monitoring necessary? J Infect Chemother. 2013;19:732-9.

[26] Goutelle S, Roux S, Gagnieu MC, Valour F, Lustig S, Ader F, et al. Pharmacokinetic Variability of Daptomycin during Prolonged Therapy for Bone and Joint Infections. Antimicrob Agents Chemother. 2016;60(5):3148-51.

batura moduan kalkulatu zen. Gainera, giltzurrun-menpeko argitzapena Clcr-ren eraginpean dagoela ondorioztatu zen. Kreatinina-argitzapenak daptomizinaren ezabatzean duen eragina eta ereduarekin lorturiko pazienteen arteko aldakortasun handia ($IIV_{\_CL}$ = %37) bat datoz aurretik argitaratutako artikuluekin[22,27].

EGOTak ezarriak zituzten pazienteei dagokienez, haien CL_{EC} balioa argitzapenaren ekuazioari gehitu zitzaion; daptomizina teknika hauen bidez partzialki iraizten dela egiaztatu baita[28]. Ikerketa honetan parte hartu zuten pazienteen batez besteko CL_{EC} balioa (0,43 L/h) aurretik burututako bestelako ikerketen antzekoa izan zen[29,30], eta, aldi berean, boluntario osasuntsuetan deskribatutako argitzapenaren erdia (1 L/h inguru)[21]. Hortaz, daptomizinaren dosien optimizazioa egiteko, ezinbestekoa izango da teknika hauen bidez ezabatzen den farmako-frakzioa aintzat hartzea.

Gaixo larriek pertsona osasuntsuek baino farmakoen banaketa bolumen handiagoak izan ohi dituzte, edema, sepsia, proteinekiko loturen jaitsiera edota bolumen-gainkarga direla-eta, besteak beste. Gainera, paziente horien arteko heterogeneotasuna dela-eta, aldakortasun-interindibidual nabarmena antzematen da sarritan[7]. Horrela, ikerketa honetan lortutako banaketa-bolumena (12,3 L) boluntario osasuntsuena baino altuagoa izan zen. Aldiz, Di Paolo et al.-ek[22] eta Falcone et al.-ek[31] gaixo larrietan deskribatutako banaketa-bolumenek antzeko balioak izan zituzten (12,9 L eta 11,5 L, hurrenez hurren).

---

[27] Chaves RL, Chakraborty A, Benziger D, Tannenbaum S. Clinical and pharmacokinetic considerations for the use of daptomycin in patients with *Staphylococcus aureus* bacteraemia and severe renal impairment. J Antimicrob Chemother. 2014;69(1):200-10.

[28] Churchwell MD, Pasko DA, Mueller BA. Daptomycin clearance during modeled continuous renal replacement therapy. Blood Purif. 2006;24:548-54.

[29] Vilay AM, Grio M, Depestel DD, Sowinski KM, Gao L, Heung M, et al. Daptomycin pharmacokinetics in critically ill patients receiving continuous venovenous hemodialysis. Crit Care Med. 2011;39:19–25.

[30] Khadzhynov D, Slowinski T, Lieker I, Spies C, Puhlmann B, König T, et al. Plasma pharmacokinetics of daptomycin in critically ill patients with renal failure and undergoing CVVHD. Int J Clin Pharmacol Ther. 2011;49:656–65.

[31] Falcone M, Russo A, Venditti M, Novelli A, Pai MP. Considerations for higher doses of daptomycin in critically ill patients with methicillin-resistant *Staphylococcus aureus* bacteremia. Clin Infect Dis. 2013;57(11):1568-76.

Pisua aldagai moduan sartzeak ez zuen populazio-eredu farmakozinetikoa hobetu. Horren zergatietako bat ikerketa honetan parte hartutako kohortearen tamaina murritza litzake, lan honen muga nagusia izanik. Dena den, lortutako emaitzak beste azterlan batzuetan lortutako ondorioekin bat datoz; izan ere, ez zen loturarik ikusi pisua eta daptomizinaren CLaren zein Varen artean[22,31].

Analisi farmakozinetiko/farmakodinamikoa eta Monte Carlo simulazio integratua oso tresna baliagarriak izan daitezke antibiotikoen dosifikazio erregimenak optimizatzeko[32]. Ikerketa-lan honetan gauzatutako populazio-eredua eta analisi farmakozinetiko/farmakodinamikoa aintzat hartuta, daptomizinaren dosifikazio egokiena aukeratzeko bakterioen suszeptibilitatea ez ezik, profil farmakozinetikoa ere kontuan eduki beharko litzateke.

Ikerketa honetan burututako simulazioen arabera, gaur egun onarturiko dosiak (4 eta 6 mg/kg/24h, 70 kg-ko heldu batentzat 280 eta 420 mg/24h-ren baliokideak direnak) ez lirateke nahikoak izango 4 mg/L edo MIC altuagoak dituzten mikroorganismoek eragindako infekzioak tratatzeko. Aitzitik, MIC balio hau da, CLSI (Clinical and Laboratory Standards Institute)[33] eta EUCAST (European Committee on Antimicrobial Susceptibility Testing)[34] erakundeen arabera, enterokokoen suszeptibilitate mozte-puntu klinikoa daptomizinarentzat. Bestalde, 1 mg/L-tako MIC balioak dituzten bakterioei aurre egiteko (suszeptibilitate mozte-puntu klinikoa estreptokokoentzat eta estafilokokoentzat) daptomizinaren dosi estandarrak Clcr baxua duten pazienteentzat soilik eraginkorrak izango liratekela ondoriozta daiteke. Alegia, Clcr ≤ 30 mL/min denean eta EGOTak ezarriak ez daudenean. Emaitza horiek bat datoz aurretik

[32] Asín-Prieto E, Rodriguez-Gascón A, Isla A. Applications of the pharmacokinetic/pharmacodynamic (PK/PD) analysis of antimicrobial agents. J Infect Chemother. 2015;21(5):319-29.

[33] Clinical and Laboratory Standards Institute. Performance Standards for Antimicrobial Susceptibility Testing. 26th Edition. M100-S26. CLSI, Wayne, PA, USA, 2016.

[34] The European Committee on Antimicrobial Susceptibility Testing. Breakpoint tables for interpretation of MICs and zone diameters. Version 7.0, 2017. Eskuragarri: *http://www.eucast.org* [kontsulta: 2017ko abendua].

argitaratutako beste artikulu batzuekin, baimendutako daptomizina-dosiak gaixo kritikoak tratatzeko eskasak direla ondorioztatu baitute[22,25,35].

Ildo berdinean, 2011. urtean IDSAren (*Infectious Diseases Society of America*) jarraibideek MRSAk eragindako endokarditisetan edota bakteriemia kasuetan 8-10 mg/kg daptomizina erabiltzeko gomendatu zuten. Bestalde, bankomizinarekin porrot egindako tratamenduetan, edota bakteriemia iraunkorretan, 10 mg/kg administratzea aholkatzen zuten, bestelako antibiotikoekin konbinatuta[36]. Gauza bera ondorioztatu zuten ere García de la María et al.-ek untxietan egindako metizilinarekiko erresistentea den *Staphylococcus epidermidis*-ek eragindako endokarditis ereduan[37].

Entsegu honetan daptomizina tratamendu enpiriko moduan administratu zen oro har eta, paziente gehienetan, ez zen antibiotikoarekiko mikroorganismo sentikorrik topatu. Hortaz, 2013 eta 2015 urteetan zehar Arabako Unibertsitate Ospitaleko ZIUetan lortutako suszeptibilitateen informazioa erabili zen CFRen balioak kalkulatzeko (**5. taula**). Lortutako emaitzen arabera, daptomizina ez litzateke eraginkorra izango *E. faecium*-ek sortutako infekzioak tratatzeko. Beste mikroorganismoen kasuan, aldiz, tratamenduaren arrakasta probabilitate altuak lortzea pazientearen Clcr-ren eta EGOTak ezarriak izatearen menpe egongo da. Zentzu honetan, garrantzitsua da aintzat hartzea suszeptibilitate datu hauek denboran zehar alda daitezkela, baita lurralde, zonalde zein osasun zentroetan barrena ere[31].

Antibiotiko baten dosifikazio-erregimen optimoa ezartzean, efektua maximizatzeaz gain, toxikotasuna edota eragin desiragaitzak murriztea ere

---

[35] Senneville E, Caillon J, Calvet B, Jehl F. Towards a definition of daptomycin optimal dose: Lessons learned from experimental and clinical data. Int J Antimicrob Agents. 2016;47(1):12-9.

[36] Liu C, Bayer A, Cosgrove SE, Daum RS, Fridkin SK, Gorwitz RJ, et al. Clinical practice guidelines by the infectious diseases society of america for the treatment of methicillin-resistant *Staphylococcus aureus* infections in adults and children. Clin Infect Dis. 2011;52(3):e18-55.

[37] García-de-la-María C, Marco M, Armero Y, Soy D, Moreno A, Del Río A, et al. Daptomycin is effective for treatment of experimental endocarditis due to methicillin-resistant and glycopeptide-Intermediate *Staphylococcus epidermidis*. Antimicrob Agents Chemother 2010;54(7):2781-6.

ezinbestekoa da. Daptomizinaren kasuan, 24,3 mg/L-tik gorako $Cmin_{ss}$ balioak kreatinina-foskokinasa (CPK) maila areagotzearekin erlazionatu dira, antimikrobianoekin erlazionaturiko muskulu-toxikotasunaren aurrekaria izan daitekeena[20]. Hortaz, kontuan hartu behar da antibiotiko honen dosia handitzeak, efikazia areagotzeaz gain, toxikotasunarekin loturiko kontzentrazio-plasmatikoetara iristeko probabilitatea ere igo dezakeela. Dena den, dosia ez da segurtasuna arriskuan jartzen duen faktore bakarra; haatik, farmakoaren farmakozinetika baldintzatu dezaketen faktore desberdinak ere kontuan hartu behar dira. Adibide moduan, eta **6. taulan** ikus daitekeen bezala, $Cmin_{ss} \geq 24,3$ mg/L lortzeko probabilitate altuagoa dute 280 mg/24h jasotzen dituzten gaixoek euren Clcr 10 mL/min (%87) eta 30 mL/min (%38) denean, 130 mL/min-ko giltzurrun argitzapena izanda 840 mg/24h administratzen zaienean baino (%15). Emaitza horiek aintzat hartuta, simulazio berriak gauzatu ziren, daptomizina 48 orduro administratuta. Kasu horretan, EGOTik ez eta Clcr baxuak zituzten pazienteetan (≤ 30 mL/min) soilik lortu ziren PTA altuak (> %90) 1 mg/L-tako MIC balioentzat (ez dira datuak aurkeztu). Horrela, 560 mg/48h (10mL/min Clcr balioentzat) edo 840 mg/48h administratzean (30 mL/min Clcr baliontzat) 24,3 mg/L baino kontzentrazio minimo altuagoak lortzeko probabilitateak %65 eta %39 izan ziren, hurrenez hurren. Ehuneko horiek 280 edota 420 mg/24h-rekin lortutakoak baino baxuagoak izan arren, segurtasuna arriskuan jartzen jarraitzen zuten.

CPK balioa efektu muskulu-eskeletiko desiragaitzen markatzaile sentikorra izan arren, zenbait ikerketek zalantzan jarri dute daptomizinaren dosi altuak CPKren igoerarekin erlazionatuta egotea, ez baita desberdintasun esanguratsurik topatu dosi estandar eta altuagoen artean[35]. Bestalde, beste ikerketa batek 12 mg/kg daptomizina 14 egunetan zehar administratu ostean ondo toleratua zela ondorioztatu zuen; izan ere, ez zen ondorio kaltegarririk dokumentatu[4]. Nahiz eta lan honetan 3 pazientek 24,3 mg/L baino $Cmin_{ss}$ balio altuagoak izan, ez hauek, ezta beste 13 gaixoek ere, ez zuten CPK maila alturik izan (**1. taula**).

Ikerketa-lan honetan lortutako emaitzen arabera, eta kontuan izanda isolatutako bakterioen gehiengoaren MIC balioak ≥ 1 mg/L izan zirela, daptomizina-dosi estandarrak ez lirateke egokiak izango 60 mL/min edo altuagoak diren Clcr balioak dituzten pazienteak tratatzeko. Horrela, 60 eta 90 mL/min bitarteko Clcr balioak dituzten pazienteek 700 mg/24h beharko lukete. Giltzurrun argitzapen altuagoak dituzten pazienteei, aldiz, 840 mg/24h administratu beharko litzaieke. Nahiz eta Clcr ≤ 30 mL/min dituzten pazienteetan arrakasta probabilitate altuenak lortu, kontzentrazio toxikoak izateko aukerak ere nabariak dira subjektu horietan. Beraz, terapiaren onura-arrisku balantza aztertu beharko litzateke horrelakoetan. EGOTak ezarriak dituzten pazienteetan, gutxienez 560 mg/24h-ko dosia beharko litzateke. Dena den, CL_{EC}-k dosi bat edo beste erabiltzea baldintzatuko du, eta hori, aipatu bezala, Sc eta Q_{ef}-ren menpe egongo da.

Hala ere, bakterioen MIC balioa jakina denean edo ospitalearen edo lurraldearen suszeptibilitate-distribuzioa ezaguna bada, dosifikazio-erregimenen gomendioa informazio hori aintzat hartuta egin beharko da.

5. Ondorioak

Lan honetan daptomizinaren populazio-eredu farmakozinetiko bat eraiki da gaixo larrientzat. Datuak logaritmoetara transformatu ostean, eredu mono-konpartimentala izan zen ongien egokitu zena. Antibiotiko honen argitzapena kreatinina-argitzapenaren menpekoa izan zen eta, etengabeko giltzurrun-ordezkatze teknikak ezarriak zituzten pazienteen kasuan, gorputz-kanpoko argitzapenaren eragina gehitu zen ekuazioan. Gaixoen ezaugarriek profil farmakozinetikoan sortutako aldaketen ondorioz, arrakasta- eta toxikotasun-

probabilitate desberdinak lortu ziren. Beraz, gaixo kritikoetan daptomizinaren indibidualizazioa egitea gomendagarria litzake terapiaren arrakasta bermatzeko eta toxikotasuna ekiditeko. Toxikotzat hartzen den kontzentrazio minimoetara iristea dosiaren menpekoa izateaz gain, pazienteen argitzapenaren menpe ere dagoela ondorioztatu zen.

3. kapitulua

Linezoliden populazio-farmakozinetika gaixo larrietan

A. Soraluce[1], H. Barrasa[2], E. Asín-Prieto[1,3], JA. Sánchez-Izquierdo[4], A. Rodríguez-Oviedo[5], A. Rodríguez-Gascón[1], A. Isla[1].

Argitaratzeko prestatzen

[1]Farmakozinetika, Nanoteknologia eta Terapia Genikoa taldea. Farmazia Fakultatea, Lascaray-ikergunea, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU, Vitoria-Gasteiz; [2]Zainketa Intentsiboetako Unitatea. Arabako Unibertsitate Ospitalea, Vitoria-Gasteiz; [3]Pharmacometrics & Systems Pharmacology Research Unit, Department of Pharmacy and Pharmaceutical Technology, School of Pharmacy and Nutrition, University of Navarra, Iruña; [4]Doce de Octubre Unibertsitate Ospitalea, Madril; [5]Joan XXIII Unibertsitate Ospitalea, Tarragona.

LABURPENA: Linezolid espektro zabaleko aktibitatea dauka mikobakterio eta bakterio Gram-positiboen aurka, eta Zainketa Intentsiboetako Unitateetan oso erabilia da. Lan honen helburu nagusia gaixo larrientzat linezoliden populazio eredu farmakozinetiko bat garatzea eta PK/PD analisia burutzea izan zen, terapiaren egokitasuna aztertzeko asmoz. Guztira 41 gaixo larriren datuak erabili ziren populazio-eredu farmakozinetikoan, eta hauetatik 23k EGOTak egotziak zituzten. Behin linezoliden dosi estandarra administratu ostean (600 mg/12h), plasma eta efluente laginak aurretik zehaztutako denbora-tarteetan jaso ziren. NONMEM 7.3 programa erabiliz, populazio-eredu farmakozinetikoa garatu zen. Linezoliden plasma kontzentrazioak ongien deskribatu zituen eredua konpartimentu bikoa izan zen. Kreatinina argitzapenaren (Clcr) eragina farmakoaren eliminazioan identifikatu zen, eta, EGOTak ezarriak zituzten pazienteetan, baita gorputz-kanpoko argitzapena ere. Dosi estandarraren eta 600 mg/8h-ren egokitasuna zehazteko, Monte Carlo simulazioak egin ziren. Horrela, terapiaren arrakastarekin erlazionatutako balioak (AUC_{24h}/MIC > 80) eta toxikotasunarekin lotutako kontzentrazioak lortzeko probabilitateak ($Cmin_{ss}$ > 10 mg/L eta AUC_{24h} > 400 mg*h/L) kalkulatu ziren. Linezoliden dosi estandarra ez litzateke egokia izango 2 mg/L-tako MIC balioak, edo altuagoak, dituzten patogenoek eragindako infekzioak tratatzeko. Dosia 600 mg/8h-ra handitzean, ez lirateke arrakasta probabilitate altuagoak lortuko; ordea, toxikotzat hartzen diren kontzentrazioak izateko aukerak handituko lirateke. Gaixo larrietan etengabeko perfusioa erabiltzea aukera egokia izan daiteke, bereziki giltzurrun gutxiegitasuna pairatzen ez dutenetan (Clcr ≥ 60 mL/min).

1. Sarrera

Linezolid oxazolidinonen deribatua den antibiotikoa da. Espektro zabaleko aktibitatea dauka mikobakterio eta bakterio Gram-positiboen aurka; hala nola, estafilokokoak, estreptokokoak eta enterokokoak. Horrela, patogeno hauen aurka eraginkorra dela ikusi da: metizilinarekiko erresistentea den *Staphylococcus aureus* (*methicillin-resistant Staphylococcus aureus*, MRSA) eta bankomizinarekiko erresistenteak diren enterokokoak (*vancomycin-resistant enterococci*, VRE)[1,2]. Zainketa intentsiboetako unitateetan (ZIU) ematen diren infekzioen %50 inguru bakterio Gram-positiboek eragiten dituztenez, ospitale-erabilera duen antibiotiko hau sarritan erabiltzen da zerbitzu hauetan pneumonia, larruazal eta atal biguinen infekzioak edota bakteriemia tratatzeko. Gaitz hauek, askotan, bakterio multi-erresistenteek eragiten dituzte, MRSA edota VRE, esaterako[3,4].

Paziente kritikoen infekzioak tratatzean posologia optimoa aukeratzea erronka garrantzitsua izan ohi da. Alde batetik, gaixoek interbentzio mediko erasotzaileak jasaten dituztelako, bentilazio mekanikoa edota giltzurrun-ordezkatze teknikak, esaterako. Bestetik, sarritan gertatzen diren aldaketa fisiopatologikoek (adibidez, giltzurrun-gutxiegitasun akutuak edo hipoalbuminemiak) antibiotikoen banaketa-bolumena (V) edota argitzapena (CL) eraldatu dezaketelako. Gainera, paziente hauek aldakortasun farmakozinetiko (PK) handiagoa izaten dute normalean, eta, hortaz, dosifikazio egokiena hautatzea

[1] Ager S, Gould K. Clinical update on linezolid in the treatment of Gram-positive bacterial infections. Infect Drug Resist. 2012; 5:87-102.

[2] Ryvak MJ, Akins RL. Emergence of methicillin-resistant *Staphylococcus aureus* with intermediate glycopeptide resistance: clinical significance and treatment options. Drugs. 2001; 61:1-7.

[3] Savage RD, Fowler RA, Rishu AH, Bagshaw SM, Cook D, Dodek P, et al. Pathogens and antimicrobial susceptibility profiles in critically ill patients with bloodstream infections: a descriptive study. CMAJ Open. 2016;4(4):E569-E577.

[4] Bassetti M, Righi E, Carnelutti A. Bloodstream infections in the Intensive Care Unit. Virulence. 2016;7(3):267-79.

zailagoa suertatzen da. Honek guztiak, zenbait kasutan pazienteetan emaitza sub-optimoak lortzea dakar[5,6].

Giltzurrun-gutxiegitasun akutua (GGA) gaixo kritikoetan gehien ematen den patologia da, paziente ospitaleratuen %30-60 inguruk jasaten baitute. Gaitz hau tratatzeko etengabeko giltzurrun-ordezkatze teknikak (EGOT) erabiltzen dira maiz, eta estimatzen da ZIUetako pazienteen %5 inguruk ezarriak dituztela[7,8,9]. EGOTak konposatu endogenoen argitzapenean parte hartzeaz gain, pazienteei administraturiko farmakoen kanporatze prozesuan ere laguntzen dute. Era honetan, antibiotiko asko teknika hauen bidez eliminatzen dira nabarmenki. Hortaz, kontuan hartu beharko dira infra-dosifikazioa minimizatzeko, eta, horrela, porrot terapeutikoa eta erresistentzien agerpena ekiditeko.

Gorputz-kanpoko eliminazioa (*extracorporeal clearance*, CL_{EC}) baldintzatu dezaketen faktore ugari dago; hala nola, farmakoaren banaketa-bolumena edo proteinekiko lotura, mintzaren iragazkortasuna, efluentearen fluxua edo EGOT modalitatea bera, besteak beste[10]. Alderdi hauek guztiek, EGOTak ezarriak dituzten gaixo larrietan antzematen den aldakuntza nabarian eragina dute[11]. Nahiz eta giltzurrun bidez aldatu gabeko linezoliden %30 inguru soilik eliminatzen den,

[5] Varghese JM, Roberts JA, Lipman J. Pharmacokinetics and pharmacodynamics in critically ill patients. Curr Opin Anaesthesiol 2010; 23:472-8.

[6] Roberts JA, Joynt GM, Choi GY, Gomersall CD, Lipman J. How to optimise antimicrobial prescriptions in the Intensive Care Unit: principles of individualised dosing using pharmacokinetics and pharmacodynamics. Int J Antimicrob Agents. 2012; 39(3):187-92.

[7] Thongprayoon C, Cheungpasitporn W, Ahmed AH. Trends in the use of renal replacement therapy modality in intensive care unit: a 7 year study. Ren Fail. 2015;37(9):1444-7.

[8] Rahman TM, Treacher D. Management of acute renal failure on the intensive care unit. Clin Med. 2002; 2:108-13.

[9] Herrera-Gutiérrez ME, Seller-Pérez G, Maynar-Moliner J, Sánchez-Izquierdo-Riera JA; Grupo de trabajo "Estado actual del fracaso renal agudo y de las técnicas de reemplazo renal en UCI. Estudio FRAMI". Epidemiology of acute kidney failure in Spanish ICU. Multi center prospective study FRAMI. Med Intensiva 2006; 30:260-7.

[10] Meyer MM. Renal Replacement therapies. Crit Care Clin. 2000;16(1):29-58.

[11] Roberts DM, Roberts JA, Roberts MS, Liu X, Nair P, Cole L, et al. Variability of antibiotic concentrations in critically ill patients receiving continuous renal replacement therapy: a multicentre pharmacokinetic study. Crit Care Med. 2012; 40(5):1523-8.

antibiotikoak proteinekiko lotura txikia (≈ % 30 subjektu osasuntsuetan) eta pisu molekular baxua (337,45 g/mol) dauka. Ondorioz, teknika hauen bidez kanporatu daiteke, bereziki fluxu altuko mintzak erabiltzen direnean[12].

Antibiotikoen optimizaziorako analisi farmakozinetiko/farmakodinamikoa (PK/PD) erabiltzean sendatze klinikoa eta biziraupena hobetzen direla ikusi da[13,14]. Hori dela eta, ikerketa lan honen helburu nagusia gaixo kritikoentzat linezoliden populazio eredu farmakozinetiko bat garatzea izan zen; farmakozinetikan aldakortasuna eragiten duten zergatiak identifikatzeko eta kuanfikatzeko asmoz. Gainera, aldakortasun horretan EGOTek duten eragina ere aztertu zen. Bigarren helburua analisi farmakozinetiko/farmakodinamikoa burutzea izan zen; era honetan, Monte Carlo simulazioak erabiliz, ebaluatzeko zein zen bai linezoliden dosi estandarrarekin (600 mg/12 h) eraginkorrak kontsideratzen diren kontzentrazioak eskuratzeko probabilitatea, bai eta segurtasunarekin erlazionatutako balioak lortzeko probabilitatea. Modu honetan, eta behar izanez gero, dosifikazio erregimen berriak proposatu ahal izateko.

[12] Brier ME, Stalker DJ, Aronoff GR, Batts DH, Ryan KK, O'Grady M, et al. Pharmacokinetics of linezolid in subjects with renal dysfunction. Antimicrob Agents Chemother. 2003; 47(9):2775-80.

[13] Tsai D, Lipman J, Roberts JA. Pharmacokinetic/pharmacodynamic considerations for the optimization of antimicrobial delivery in the critically ill. Curr Opin Crit Care. 2015; 21(5):412-20.

[14] Tängdén T, Ramos Martín V, Felton TW, Nielsen EI, Marchand S, Brüggemann RJ, et al. The role of infection models and PK/PD modelling for optimising care of critically ill patients with severe infections. Intensive Care Med. 2017;43(7):1021-32

2. Pazienteak eta metodoak

2.1. Ikerketaren diseinua

Behaketa bidezko saiakuntza irekia, prospektiboa eta zentro-anitzekoa burutu zen hiru ospitale desberdinetako ZIUetan: Arabako Unibertsitate Ospitalea (Vitoria-Gasteiz), Doce de Octubre Unibertsitate Ospitalea (Madril) eta Joan XXIII Unibertsitate Ospitalea (Tarragona). Protokoloa Euskadiko Medikamentuen gaineko Ikerkuntza Batzorde Etikoak (EPA2014025) eta Medikamentuen eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziak (FJM-LIN-2012-01) onartu zuten. Bestalde, entsegu honetan parte hartu ahal izateko, paziente bakoitzaren, edota gertuko senideen, baimen informatua izatea premiazkoa zen. Parte hartzeko irizpideak honakoak ziren: i) ZIUko pazientea izatea; ii) bakterio Gram-positibo batek eragindako infekzioa pairatzeko susmoa izatea eta, ondorioz, linezolidekin tratatzea; iii) baimen informatua ematea; eta iv) plasma laginak eskuratzea posible izatea, baita efluente laginak ere, pazienteek EGOTak ezarriak izatean. Baztertze-irizpideak, aldiz, honako hauek izan ziren: adin txikikoa izatea (< 18 urte), haurdun egotea, linezolidekiko zein eszipienteekiko hipersentikortasuna azaltzea edota A edo B monoamino-oxidasak inhibitzen dituen medikamenturen bat hartzea.

1. taulan pazienteen datu demografikoak eta biokimikoak bildu dira, baita APACHE II puntuazioa ere (ingeleseko terminoa, *Acute Physiology and Chronic Health Evaluation II*). Paziente bakoitzaren kreatinina argitzapena (Clcr) honako ekuazioa erabiliz kalkulatu zen**:** Clcr (mL/min) = (Cr_u x V_u)/ (Cr_p x 600 min), non Cr_p plasmako kreatinina kontzentrazioa (mg/dL) den, Cr_u gernuko kreatinina kontzentrazioa (mg/dL) eta V_u 10 ordutan zehar bildutako gernu bolumena (mL).

Ordezkatze tekniken bidez eliminatutako farmako frakzioari sieving koefizientea (Sc) deritzo. Dosifikazio-tarte batean zehar lortutako efluentearen eta plasmaren kontzentrazio-denbora kurben azpian mugatutako azaleren arteko zatidura eginda kalkulatu zen (AUC_{ef}/ AUC_p). Linezoliden gorputz-kanpoko argitzapena (CL_{EC}), efluentearen fluxua (Q_{ef}) eta Sc biderkatuz lortu zen.

1. taula. 41 pazienteen datu demografikoak eta biokimikoak, APACHE II puntuazioa eta ingresatutako ospitalea. AUO: Arabako Unibertsitate Ospitalea; DOUO: Doce de Octubre Unibertsitate Ospitalea; JUO: Joan XXIII Unibertsitate Ospitalea; EGOT: etengabeko giltzurrun-ordezkatze teknikak; GMI: gorputz-masaren indizea; Clcr: kreatinina argitzapena; GOT: glutamato-oxalazetato transaminasa; GPT: glutamato-pirubato transaminasa; CL_{EC}: gorputz-kanpoko argitzapena; CVVHDF: etengabeko hemodiafiltrazio beno-benosoa; CVVHD: etengabeko hemodialisi beno-benosoa.

	EGOT gabe		EGOT	
Pazienteen ezaugarriak	**n**	**Mediana (Tartea)**	**n**	**Mediana (Tartea)**
Ospitalea				
AUO	18		9	
DOUO	0		13	
JUO	0		1	
Datu demografikoak				
Adina (urteak)		72 (22-85)		68 (37-79)
Sexua (gizonezko/emakumezko)	14/4		16/7	
Pisua (kg)		71 (60-95)		74 (55-110)
Altuera (m)		1,70 (1,60-1,85)		1,69 (1,53-1,85)
GMI (kg/m^2)		24,5 (20,8-31,3)		25,9 (21,2-33,1)
Datu biokimikoak				
Clcr (mL/min)		71,2 (11,0-179,5)		6,0 (0,0-45,6)
Kreatinina (mg/dL)		0,80 (0,40-2,10)		1,15 (0,56-2,60)
Glukosa (mg/dL)		144 (73-187)		140 (69-210)
Hemoglobina (g/dL)		9,85 (7,00-15,50)		8,50 (6,70-11,40)
Hematokritoa (%)		30,5 (20,0-46,0)		26,4 (18,7-34,7)
Albumina (g/dL)		2,8 (1,9-4,0)		2,2 (1,7-3,6)
Proteina totalak (g/dL)		5,8 (4,2-7,4)		5,2 (2,7-7,3)
Bilirrubina (mg/dL)		0,65 (0,20-1,30)		0,80 (0,12-2,60)
GPT (U/L)		25 (6-340)		50 (5-570)
GOT (U/L)		33 (16-330)		43 (8-675)
APACHE II		16 (11-36)		22 (16-34)
CL_{EC} (L/h)			23	2,51 (0,79-3,09)
CVVHDF			18	2,61 (0,79-3,09)
CVVHD			5	1,06 (1,00-2,73)

2.2. Farmakoaren administrazioa eta lagin bilketa

Paziente bakoitzari 600 mg linezolid (Zyvoxid®) administratu zitzaion, 12 orduro. Antibiotikoa 30 minutuko iraupena zuen zain-barneko infusio bidez eman zen kasu guztietan, batean izan ezik, 60 minuturako iraupena izan zuena. Lagin bilketarekin hasi baino lehen, paziente bakoitzari bataz beste 8 linezolid dosi eman zitzaizkion, oreka egonkorra bermatuz. Odol-laginak dosia eman baino lehen eta infusio amaieran (0,5 h) jaso ziren. Bestalde, lagin bana hartu zen 1, 2, 3, 6, 8tik 10ra eta 12 ordu pasa ostean. Laginak heparina sodikoa zuten Vacutainer™ saiodietan bildu eta berehala zentrifugatu ziren, 10 minututan zehar 3.000 rpm-tan. Lortutako plasma laginak -80º C-tan izoztu ziren analizatu arte. EGOTak ezarriak zituzten pazienteetan, odola ez ezik, efluente laginak ere hartu ziren denbora-tarte berdinetan, eta zuzenean -80º C-tan gorde.

2.3. Metodo analitikoa

Plasma-laginetan zegoen antibiotiko-kontzentrazioa kuantifikatzeko, aldez aurretik balioztatutako detekzio ultramoredun bereizmen handiko kromatografia likidoa (*high performance liquid chromatography,* HPLC) erabili zen (**1. eranskina**). Lehenik eta behin, proteinak azetonitriloarekin prezipitatu ziren, eta horrek kuantifikaziorako erabiliko zen barne estandarra (propil-4-hidroxibenzoato) disolbatua zuen. Ostean, laginak 10 minutuz zentrifugatu ziren, 15.000 rpm-ko baldintzapean. Bertatik lortutako gainjalkinak, baita efluente-laginak ere, HPLC sisteman injektatu ziren. Banaketa Simmetry® C8 zutabe batekin burutu zen (4,6 mm x 150 mm x 5 μm). Linealtasuna espero ziren plasma eta efluente kontzentrazio tartean frogatu zen, 0,5-50 μg/mL eta 0,2-30 μg/mL, hurrenez hurren. Linezoliden estandarra Pfizer Pharmaceuticals enpresari esker lortu zen.

Intra eta inter-egun zehaztasuna eta doitasuna kuantifikazio limiteekin eta linealtasun tarteko beste hiru kontzentraziorekin demostratu ziren. Alegia, plasma

laginen kasuan 0,5, 1,5, 10 eta 40 μg/mL-tako kontzentrazioekin eta efluente laginen kasuan 0,2, 0,6, 5 and 24 μg/mL-rekin. Kalkulatutako kontzentrazioen desbiderapenak inoiz ez zuen balio teorikoaren %15 gainditu. Bestalde, intra- eta inter-saiakuntza doitasuna, aldakuntza-koefiziente moduan adierazia (*coefficient of variation*, CV), %15 azpitik mantendu zen beti.

2.4. Populazio eredu farmakozinetikoa

2.4.1. Oinarrizko eredua

Populazio eredua sortzeko baldintzazko lehen mailako estimazio metodoa interakzioarekin (FOCE-I) erabili zen NONMEM 7.3 programa baliatuz[15]. Farmako totalaren kontzentrazioen disposizioa eredu konpartimentalak erabiliz aztertu zen, eta datuak logaritmoetara transformatzeko aukera aintzat hartu zen. Ereduen ebaluaziorako funtzio-objektiboaren balioaren (OFV) beherakada, parametroen kalkuluan emandako errore erlatibo estandarrak (RSE) eta doikuntza-egokitasuna ebaluatzeko (*goodness-of-fit*, GOF) grafikoak kontuan hartu ziren. Hondar-errorea ebaluatu zen eta aldakortasun-interindibidualak (IIV) zein kobariantza posible bat ikertu ziren.

2.4.2. Aldagaien aukeraketa

Behin oinarrizko eredua aukeratu ostean, eta IIV azaltzeko asmoz, **1. taulan** bildu diren faktore guztiak aztertu ziren aldagai potentzial moduan. Bost pazientek edo gutxiagok aldagai baten informazioa faltan zutenean, beste pazienteen mediana esleitu zitzaien. Clcr aldagai jarraitu bezala aztertu zen.

[15] Beal S, Sheiner, LB, Boeckmann, A, Bauer R.J. NONMEM User's Guides. (1989-2009), Icon Development Solutions, Ellicott City, MD, USA, 2009.

Gainera, pazienteak bost talde desberdinetan kategorizatu ziren, beraien Clcr aintzat hartuta: < 10 mL/min, ≥ 10 baina < 30 mL/min, ≥ 30 baina < 60 mL/min, ≥ 60 baina < 130 mL/min eta Clcr ≥ 130 mL/min. Bestalde, hiru aldagai dikotomiko sortu ziren, pazienteek ondorengo hiru parametro biokimiko desberdinetatik bat, bi edo hiru normaltasunetik at zituzten edo ez kontuan hartuta: bilirrubina (tarte normala: 0,3-0,9 mg/dL), GOT (tarte normala: 8-30 UI/L gizonezkoentzat eta 6-25 UI/L emakumezkoentzat) eta GPT (tarte normala: 8-35 UI/L gizonezkoen kasuan eta 6-25 UI/L emakumezkoentzat).

Aldagaiak aukeratzeko mailakatutako prozesua burutu zen (PsN 4.7.0-ren SCM tresna). Prozesu hau aurrerako barne-hartze prozesuan eta atzerako ezabatzean oinarritua dago. Horrela, ereduan gehitu eta bertan mantentzeko esangura-mailak 0,05 eta 0,01-n finkatu ziren, hurrenez hurren. GOF grafikoak ere erabili ziren eredu desberdinen egokitasuna aztertzeko.

2.4.3. Ereduaren ebaluazioa

Hautatutako ereduaren egokitasuna aztertzeko GOF grafikak analizatu ziren. Erabilitako GOF grafikak honakoak izan ziren: populazio- eta norbanakoen-aurreikusiak (PRED eta IPRED) vs. neurtutako kontzentrazioak (DV, μg/mL-tan), haztatutako baldintzapeko hondar-balioak (*conditional weighted residuals*, CWRES) vs. dosi osteko denbora (*time after dose*, TAD) eta norbanako bakoitzaren haztatutako hondar-balioak (*individual weighted residuals*, IWRES) vs. IPRED.

Bestalde, VPC bat irudikatu zen ereduaren zuzentasuna determinatzeko (PsN 4.7.0-ren VPC tresna). Horrela, neurtutako kontzentrazioen 2,5., 50. eta 97,5. pertzentilak irudikatu ziren. Ostean, mila paziente birtual simulatu ziren populazio eredu finalean lortutako parametroen balioak erabiliz, eta baldintza berdinen mendean. Simulatutako 2,5., 50. eta 97,5. pertzentilen %95eko konfiantza-

tarteak ere grafikan gehitu ziren, R 3.4.0 programaren xpose4 paketea erabiliz[16]. Azkenik, parametroen zehaztasuna ebaluatzeko 2.000 datu-multzoko bootstrap bat exekutatu zen (Bootstrap tresna, PsN 4.7.0). Eredua sortzeko eta ebaluazio prozesuan lortutako datuak eta emaitzak antolatzeko Pirana v.2.9.5 softwarea erabili zen[17].

2.4.4. Kanpo-balidazioa

Guztira 44 plasma lagin erabili ziren kanpo-balidazioa egiteko, 11 gaixo larri desberdinetatik lortu zirenak. Laginak Arabako Unibertsitate Ospitalean egindako ikerketa prospektibo batetik lortu ziren. **2. taulan** pazienteen datu demografikoak eta biokimikoak bildu dira, baita APACHE II puntuazioa ere. Faktore hauek populazio-eredu farmakozinetikoa garatzeko parte hartu zuten 41 pazienteen datuekin konparatu ziren eta bi taldeen artean estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak zeuden ala ez aztertu zen. Horretarako IBM SPSS statistic® programa (21. bertsioa)[18] erabili zen. Aldagai jarraien azterketarako t-testa edo Mann–Whitney-ren U testa aplikatu ziren, distribuzio normala zuten ala ez aintzat hartuta, hurrenez hurren. Aldagai kategorikoei dagokionez, Pearson-en khi-karratuaren testa (χ^2) erabili zen.

Kanpo-balidazioko pazienteei etengabeko zain-barneko perfusioaren bidez 1.200 mg administratu zitzaien 24 orduro, 30 minututan zehar 600 mg-tako karga-dosi bat eman ostean. Aurretik aipatutako irizpideez gain, soilik EGOTak ezarriak ez zituzten eta Clcr > 40 mL/min zuten pazienteak onartu ziren. Lau egun jarraietan zehar plasma lagin bana hartu zitzaien gaixoei. Linezoliden

[16] Jonsson EN, Karlsson MO. Xpose--an S-PLUS based population pharmacokinetic/ pharmacodynamic model building aid for NONMEM. Comput Methods Programs Biomed. 1999;58(1):51-64.

[17] Keizer RJ, van Benten M, Beijnen JH, Schellens JH, Huitema AD. Piraña and PCluster: a modeling environment and cluster infrastructure for NONMEM. Comput Methods Programs Biomed. 2011;101(1):72-9.

[18] IBM Corp. Released 2012. IBM SPSS Statistics for Windows, Version 21.0. Armonk, NY: IBM Corp.

kontzentrazioak aurretik deskribatu den HPLC teknika berdina erabiliz kuantifikatu ziren (**1. eranskina**).

2. taula. Etengabeko perfusioan parte hartu zuten pazienteen datu demografikoak eta biokimikoak, eta APACHE II. GMI: gorputz-masaren indizea; Clcr: kreatinina argitzapena; GOT: glutamato-oxalazetato transaminasa; GPT: glutamato-pirubato transaminasa.

	Etengabeko perfusioa	
Pazienteen ezaugarriak	**n**	**Mediana (Tartea)**
Datu demografikoak		
Adina (urteak)		60 (24-84)
Sexua (gizonezko/emakumezko)	4/7*	
Pisua (kg)		80 (70-115)
Altuera (m)		1,67 (1,65-1,80)
GMI (kg/m^2)		28,5 (24,2-35,5)
Datu biokimikoak		
Clcr (mL/min)		111 (45-240)*
Kreatinina (mg/dL)		0,70 (0,50-1,10)*
Glukosa (mg/dL)		136 (114-217)
Hemoglobina (g/dL)		10,3 (8,2-11,7)
Albumina (g/dL)		3,0 (2,5-3,6)*
Proteina totalak (g/dL)		5,4 (5,3-7,4)*
Bilirrubina (mg/dL)		0,70 (0,50-2,10)
GPT (U/L)		37 (18-220)
GOT (U/L)		25 (16-74)
APACHE II		16 (6-25)*

*Estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak ($p < 0,05$) etengabeko perfusioa (n=11) eta perfusio-motza (n=41) (**1.taula**) administratutako pazienteen artean.

Garatutako eredu farmakozinetikoa erabiliz, paziente hauetan linezoliden kontzentrazioak aurreikusi ziren. Horretarako, 5.000 subjektu simulatu ziren honako Clcr balioentzat: 40, 80, 120, 160, 200 eta 240 mL/min; izan ere, balio hauen artean zeuden aztertutako pazienteen Clcr-ak. Simulatutako datuen 2,5., 50. eta 97,5. pertzentilak kalkulatu ziren, eta neurtutako balioekin konparatu.

2.5. Monte Carlo simulazioa

2.5.1. Analisi farmakozinetiko/farmakodinamikoa

Helburua lortzeko probabilitatearen (PTA) estimazioa

PTA (*probability of target attainment*) MIC zehatz batentzat gutxienez helburu farmakozinetiko/farmakodinamikoaren balioa (adibidez, AUC/MIC = 80) lortzeko probabilitateari deritzo[19].

Linezolidek kontzentrazio-independentea den aktibitate patroia dauka. Bere efikaziarekin ongien erlazionatutako indizeak bi dira. Lehenengoa, oreka egonkorrean linezolid totalaren kontzentrazio-denbora kurbaren azpian mugatutako azalera (24 ordu) eta MICaren arteko ratioa (AUC_{24h}/MIC) da. Bigarrena, plasma kontzentrazioak MICaren gainetik dauden denboraren ehunekoa ($T_{>MIC}$) da. Era honetan, tratamenduaren arrakasta altuak ikusi dira AUC_{24h}/MIC > 80 tik 120ra denean edota $T_{>MIC}$ > % 85 lortzean[20].

Linezoliden dosi estandarra aintzat hartuta, alegia, 600 mg 12 orduro perfusio motz baten bidez, 5.000 subjektuko simulazioak egin ziren, EGOTak ere kontuan hartuta. Horrela, egoera desberdinak simulatu ziren, Clcr balio desberdinentzat: 0, 10 eta 30 mL/min EGOTak zituzten pazienteetan eta 10, 30, 60, 90 eta 130 mL/min gainerakoetan. Efluente fluxuak CL_{EC}-n eragin nabarmena duenez ($CL_{EC} = Q_{ef} \times Sc$), Q_{ef} desberdinak kontsideratu ziren, PTAn zuten influentzia aztertzeko. Bestalde, gorputz-kanpoko argitzapena kalkulatzeko erabilitako Sc balioa, ikertutako pazienteen batez bestekoa izan zen (0,8). Amaitzeko, aipatu berri diren paziente talde guztientzat, 600 mg/8h-tako linezolid perfusio motzak (30 min) simulatu ziren ere. Helburua lortzeko probabilitateak

[19] Mouton JW, Dudley MN, Cars O, Derendorf H, Drusano GL. Standardization of pharmacokinetic/ pharmacodynamic (PK/PD) terminology for anti-infective drugs: an update. J Antimicrob Chemother. 2005;55(5):601-7.

[20] Rayner CR, Forrest A, Meagher AK, Birmingham MC, Schentag JJ. Clinical pharmacodynamics of linezolid in seriously ill patients treated in a compassionate use programme. Clin Pharmacokinet. 2003, 42:1411-23.

MIC desberdinentzat kalkulatu ziren, 0,25-tik 4 mg/L-rako tartean. Simulazioak NONMEM 7.3 programa erabiliz gauzatu ziren.

Erantzunaren metatze-frakzioaren (CFR) kalkulua

CFRak (*cumulative fraction of response*) antibiotiko baten dosifikazio-erregimen zehatz batentzat eta bakterio populazio jakin batentzat, populazioaren PTA kalkulatzen du. Hau da, MICen distribuzioa ezagututa, populazio batean zein proportziok PK/PD balio jakin bat lortuko duen kalkulatzen du, Monte Carlo simulazioen bidez. Hurrengo formula erabiliz kalkulatzen da:

$$CFR = \sum_{i=1}^{n} PTA_i \times F_i \qquad \textbf{(Eq. 1)}$$

Non *i* azpiindizeak mikroorganismo populazio batean dagoen MIC balio txikienetik handienerako balioak hartzen dituen; PTA_i MIC balio bakoitzarentzat lortutako PTA den eta F_i mikroorganismo populazioan MIC balio bakoitzak suposatzen duen frakzioa den. CFR balioak dosi estandarrentzat (600 mg/12h) eta 600 mg/8h-ko dosi altuagoarentzat kalkulatu ziren.

CFRn balioak estimatzeko, 2013. eta 2015. urte artean Arabako Unibertsitate Ospitaleko ZIUetan lortutako suszeptibilitateen informazioa erabili zen. Era horretan, tratamenduaren arrakasta lortzeko probabilitateak kalkulatu ziren honako bakterio hauentzat: *Enterococcus faecalis*, *Enterococcus faecium*, *Staphylococcus epidermidis*, *Staphylococcus aureus* eta koagulasa negatiboko estafilokokoak (**3. taula**). Mikrobiologiako departamentutik lortutako datuak Whonet programarekin kudeatu ziren[21].

[21] WHONET 5.6. Eskuragarri: *http://www.who.int/medicines/areas/rational_use/AMR_WHONET_SOFTWARE/en/* [kontsulta: 2018ko maiatza].

3. taula. 2013. eta 2015. urte bitartean Arabako Unibertsitate Ospitaleko ZIUetan lortutako MICen distribuzioa *E. faecium, E. faecalis, S. epidermidis, S. aureus* eta koagulasa negatiboko estafilokokoentzat (CoNS).

Mikroorganismoa	Suszeptibilitate mozte-puntu klinikoa MIC (mg/L)[a]	Isolatutako andui kopurua	MIC (mg/L) balio bakoitzarekin inhibitzen den anduien ehunekoa			
			1	2	4	8
E. faecium	2/4	18	22	78		
E. faecalis	2/4	53	26	72		2
S. epidermidis	4	34		82	3	15
S. aureus	4	60		92	8	
CoNS	4	70		88	3	9

[a] Clinical and Laboratory Standard Institute (CLSI) eta the European Committee on Antimicrobial Susceptibility Testing (EUCAST) erakundeen arabera.

Bai PTA bai CFR balioentzat %90tik gorako emaitzak optimotzat hartu ziren. Arrakasta moderatuarekin, aldiz, %90 eta %80 arteko datuak erlazionatu ziren[22,23].

2.5.2. Segurtasunaren ebaluazioa

Linezoliden segurtasun profila ebaluatzeko, simulatutako subjektuetatik toxikotzat hartzen diren antibiotiko-kontzentrazio plasmatikoak (AUC_{24h} > 400

[22] Bradley JS, Dudley MN, Drusano GL. Predicting efficacy of antiinfectives with pharmacodynamics and Monte Carlo simulation. Pediatr Infect Dis J. 2003;22(11):982-92.

[23] Drusano GL, Preston SL, Hardalo C, Hare R, Banfield C, Andes D, et al. Use of preclinical data for selection of a phase II/III dose for evernimicin and identification of a preclinical MIC breakpoint. Antimicrob Agents Chemother. 2001;45(1):13-22.

mg*h/L eta $Cmin_{ss}$ > 10 mg/L)[24,25] zein ehunekok lortzen zituzten behatu zen. Simulazio hauek ere NONMEM 7.3 programarekin egin ziren.

3. Emaitzak

Populazio-eredu farmakozinetikoa eraikitzeko 41 gaixo larriren datuak aintzat hartu ziren. Paziente bakoitzeko 8 plasma lagin bildu ziren, eta guztira 331 kontzentrazioren datuak gehitu ziren eredua eraikitzeko base-datuan. Pazienteei diagnostikatutako gaitzen artean biriketako infekzioak (n = 15), infekzio abdominalak (n = 10), neurologikoak (n = 9), behazun-xixkukoak (n = 2) eta bestelako infekzioak (n = 5) zeuden.

Gainera, EGOTak zituzten 23 pazienteetan beste zortzi efluente lagin bildu ziren denbora berdinetan. Hemezortzi pazientek etengabeko hemodiafiltrazio beno-benosoa (c*ontinuous venovenous hemodiafiltration*, CVVHDF) ezarria zuten eta beste bostek etengabeko hemodialisi beno-benosoa (c*ontinuous venovenous haemodialysis*, CVVHD). Efluentearen fluxua 1,1 eta 3,3 L/h artean mantendu zen. Fluidoen balantzea egoera klinikoaren arabera ezarri zen. Behar izanez gero pazienteak antikoagulatu ziren, 0,1 eta 5 UI/kg/h bitarteko zatikatu gabeko heparina dosiekin. Iragazkien mintzak polisulfonakoak (Aquamax HF 12;

[24] Pea F, Viale P, Cojutti P, Del Pin B, Zamparini E, Furlanut M. Therapeutic drug monitoring may improve safety outcomes of long-term treatment with linezolid in adult patients. J Antimicrob Chemother. 2012; 67:2034-42.

[25] Cattaneo D, Orlando G, Cozzi V, Cordier L, Baldelli S, Merli S, et al. Linezolid plasma concentrations and occurrence of drug-related haematological toxicity in patients with Gram-positive infections. Int J Antimicrob Agents. 2013; 41:586-89.

Fresenius, Alemania) edo AN69 mintzak (Nephral ST400, Hospal, Bolonia, Italia) izan ziren eta beraien azalerak 1,80 eta 1,65 m^2-takoak ziren, hurrenez hurren.

3.1. Populazio-eredu farmakozinetikoa

3.1.1. Oinarrizko eredua

Linezoliden plasma kontzentrazioak ongien deskribatu zituen eredua bi konpartimentukoa izan zen. Aldakortasun-interindibiduala (IIV) gehitu zitzaion argitzapenari (CL) eta konpartimentu zentraleko banaketa-bolumenari (V_1). Ez zen korrelaziorik aurkitu bi parametro horien artean. IIV-a esponentzialki modelizatu zen eta hondar-errore konbinatua erabili zen.

3.1.2. Aldagaien aukeraketa

Linezoliden argitzapena, giltzurrun-kanpoko argitzapenaren (CL_{NR}) eta giltzurrun-menpeko argitzapenaren (CL_R) arteko batura moduan kalkulatu zen; eta azken hori Clcr-aren eraginpean zegoen. Clcr ereduan gehitzean, argitzapenaren IIVa %98,7tik %61,5ra murriztu zen. EGOTak egotziak zituzten pazienteen kasuan, gorputz-kanpoko argitzapenak ere bere ekarpena izan zuen argitzapenean. Esplorazio-analisian pisua eta adina V_1-arekin erlazionatuta zeudela susmatu arren, aldagaien aukeraketa prozesuan ez zuten esangura estatistikorik lortu ($p > 0,05$). Bilirrubina, GOT eta GPT taldekatu eta aldagai potentzial moduan aztertu ziren, baina ez zuten ereduaren hobekuntzarik eragin. Nahiz eta SCMan 130 mL/min baino Clcr altuagoak zituzten pazienteek konpartimentu periferikoko banaketa-bolumen (V_2) handiagoak izan, Clcr kategorikoa ez zen gehitu aldagai moduan eredu farmakozinetikoan. Izan ere, ez zen hobekuntza nabarmenik antzeman aurreikusitako kontzentrazioetan, eta

estimatutako hondar-erroreak gora egiten zuen. Bestelako aldagaiek ez zuen OFVaren jaitsiera esanguratsurik lortu.

3.1.3. Ereduaren ebaluazioa

4. taulan populazio-eredu farmakozinetikoan linezolidentzat estimatutako parametroen balioak azaltzen dira, baita RSEak (%) ere. Gainera, bootstrap-aren emaitzak bildu dira eta parametroen estimazioa zehaztasunarekin burutu zela erakusten dute. GOF grafikoetan (**1. irudia**) ez zen joera adierazgarririk sumatu, ez CWRES versus dosi osteko denboran ezta IWRES versus iragarritako balio indibidualetan ere. Bestalde, neurtutako eta aurreikusitako populazio zein norbanakoen balioek korrelazio egokia erakutsi zuten. VPCak (**2. irudia**) datu gordinen eta populazio-eredutik lortutako simulazioen pertzentilen arteko korrelazio ona irudikatu zuen.

4. taula. Oinarrizko eredua eta hautatutako populazio-eredu farmakozinetikoa linezoliden zain-barneko infusio motzerako. Estimatutako parametroak, shrinkage[a] balioak eta bootstrap-aren emaitzak.

Parametroa	Oinarrizko eredua Estimatutako balioa, RSE (%)	Hautatutako eredua Estimatutako balioa, RSE (%)	Bootstrap, mediana (5^{th}-95^{th} pertzentilak)
CL (L/h) = CL_{NR} + CL_R+ CL_{EC}[b]	5,59 (13) + CL_{EC}		
CL_{NR}		2,62 (18)	2,65 (2,02 – 3,65)
CL_R = θ x (Clcr/44)		4,35 (19)	4,33 (2,99 – 5,84)
V_1 (L)	16,1 (20)	16,2 (14)	16,6 (11,7 – 24,4)
Q (L/h)	72,3 (18)	71,7 (14)	69,5 (40,4 – 92,0)
V_2 (L)	29,1 (8)	29,0 (7)	28,6 (23,0 – 32,6)
IIV_{CL} (%)	98,7 (10)	61,5 (9)	59,3 (48,9 – 69,4)
IIV_{V1} (%)	66,6 (20)	65,9 (17)	62,4 (37,7 – 91,6)
Residual error_additive (mg/L)	0,260 (24)	0,266 (24)	0,267 (0,156 – 0,464)
Residual error_propor.(%)	0,160 (9)	0,159 (19)	0,157 (0,122– 0,183)

[a] CLηsh = %1; V_1ηsh = %18; εsh = %11

[b] Soilik EGOTak ezarriak zituzten pazienteetan. Norbanakoen CL_{EC} balio aintzat hartu zen.

CL: argitzapena; CL_{NR}: giltzurrun-kanpoko argitzapena; CL_R: giltzurrun-menpeko argitzapena; CL_{EC}: gorputz-kanpoko argitzapena; Clcr: kreatinina-argitzapena; V_1: konpartimentu zentraleko banaketa-bolumena; V_2: Konpartimentu periferikoko banaketa-bolumena; IIV: aldakortasun-interindibiduala; RSE: errore erlatibo estandarra; ηsh: shrinkage balioa parametro batentzat; εsh: shrinkage balioa hondar-errorearentzat.



1. Irudia. Hautatutako ereduarekin lortutako GOF grafikoak: Populazioaren (PRED)[a] eta norbanakoen (IPRED)[b] aurreikusiak versus kuantifikatutako linezolid plasma-kontzentrazioak, (µg/mL), haztatutako baldintzapeko hondar-balioak (CWRES) versus dosi osteko denbora (h)[c], eta norbanako bakoitzaren haztatutako hondar-balioak (IWRES) versus norbanakoen aurreikusiak[d].



2. irudia. Dosi osteko denboran (0-tik 12 h-ra) lortutako VPCren emaitzak. Puntuak kuantifikatutako kontzentrazioak dira (µg/mL). Etengabeko marrak kuantifikaturiko datuen batezbesteko balioa irudikatzen du eta bestelako marrek, 2,5. eta 97,5. pertzentilak. Itzal ilun eta argiek simulazioan lortutako %95eko konfiantza-tarteak erakusten dute, medianarentzat eta 2,5. eta 97,5. pertzentilentzat, hurrenez hurren.

3.1.4. Kanpo-balidazioa

3. irudian linezolid etengabeko perfusio bidez administratu zitzaien 11 pazienteetan neurtutako kontzentrazioak eta simulazio bidez iragarritako mediana eta %2,5 eta %97,5 pertzentilak konparatu dira. Ikus daitekeen moduan, hautatuko eredua gai izan zen modu egokian pazienteen kontzentrazioak aurreikusteko.



3. irudia. Etengabeko perfusioan neurtutako kontzentrazioak eta populazio-eredua erabilita simulazio bidez lortutako mediana eta %2,5 eta %97,5 pertzentilak.

3.2. Monte Carlo simulazioa

3.2.1. Analisi farmakozinetiko/farmakodinamikoa

Helburua lortzeko probabilitatea (PTA)

5. taulak zenbait egoera desberdinetan AUC_{24h}/MIC > 80 lortzeko probabilitateak biltzen ditu. Orokorrean, zenbat eta dosi altuagoa eta Clcr baxuagoa, orduan eta PTA altuagoak lortuko dira. EGOTak ezarriak ez dituzten pazienteetan, eta Clcr ≤ 60 mL/min baldintzapean, 600 mg/12h-ko dosia nahikoa izango litzake 1 mg/L edo baxuagoak diren MIC balioak dituzten bakterioek

eragindako infekzioak tratatzeko. Haatik, 2 mg/L-ko MIC balioentzat dosi hau ez litzateke nahikoa izango orokorrean, soilik eraginkortasun probabilitate altuak lortuz 10 mL/min edo gutxiagoko kreatinina argitzapena izatean. Dosia handitzean, 600 mg/8h-ra, 30 mL/min-ko Clcr balioak dituzten subjektuentzat PTA %68tik %88ra igo zen 2 mg/L-ko MICentzat. Dena den, beste kasu guztietan ez zen arrakasta lortzeko probabilitatea modu nabarmenean handitu.

EGOTak ezarriak dituzten pazienteetan, 1 mg/L edo baxuagoak diren MICentzat arrakasta izateko probabilitate altuak lortuko lirateke. Dena den, 2 mg/L-ko MIC balioa duten bakterioei aurre egiteko, 600 mg/8h-ko dosia beharko litzateke Q_{ef} altua edota 30 mL/min balioak dituzten pazienteetan.

Erantzunaren metatze-frakzioa (CFR)

6. taulan ikerketa-lan honetan lortutako CFR balioak bildu dira. Simulatutako dosifikazio erregimenek ez dute arrakasta probabilitate altuak lortzen (≥ %90) *S. epidermidis*-ek eragindako infekzioak tratatzeko. Dosi estandarrarekin, eta EGOTik gabeko pazienteetan, beste mikroorganismoek eragindako infekzioak tratatzeko arrakasta probabilitate altuak lortuko lirateke soilik giltzurrun gutxiegitasun larria (Clcr ≤ 10 mL/min) duten pazienteetan. Orokorrean, 600 mg/8h-ko dosia onuragarria izango litzateke 10 eta 30 mL/min bitarteko Clcr balioak dituzten pazienteentzat. Izan ere, kasu hauetan arrakasta lortzeko probabilitateek gora egiten dute.

EGOTak ezarriak dituzten pazienteei dagokionez, infekzioa eragiten duen mikroorganismoa *E. faecium, E. faecalis, S. aureus* edo CoNS denean, arrakasta lortzeko probabilitateak desberdinak izango dira Clcr-aren eta CL_{EC}-aren arabera. Hala ere, ikus daiteke 30 mL/min edo handiagoa den kreatinina argitzapena duten pazienteetan 600 mg/8h-ko dosia ere ez litzatekela orokorrean nahikoa izango mikroorganismo hauek eragindako infekzioak tratatzeko.

5. taula. Linezoliden PTA balioak (%) AUC_{24h}/MIC > 80 helburu farmakodinamikoa aintzat hartuta. Letra lodiz PTA ≥ %90 balioak eta letra etzanez PTA ≥ %80 balioak irudikatu dira.

Dosia	**Clcr** (mL/min)	**EGOT gabe**					**EGOT**														
							Q_{ef} 1,5 L/h					**Q_{ef} 2,5** L/h					**Q_{ef} 3** L/h				
600 mg/12h	0						**100**	**100**	**100**	**93**	48	**100**	**100**	**100**	**90**	23	**100**	**100**	**100**	*87*	12
	10	**100**	**100**	**99**	**90**	54	**100**	**100**	**99**	*85*	27	**100**	**100**	**99**	78	11	**100**	**100**	**98**	74	4
	30	**100**	**100**	**96**	68	24	**100**	**100**	**95**	58	9	**100**	**100**	**93**	49	2	**100**	**98**	**92**	43	1
	60	**100**	**99**	*85*	40	7															
	90	**100**	**95**	*67*	23	2															
	130	**100**	*88*	47	10	1															
600 mg/8h	0						**100**	**100**	**100**	**99**	*81*	**100**	**100**	**100**	**99**	70	**100**	**100**	**100**	**98**	63
	10	**100**	**100**	**100**	**98**	79	**100**	**100**	**100**	**97**	65	**100**	**100**	**100**	**96**	50	**100**	**100**	**100**	**95**	42
	30	**100**	**100**	**99**	*88*	50	**100**	**100**	**99**	*85*	34	**100**	**100**	**99**	*81*	23	**100**	**100**	**99**	79	16
	60	**100**	**100**	**96**	70	23															
	90	**100**	**99**	*88*	47	11															
	130	**100**	**97**	75	29	4															
MIC (mg/L)		**0,25**	**0,5**	**1**	**2**	**4**	**0,25**	**0,5**	**1**	**2**	**4**	**0,25**	**0,5**	**1**	**2**	**4**	**0,25**	**0,5**	**1**	**2**	**4**

6. taula. Linezoliden CFR balioak bakterio desberdinentzat, kontuan hartuta 2013. eta 2015. urte bitartean Arabako Unibertsitate Ospitalean lortutako MICen distribuzioen frekuentzia. Letra lodiz CFR ≥ %90 balioak eta letra etzanez CFR ≥ %80 balioak irudikatu dira.

		Dosia EGOT gabe		**Dosia EGOT**					
				Q_{ef} 1.5 L/h		**Q_{ef} 2.5** L/h		**Q_{ef} 3** L/h	
Bakter.	**Clcr** (mL/min)	**600 mg/ 12 h**	**600 mg/ 8 h**	**600 mg/ 12 h**	**600 mg/ 8 h**	**600 mg/ 12 h**	**600 mg/ 8 h**	**600 mg/ 12 h**	**600 mg/ 8 h**
Enterococcus faecium	0			**95**	**99**	**92**	**99**	**90**	**99**
	10	**92**	**98**	*88*	**97**	*82*	**96**	*80*	**96**
	30	74	**91**	66	*88*	59	*85*	54	*83*
	60	50	75						
	90	33	56						
	130	18	39						
Enterococcus faecalis	0			**93**	**98**	**91**	**97**	89	**97**
	10	**91**	**97**	*87*	**96**	*82*	**95**	79	**94**
	30	74	*89*	*67*	*87*	60	*84*	55	*82*
	60	51	75						
	90	34	57						
	130	19	40						
Staphylococcus epidermidis	0			78	*87*	74	*83*	72	*82*
	10	77	*85*	70	*82*	64	*80*	61	79
	30	57	75	48	71	40	*67*	35	65
	60	33	58						
	90	19	39						
	130	8	24						
Staphylococcus aureus	0			**90**	**98**	*85*	**96**	*81*	**95**
	10	*87*	**96**	*80*	**94**	72	**92**	69	**90**
	30	65	*85*	54	*81*	45	76	39	74
	60	38	66						
	90	21	44						
	130	9	27						
CoNS	0			*85*	**92**	*81*	**90**	78	*89*
	10	*83*	**91**	76	*89*	69	*87*	66	*85*
	30	62	*80*	52	77	44	73	38	70
	60	36	63						
	90	20	42						
	130	9	26						

3.2.2. Segurtasunaren ebaluazioa

7. eta **8. taulek** $Cmin_{ss}$ > 10 mg/L eta AUC_{24h} > 400 mg*h/L lortzeko probabilitateak biltzen dituzte, hurrenez hurren. Bi balio horiek linezolidek eragindako toxikotasunarekin lotu dira. Dosi estandarra erabiltzean (600 mg/12h) toxikotasunarekin erlazionatutako kontzentrazioak lortzeko probabilitateak baxuak dira, salbuespen batzuetan izan ezik; alegia, EGOT gabeko Clcr ≤ 10 mL/min balioak dituzten pazienteetan edota fluxu baxuko EGOTak ezarriak dituzten paziente anurikoetan. Dosi altuago bat erabiltzeak (600 mg/8h) modu nabarmenean baldintzatuko luke segurtasun profila. Horrela, bereziki sentikorrak izango lirateke Clcr balio baxuak dituzten pazienteak (≤ 60 mL/min), edota fluxu baxuko EGOTak ezarriak dituztenak.

7. taula. Linezoliden $Cmin_{ss}$ > 10 mg/L lortzeko probabilitateak.

	EGOT gabe		**Q_{ef} 1.5** L/h		**Q_{ef} 2** L/h		**Q_{ef} 3** L/h	
Clcr (mL/min)	**600 mg/ 12 h**	**600 mg/ 8 h**	**600 mg/ 12 h**	**600 mg/ 8 h**	**600 mg/ 12 h**	**600 mg/ 8 h**	**600 mg/ 12 h**	**600 mg/ 8 h**
0			32	92	9	87	3	83
10	43	88	15	81	3	73	1	68
30	16	65	4	53	1	43	0	36
60	4	36						
90	1	19						
130	0	8						

8. taula. Linezoliden AUC_{24h} > 400 mg*h/L lortzeko probabilitateak.

	EGOT gabe		**Q_{ef} 1.5** L/h		**Q_{ef} 2** L/h		**Q_{ef} 3** L/h	
Clcr (mL/min)	**600 mg/ 12 h**	**600 mg/ 8 h**	**600 mg/ 12 h**	**600 mg/ 8 h**	**600 mg/ 12 h**	**600 mg/ 8 h**	**600 mg/ 12 h**	**600 mg/ 8 h**
0			26	65	5	45	1	34
10	38	66	11	44	1	27	0	17
30	13	35	2	18	0	8	0	4
60	3	12						
90	1	5						
130	0	1						

4. Eztabaida

Lan honetan, linezoliden populazio-eredu farmakozinetiko bat garatu da gaixo larrientzat. Datuak ongien deskribatu zituen eredua konpartimentu bikoa izan zen, aurretik argitaratutako beste ikerketekin bat datorrena[26,27,28,29]. Estimatutako banaketa-bolumena (V_{ss} = 45,2 L) gorputz osoko ur kantitatearen antzekoa izan zen eta zenbait lanetan gaixo larrietan lortutako balioekin bat zetorren (adibidez, Taubert et al.[27]: 41,55 L). Gainera, ez zen desberdintasunik antzeman EGOTak ezarriak zituzten eta ez zituztenen artean. Bestalde, Slatter et al.-ek[30] edota MacGowan et al.-ek[31] boluntario osasuntsuetan deskribatutako banaketa-bolumenaren antzekoa izan zen ere (30-50 L). Banaketa-bolumenean ikusitako desberdintasun eza linezoliden izaera lipofiliko moderatuarekin erlazionatu daiteke. Izan ere, farmako hauen Van ez ohi da aldaketa esanguratsurik ematen gaixo larrien eta osasuntsuen artean. Farmako hidrofilikoekin ostera, aldaketa nabarmenak ematen dira sarritan, gertatu ohi den kanpoko fluidoen handipenak Va baldintzatzen baitute gaixo larrietan.

---

[26] Zoller M, Maier B, Hornuss C, Neugebauer C, Döbbeler G, Nagel D, et al. Variability of linezolid concentrations after standard dosing in critically ill patients: a prospective observational study. Crit Care 2014; 18: R148.

[27] Taubert M, Zoller M, Maier B, Frechen S, Scharf C, Holdt LM, Frey L, et al. Predictors of Inadequate Linezolid Concentrations after Standard Dosing in Critically Ill Patients. Antimicrob Agents Chemother. 2016;60(9):5254-61.

[28] Ide T, Takesue Y, Ikawa K, Morikawa N, Ueda T, Takahashi Y, et al. Population pharmacokinetics/pharmacodynamics of linezolid in sepsis patients with and without continuous renal replacement therapy. Int J Antimicrob Agents. 2018 Feb 6. pii: S0924-8579(18)30032-3.

[29] Adembri C, Fallani S, Cassetta MI, Arrigucci S, Ottaviano A, Pecile P, et al. Linezolid pharmacokinetic/pharmacodynamic profile in critically ill septic patients: Intermittent versus continuous infusion. Int J Antimicrob Agents. 2008; 31:122-9.

[30] Slatter JG, Stalker DJ, Feenstra KL, Welshman IR, Bruss JB, Sams JP, et al. Pharmacokinetics, metabolism, and excretion of linezolid following an oral dose of [(14)C]linezolid to healthy human subjects. Drug Metab Dispos. 2001;29(8):1136-45.

[31] MacGowan AP. Pharmacokinetic and pharmacodynamic profile of linezolid in healthy volunteers and patients with Gram-positive infections. J Antimicrob Chemother. 2003;51 Suppl 2:ii17-25.

Linezoliden eliminazioari dagokionez, giltzurrun-kanpoko (CL_{NR}) eta giltzurrun-menpeko (CL_R) argitzapena gehitu ziren ereduan. Gainera, CL_R pazienteen kreatinina argitzapenaren menpe zegoela ondorioztatu zen. Aldagai honen inklusioa linezoliden eredu farmakozinetikoan eztabaidagarria izan da. Izan ere, zenbait egilek Clcr-aren eta argitzapenaren arteko erlazioa deskribatu badute ere[28,32,33], beste hainbatek ezin izan dute bien arteko harreman sendorik demostratu[27,34]. Desberdintasun hauek azaldu ditzakeen zergatietako bat kreatinina argitzapena kalkulatzeko *Cockcroft-Gault*-en ekuazioa erabiltzea izan daiteke; frogatu baita gaixo larrietan ez dela behar bezain zehatza izaten[35,36]. Lan honetan, kreatinina argitzapena ereduan aldagai moduan gehitzeak CL-ren IIVa %97,8tik %61,5ra murriztu zuen.

Linezolid EGOT bidez partzialki kanporatzen denez gero, teknika hauek ezarriak zituzten pazienteetan CL_{EC}-a argitzapen totalaren ekuazioari gehitu zitzaion[37]. EGOTak dituzten pazienteetan argitzapenaren estimazioa egitea lan konplexua bilakatu daiteke. Izan ere, antibiotikoarekin erlazionatutako faktoreek zein teknikarekin lotutakoek baldintzatuko dute eliminazioa; hala nola, azalera, mintzaren konposaketa edota poroaren diametroa, erabilitako efluente fluxua edota teknika modalitatea[38]. Ikerketa-lan honetan batez besteko sieving

[32] Matsumoto K, Shigemi A, Takeshita A, Watanabe E, Yokoyama Y, Ikawa K, et al. Analysis of thrombocytopenic effects and population pharmacokinetics of linezolid: a dosage strategy according to the trough concentrations and renal function in adult patients. Int J Antimicrob Agents. 2014;44:242-7.

[33] Tsuji Y, Holford NHG, Kasai H, Ogami C, Heo YA, Higashi Y, et al. Population pharmacokinetics and pharmacodynamics of linezolid-induced thrombocytopenia in hospitalized patients. Br J Clin Pharmacol. 2017;83(8):1758-72.

[34] Pea F, Furlanut M, Cojutti P, Cristini F, Zamparini E, Franceschi L, et al. Therapeutic drug monitoring of linezolid: a retrospective monocentric analysis. Antimicrob Agents Chemother. 2010;54(11):4605-10.

[35] Kharbanda M, Majumdar A, Basu S, Todi S. Assessment of accuracy of Cockcroft-Gault and MDRD formulae in critically ill Indian patients. Indian J Crit Care Med. 2013;17(2):71-5.

[36] Sunder S, Jayaraman R, Mahapatra HS, Sathi S, Ramanan V, Kanchi P, et al. Estimation of renal function in the intensive care unit: the covert concepts brought to light. J Intensive Care. 2014;2(1):31.

[37] Villa G, Di Maggio P, De Gaudio AR, Novelli A, Antoniotti R, Fiaccadori E, et al. Effects of continuous renal replacement therapy on linezolid pharmacokinetic/pharmacodynamics: a systematic review. Crit Care. 2016;20(1):374.

[38] Trotman RL, Williamson JC, Shoemaker DM, Salzer WL. Antibiotic dosing in critically ill adult patients receiving continuous renal replacement therapy. Clin Infect Dis. 2005;41(8):1159-66.

koefizientea 0,8 ingurukoa izan zen, gaixo kritikoetan aztertutako farmako frakzio askearekin bat datorrena[33]. Ez zen Sc-an diferentzia esanguratsurik antzeman teknika desberdinen artean edota erabilitako mintzaren arabera bereizketa egitean. Sc balioen arteko antzekotasun hau aurretik deskribatu izan da, eta farmakoaren pisu molekular baxuarekin erlazionatu da[37]. Dena den, teknika-modalitate desberdinen artean erabilitako efluente fluxuek CL_{EC}-an antzeman daitezkeen desberdintasunak azaldu ditzakete. Hori dela eta, gorputz-kanpoko argitzapen balio baxuagoak lortuko dira etengabeko hemofiltrazioa (CVVH) edo CVVHD[39,40] erabiltzean CVVHDF[41] hautatzean baino, azken honetan fluxu altuagoak erabiltzen baitira. Nahiz eta aldakortasun nabarmena egon, lan honetan kalkulatutako CL_{EC}-ak (**1. taula**) aipatu berri diren ikerketetan deskribatutako balioen antzekoak izan ziren[39,40,41].

Jakina da, boluntario osasuntsuetan behintzat, linezoliden argitzapena giltzurrun bidezkoa zein mekanismo hepatikoen bitartekoa dela, %30 eta %65, hurrenez hurren. Gibeleko metabolismoa eraztun morfolinikoaren oxidazioaren bidez geratzen da, P450 zitokromoaren esku-hartzerik gabe[30]. Hori kontuan hartuta, gibel funtzioarekin erlazionatutako aldagaiak aztertu ziren. Bilirrubinaren eta transaminasen balioak izan arren, eta nahiz eta horiek erabilita hiru aldagai dikotomiko sortu, beraien inklusioak ez zuen eredu farmakozinetikoa hobetu. Gibel-funtzioarekin erlazionaturiko aldagairik ereduan ez sartzearen arrazoia

[39] Pea F, Viale P, Lugano M, Pavan F, Scudeller L, Della Rocca G, et al. Linezolid disposition after standard dosages in critically ill patients undergoing continuous venovenous hemofiltration: a report of 2 cases. Am J Kidney Dis. 2004;44(6):1097-102.

[40] Meyer B, Kornek GV, Nikfardjam M, Karth GD, Heinz G, Locker GJ, et al. Multiple-dose pharmacokinetics of linezolid during continuous venovenous haemofiltration. J Antimicrob Chemother 2005; 56: 172-9.

[41] Roger C, Muller L, Wallis SC, Louart B, Saissi G, Lipman J, et al. Population pharmacokinetics of linezolid in critically ill patients on renal replacement therapy: comparison of equal doses in continuous venovenous haemofiltration and continuous venovenous haemodiafiltration. J Antimicrob Chemother. 2016;71(2):464-70.

gaur egun honen adierazle den parametro fidagarri, ekomoniko eta praktikoaren falta litzake[42,43].

Denbora-kontzentrazio profilak aztertzean, pazienteen heren batean linezoliden erpin bat antzeman zen dosia eman eta 2-4 ordutara. Kontzentrazioen bat-bateko handitze hori esplikaezina da bi-konpartimentuko eredua erabiliz. Hainbat argitalpenek linezoliden behazun-xixku bidezko iraizketa deskribatu dutenez, zenbait pazientetan behatutako erpina azalduko lukeen zirkulazio enterohepatikoa zuen eredua ebaluatu zen[44,45]. Zoritxarrez, gure datuak ez ziren gai izan eredu horri aurre egiteko.

Gaixoen artean behatutako aldakortasun-interindibidual handiak (IIV_{CL} = %61,5 eta IIV_{V1} = %65.9) bat dator paziente larrietan burututako beste ikerketetan deskribatutakoarekin. Taubert et al.-ek[27], esaterako, %58 eta %37-ko IIVa (aldakuntza koefiziente moduan adierazia) deskribatu zuten CLarentzat eta V_1-rentzat hurrenez, hurren. Hori dela eta, zenbait egilek farmakoaren monitorizazio terapeutikoa gomendatu dute[25,32,46]. Haatik, Galar et al.-ek[47] argitaratu berri duten ikerketan, ez zen korrelazio argirik aurkitu emaitza kliniko eta linezoliden ezohiko kontzentrazio minimoen artean, eta, beraz, beraien esanetan, monitorizazioa ez litzateke aholkatuta egongo. Desadostasun hauetaz gain, sarritan farmakoen monitorizazioa gauzatzea ez da posible izaten. Izan ere, askotan, osasun-langileek

[42] Watkins PB, Merz M, Avigan MI, Kaplowitz N, Regev A, Senior JR. The clinical liver safety assessment best practices workshop: rationale, goals, accomplishments and the future. Drug Saf. 2014;37 Suppl 1:S1-7.

[43] Wicha SG, Frey OR, Roehr AC, Pratschke J, Stockmann M, Alraish R, et al. Linezolid in liver failure: exploring the value of the maximal liver function capacity (LiMAx) test in a pharmacokinetic pilot study. Int J Antimicrob Agents. 2017;50(4):557-63.

[44] Pea F, Viale P, Lugano M, Baccarani U, Pavan F, Tavio M, et al. Biliary penetration and pharmacodynamic exposure of linezolid in liver transplant patients. J Antimicrob Chemother. 2009; 63(1):167-9.

[45] Cremaschi E, Maggiore U, Maccari C, Cademartiri C, Andreoli R, Fiaccadori E. Linezolid levels in a patient with biliary tract sepsis, severe hepatic failure and acute kidney injury on sustained low-efficiency dialysis (SLED). Minerva Anestesiol. 2010; 76(11):961-4.

[46] Pea F, Furlanut M, Cojutti P, Cristini F, Zamparini E, Franceschi L, et al. Therapeutic drug monitoring of linezolid: a retrospective monocentric analysis. Antimicrob Agents Chemother. 2010;54(11):4605-10.

[47] Galar A, Valerio M, Muñoz P, Alcalá L, García-González X, Burillo et al. Systematic Therapeutic Drug Monitoring for Linezolid: Variability and Clinical Impact. Antimicrob Agents Chemother. 2017;61(10).

ezin diote aurre egin honetarako beharrezkoak diren denbora eta baliabideei. Hori dela eta, analisi farmakozinetiko/ farmakodinamiakoa, Monte Carlo simulazioekin batera, oso tresna baliagarria bilakatu daiteke posologia zehatz baten arrakasta probabilitateak aurresateko; baita tratamenduaren emaitza hobeak lortzeko gomendioak emateko ere[48]. Adibide moduan, ikerketa-lan honetan frogatu da sortutako eredu farmakozinetikoa gai dela pazienteei etengabeko perfusioa administratzean linezoliden kontzentrazio plasmatikoak aurreikusteko. Nahiz eta perfusio motza edo etengabekoa administratu zitzaien pazienteek estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak izan zenbait faktore demografikoetan eta biokimikoetan, hauek ez ziren traba izan linezoliden kontzentrazioak doitasunarekin aurreikusteko.

Lan honetan burututako simulazioak aintzat hartuz gero, dosi estandarra erabilita (600 mg/ 12h), AUC_{24h}/MIC > 80 lortzeko probabilitateak onargarriak izango lirateke 1 mg/L-ko MIC balioa duten bakterioek eragindako infekzioak tratatzeko, baldin eta pazienteen Clcr ≤ 60 mL/min den. Bestalde, Clcr ≤ 10 mL/min duten pazienteetan edota EGOTak ezarriak dituzten paziente anurikoetan izan ezik, dosi hori ez litzateke nahikoa izango 2 mg/L-ko MIC balioa duten mikroorganismoen gaixotasunak tratatzeko. Clinical and Laboratory Standard Institute (CLSI) erakundearen arabera[49], enterokokoentzat mozte-puntu klinikoa 2 mg/L-tako MICa da. Halaber, simulatutako egoera desberdin guztietan 600 mg/ 12h-tako linezolid dosia ez litzateke nahikoa izango 4 mg/mL MIC balioak dituzten bakterioen infekzioak tratatzeko. Azken hau, estafilokoko eta enterokokoentzat mozte-puntu klinikoa da European Committee on Antimicrobial Susceptibility Testing (EUCAST) erakundearen esanetan[50].

---

[48] Asín-Prieto E, Rodriguez-Gascón A, Isla A. Applications of the pharmacokinetic/pharmacodynamic (PK/PD) analysis of antimicrobial agents. J Infect Chemother. 2015;21(5):319-29

[49] Clinical and Laboratory Standards Institute. Performance Standards for Antimicrobial Susceptibility Testing. 28th Edition. M100-S28. CLSI. Wayne, PA, USA, 2018.

[50] The European Committee on Antimicrobial Susceptibility Testing. Breakpoint tables for interpretation of MICs and zone diameters. Version 8.0, 2018. Eskuragarri: *http://www.eucast.org* [kontsulta: 2018ko martxoa].

Entsegu honetan linezolid tratamendu enpiriko moduan administratu zen eta, paziente gehienetan, ez zen antibiotikoarekiko mikroorganismo sentikorrik isolatu. Horrek korrelazio farmakodinamiko zuzena egitea saihestu zuen. Beraz, 2013. eta 2015. urte bitartean Arabako Unibertsitate Ospitaleko ZIUetan lortutako suszeptibilitateen informazioa erabili zen CFRen balioak kalkulatzeko (**5. taula**). Isolatutako andui gehienen MIC balioa 2 mg/L edo altuagoa zenez (**3. taula**), erantzunaren metatze-frakzioa baxuak lortu ziren gauzatutako simulazioetan.

Tratamenduaren arrakasta izateko probabilitateak handituko ote ziren jakiteko intentzioarekin, linezoliden dosi altuago bat simulatu zen, alegia, 600 mg 8 orduro. **5. taulan** ikus daitekeen moduan, posologia horrek, oro har, ez lituzke modu esanguratsuan igoko arrakasta lortzeko probabilitateak. Aitzitik, gainesposizioa pairatzeko, eta ondorioz, efektu desiragaitzak jasateko, probabilitateak handituko lituzke (**7. eta 8.taulak**).

Linezoliden efektu desiragaitz nagusia mielosupresio itzulgarria da, bereziki tronbozitopenia[32,51]. Prozesu honekin erlazionatutako arrisku faktoreak gibel-disfuntzio kronikoa[52], linezoliden terapia luzea (> 14 egun), pisu baxua edota giltzurrun gutxiegitasuna dira[53,54], esaterako. Ikerketa-lan honetako pazienteek ez zuten $Cmin_{ss}$ > 10 mg/L edota AUC_{24h} > 400 mg*h/L baliorik lortu, eta ez zen dokumentatu linezolidekin erlazionaturiko efektu desiragaitzik. Nahiz eta paziente askok giltzurrun gutxiegitasuna pairatu, gehienak EGOTak ezarriak zituzten, soilik batek gainditu zuen 14 eguneko tratamendua eta erdiak baino gehiagok gainpisua zuten edo obesoak ziren (GMI > 25 kg/m^2).

---

[51] Gerson SL, Kaplan SL, Bruss JB, Le V, Arellano FM, Hafkin B, et al. Hematologic Effects of Linezolid: Summary of Clinical Experience. Antimicrob Agents Chemother. 2002; 46(8): 2723-26.

[52] Ikuta S, Tanimura K, Yasui C, Aihara T, Yoshie H, Iida H, et al. Chronic liver disease increases the risk of linezolid-related thrombocytopenia in methicillin-resistant *Staphylococcus aureus*-infected patients after digestive surgery. J Infect Chemother. 2011; 17(3):388-91.

[53] Echeverría-Esnal D, Retamero A, Pardos SL, Grau S. Severe thrombocytopenia caused by linezolid poisoning in an underweight critically ill patient with renal impairment treated with the recommended doses. Enferm Infecc Microbiol Clin. 2016;34(3):213-4.

[54] Natsumoto B, Yokota K, Omata F, Furukawa K. Risk factors for linezolid-associated thrombocytopenia in adult patients. Infection. 2014; 42(6):1007-12.

Linezoliden etengabeko perfusioak dosi altuagoek eragin dezaketen toxikotasuna saihestu lezake. Hori dela eta, zenbait egilek posologia hau aurrera eramatea proposatu dute, gure ondorioekin ere bat datorrena[27,55]. Kanpo-balidazioa burutzeko erabilitako paziente guztien plasma kontzentrazioak 1 mg/L baino altuagoa izan ziren. Gainera, neurtutako kontzentrazioen %86 2 mg/L-tik gorako kontzentrazioak zituzten. Hortaz, arrakasta terapeutikoa izateko probabilitate altuak esperoko lirateke 2 mg/L-tako MIC balioak dituzten infekzioak tratatzean, giltzurrun-funtzio handitua duten pazienteetan ere. Bestalde, bi pazientek gutxienez 10 mg/L baino altuagoa den kontzentrazio bat izan zuten; hasiera batean, toxikotasuna pariatzeko arriskuarekin erlazionatu daitekeena. Dena den, kontuan hartu behar da limite hori perfusio motzentzat ezarria dagoela, non kontzentrazio altuagoak egongo diren dosifikazio tarte osoan zehar. Hortaz, ez litzateke egokia izango 10 mg/L-ko kontzentrazio konstanteekin konparatzea eta ikerketa gehiago egin beharko lirateke dosifikazio-erregimen honentzat, toxikotasunarekin erlazionatutako kontzentrazioa zein den zehazteko.

5. Ondorioak

Lan honetan linezoliden populazio-eredu farmakozinetiko bat eraiki da, gaixo larrientzat. Plasma kontzentrazio datuak ongien deskribatu zituen eredua konpartimentu-bikoa izan zen. Argitzapena giltzurrun-kanpoko argitzapenaren eta giltzurrun menpeko argitzapenaren arteko batura moduan kalkulatu zen; eta azken hori Clcr-aren eraginpean zegoen. Gainera, EGOTak ezarriak zituzten pazienteetan, gorputz-kanpoko argitzapena ere gehitu zitzaion ekuazioari.

[55] Richards GA, Brink AJ. Therapeutic drug monitoring: linezolid too? Critical Care. 2014; 18:525.

Garatutako eredua erabilgarria izan daiteke arrakasta lortzeko probabilitatea kalkulatzeko, irizpide farmakozinetiko/farmakodinamikoei jarraiki. Hauen arabera, linezoliden dosi estandarra (600 mg/12h) ez litzateke egokia izango 2 mg/L-tako MIC balioak dituzten patogenoek eragindako infekzioak tratatzeko. Dosia 600 mg/8h-ra handitzean, ez lirateke arrakasta probabilitate altuagoak lortuko; ordea, toxikotzat hartzen diren kontzentrazioak izateko aukerak handituko lirateke. Gaixo larrietan etengabeko perfusioa erabiltzea aukera egokia izan daiteke, bereziki giltzurrun-gutxiegitasuna pairatzen ez dutenetan (Clcr≥ 60 mL/min).

EZTABAIDA OROKORRA

Eztabaida orokorra

Gaixotasun infekziosoen kudeaketaren gaur egungo konplexutasunak eta antibiotikoekiko erresistentzien gorakadak ezinbestekoa egin dute antimikrobianoen erabilera optimizatzea. Aditzera eman denez, ospitaleetan antibiotikoen erabileraren % 50 hobetu egin daiteke eta gaixoen % 30-40ak jasotzen duten zainketa ez dago zientzia-ebidentzietan oinarrituta[1].

Antibiotikoak agintzea erabakitzeko prozesuak barnean hartu beharko luke informazio klinikoa, epidemiologikoa, mikrobiologikoa eta farmakologikoa; izan ere, gaixotasun infekziosoek ez baitute soilik arriskuan jartzen banakoen osasuna, baita osasun publikoaren ongizatea ere. Gainera, ongizate publikoa mantentzea eta banakoen askatasuna babestea elkarren arteko lehian egon daitezke hainbat egoeratan[2]. Diziplina anitzeko ikuspegia benetan onuragarria izan daiteke konplexutasun handiko zainketa zerbitzuetan, batik bat zainketa intentsiboen unitateetan.

Kontuan hartuta tratamendu enpirikoa ospitaleetan agintzen diren antimikrobianoen bi herenen atzean dagoela, gaixotasun espezifikoetarako aukerako erregimen enpirikoak ezarri beharko lirateke, tokiko eta estatuko jarraibideak eta tokiko mikrobioen aurkako sentikortasunak aintzat hartuta[3,4]. Protokoloak diseinatzeak eta optimizatzeak emaitza klinikoak hobetuko lituzke, tratamendu antibiotiko enpiriko egokiak goiz ematen direnean heriotza-tasak

[1] Hulscher ME, Grol RP, van der Meer JW. Antibiotic prescribing in hospitals: a social and behavioural scientific approach. Lancet Infect Dis. 2010; 10(3):167-75.

[2] Hernández-Marrero P, Martins Pereira S, de Sá Brandão PJ, Araújo J, Carvalho AS. Toward a bioethical framework for antibiotic use, antimicrobial resistance and for empirically designing ethically robust strategies to protect human health: a research protocol. J Int Med Res. 2017;45(6):1787-93.

[3] Centre of Disease Control. CDC Core Elements of Hospital Antibiotic Stewardship Programs. US Dep Heal Hum Serv CDC. Eskuragarri: *https://www.cdc.gov/antibiotic-use/healthcare/implementation/core-elements.html*. [kontsulta: 2018ko maiatza].

[4] Campion M, Scully GJ. Antibiotic Use in the Intensive Care Unit: Optimization and De-Escalation. Intensive Care Med. 2018 Jan 1:885066618762747. doi:10.1177/0885066618762747.

behera egiten baitu[5,6,7,8]. Hori lortzeko, ezinbestekoa da antibiotikoekiko erresistentzia behatzeko sistema bat garatzea, metodoetarako, datuak partekatzeko eta koordinatzeko arau bateratuekin, tokiko, estatuko eta nazioarteko mailan[9]. Hala ere, estaldura enpiriko egokia ziurtatzeak ez luke tratamenduaren helburu bakarra izan beharko. Diagnosi mikrobiologikoak lagungarriak izan daitezke terapia antibiotiko egokiena ziurtatzeko eta infekzioaren tratamendu espezifiko eta eraginkorragoa emateko, mikroorganismoei buruzko informazioa emateaz gain, gehien erabiltzen diren antibiotikoekiko sentikortasuna zehazten dutelako. Hortaz, identifikazio goiztiarra baliagarria izan daiteke emaitza klinikoa hobetzeko eta albo-ondorioak murrizteko[4,6].

Oro har, mikroorganismo Gram-negatiboek eragindako infekzioak goian jarri dira ikerketarako lehentasunen zerrendan, intzidentzia handia dutelako eta antibiotikoekiko erresistentzia asko garatzen ari direlako[10]. Dena den, bakterio Gram-positiboek eragindako infekzioak ez dira gutxietsi behar. Izan ere, gaixo larrien bakteriemien heren bat edo erdi bitarte bakterio Gram-positibo batek eragindakoa omen dela adierazi da, ZIUetako espezie nagusien artean

[5] Zilberberg MD, Shorr AF, Micek ST, Vazquez-Guillamet C, Kollef MH. Multi-drug resistance, inappropriate initial antibiotic therapy and mortality in Gram-negative severe sepsis and septic shock: a retrospective cohort study. Crit Care. 2014;18(6):596.

[6] Bassetti M, Righi E, Carnelutti A. Bloodstream infections in the Intensive Care Unit. Virulence. 2016;7(3):267-79.

[7] Braykov NP, Morgan DJ, Schweizer ML, Uslan DZ, Kelesidis T, Weisenberg SA, et al. Assessment of empirical antibiotic therapy optimisation in six hospitals: an observational cohort study. Lancet Infect Dis. 2014;14(12):1220-7.

[8] Garnacho-Montero J, Arenzana-Seisdedos A, De Waele J, Kollef MH. To which extent can we decrease antibiotic duration in critically ill patients? Expert Rev Clin Pharmacol. 2017;10(11):1215-23.

[9] World Health Organization (WHO). Global Antimicrobial Resistance Surveillance System. Manual for Early Implementation. Eskuragarri:
http://apps.who.int/iris/bitstream/handle/10665/188783/9789241549400_eng.pdf;jsessionid=47A822CD2C92661EB7483A4E36842BD9?sequence=1 [kontsulta: 2018ko maiatza]

[10] Tacconelli E, Carrara E, Savoldi A, Harbarth S, Mendelson M, Monnet DL, et al. Discovery, research, and development of new antibiotics: the WHO priority list of antibiotic-resistant bacteria and tuberculosis. Lancet Infect Dis. 2018;18(3):318-27.

kokatuz[6,11,12,13]. Bakterio horiek eragiten dituzten gaixotasun ohikoenen artean dago osasun-zainketarekin lotutako pneumonia, zehazki haizagailuekin lotutako pneumonia (askotan MRSA bakterioak eragindakoa), eta gailu inbaditzaile aurreratuekin lotutako bakteriemia, hala nola bentrikuluko gailu lagungarriek edo zain barneko kateterrek eragindakoa[13].

Bankomizina da gaixo larrietan bakterio Gram-positiboek eragindako infekzioen tratamendurako gehien erabili den antibiotikoa; besteak beste, metizilinarekiko erresistenteak diren *Staphylococcus aureus* edo *Enterococcus spp* bakterioen aurka. Nolanahi ere, antibiotiko horren erabilerak erresistentzien gorakada eragin du eta, kasu batzuetan, bankomizinaren kontzentrazio minimo inhibitzailea handitzea ekarri du ("MIC-lerradura" bezala ezagutu izan dena)[14,15,16]. Ondorioz, bankomizinarekiko erresistenteak diren enterokokoek (VRE) eta *S. aureus* (VRSA) mikroorganismoek eragindako infekzio nosokomialak gero eta ugariagoak dira, eta tratamendu-hutsegiteak eragin ditzakete maiz. Gauzak horrela, antimikrobiano horren ordezkoak bilatzea ezinbestekoa bilakatu da. Azken urteotan, bakterio Gram-positiboen aurkako antibiotiko berriak oso garrantzitsuak izan dira infekzioen kudeaketan (adibidez, zeftarolina, tigeziklina, daptomizina eta linezolid).

---

[11] Tabah A, Koulenti D, Laupland K, Misset B, Valles J, Bruzzi de Carvalho F, et al. Characteristics and determinants of outcome of hospital-acquired bloodstream infections in intensive care units: the EUROBACT International Cohort Study. Intensive Care Med. 2012;38(12):1930-45.

[12] Vázquez-Guillamet C, Kollef HM. Treatment of gram - positive infections in critically ill patients. BMC Infect Dis. 2014; 14: 92.

[13] Savage RD, Fowler RA, Rishu AH, Bagshaw SM, Cook D, Dodek P, et al. Pathogens and antimicrobial susceptibility profiles in critically ill patients with bloodstream infections: a descriptive study. CMAJ Open. 2016;4(4):E569-E577.

[14] Rengaraj R, Mariappan S, Sekar U, Kamalanadhan A. Detection of Vancomycin Resistance among *Enterococcus faecalis* and *Staphylococcus aureus*. J Clin Diagn Res. 2016;10(2):DC04-6.

[15] Sancak B, Yagci S, Mirza HC, Hasçelik G. Evaluation of vancomycin and daptomycin MIC trends for methicillin-resistant *Staphylococcus aureus* blood isolates over an 11 year period. J Antimicrob Chemother. 2013;68(11):2689-91.

[16] Díaz R, Ramalheira E, Afreixo V, Gago B. Evaluation of vancomycin MIC creep in *Staphylococcus aureus*. J Glob Antimicrob Resist. 2017;10:281-4.

Antibiotikoekiko erresistentziak garatzeko arriskua eta aukera terapeutiko erabilgarri murritza kontuan hartuta, antibiotikoen dosifikazio egokia ezinbestekoa da gaixo larrien kudeaketa egokirako. Hortaz, gaixoen faktore espezifikoak kontuan hartzen dituzten antimikrobianoen dosifikazio-erregimenak hobetzea ezinbestekoa izango da. Helburu horrekin, populazioaren ikuspegi farmakozinetikoa probetxugarria izango da gaixo larrien populazio-parametroak deskribatzeko eta profil farmakozinetikoarekin lotutako aldakortasunaren eta gaixoen ezaugarri psikopatologikoen arteko loturak identifikatzeko.

Analisi farmakozinetiko/farmakodinamikoak (PK/PD) barnean hartzen ditu informazio farmakozinetikoa eta mikroorganismoek antimikrobiano espezifiko batekiko duten sentikortasunari buruzko informazioa (MIC balioak). Analisi horren bitartez, gaixo eta infekzio-prozesu bakoitzarentzat antibiotikorik eta dosifikazio-erregimenik egokiena aukera daiteke, antibiotikoaren eragin egokia ziurtatzeko eta albo-ondorioak agertzea eta erresistentziak garatzea minimizatzeko.

Analisi PK/PDak aplikatzean, muga nagusia da MIC balioak antibiotiko kontzentrazio estatikoak daudenean bakterioak inkubatu ondoren kalkulatzen direla. Beraz, antibiotiko kontzentrazioak aldatzen diren bitartean bakterioen garapenak pairatzen duen bilakaerari buruzko informaziorik ez da ematen, eta horrek lotura hobea dauka giza gorputzeko fluidoen benetako egoerarekin. *In vitro* denbora-hilkortasuneko zinetika-azterketetan oinarritutako eredu farmakodinamikoek gaixoekin gertatzen denaren inguruko ikuspegi hurbilago bat eman dezaketen arren, normalean ez dira erabiltzen, denbora asko behar izaten dutelako eta garestiak izan ohi direlako[17,18].

[17] Nielsen EI, Cars O, Friberg LE. Predicting in vitro antibacterial efficacy across experimental designs with a semimechanistic pharmacokinetic-pharmacodynamic model. Antimicrob Agents Chemother. 2011;55(4):1571-9.

[18] Sy SKB, Derendorf, H. in: Schmidt S, Derendorf H (Eds.) Pharmacometrics in bacterial infections. Springer, New York; 2014: 229–58.

Parametro farmakozinetikoen eta mikrobiologikoen arteko harreman kuantitatiboari indize PK/PD esaten zaio. Hiru indize PK/PD daude antibiotikoen eraginarekin lotuta: antimikrobianoaren kontzentrazioa MIC balioaren gainetik dagoen denbora ($T_{>MIC}$), kontzentrazio pikoa eta MIC ratioa (Cmax/MIC), eta kontzentrazio denbora kurbaren azpiko tartea (normalean 24 orduko denbora tartean) MIC balioarekin zatituta lortzen den ratioa (AUC_{24h}/MIC). Bestalde, indize PK/PD egokia hautatzeaz gain, eraginkortasun antimikrobianoarekin lotuta dagoen indizearen magnitudea ere zehaztu behar da; hau da, helburu farmakodinamikoa (PDT) ezarri behar da.

Eredu farmakozinetiko bat garatu ondoren, eta parametro farmakozinetikoen eta farmakodinamikoen arteko erlazioa aztertu ostean, terapiaren emaitzaren gaineko aurreikuspenak eta bestelako dosifikazioek arrakasta izateko probabilitatearen balioespenak egin daitezke, Monte Carlo simulazioaren bitartez. Horrenbestez, simulazio horien bitartez mozte-puntu farmakozinetiko/farmakodinamiko fidagarriak lortzeko, derrigorrezkoa izango da populazio-eredu farmakozinetiko balioztatu bat erabiltzea aztertutako gaixoentzat, baita eraginkortasunarekin lotutako PDT zehatz bat ere. Bestela, lortutako emaitzek alborapenak izango dituzte eta alferrikakoak izango dira.

Adierazitakoaren ildotik, lan honetan populazio-eredu farmakozinetikoak diseinatu eta ebaluatu dira bakterio Gram-positiboen aurka gaixo larrietan erabilitako bi botika antimikrobianorentzat: daptomizina eta linezolid. Gainera, dosifikazio-erregimenen doitasuna aztertu da, analisi farmakozinetiko/ farmakodinamikoa eta Monte Carlo simulazioa aplikatuz, eta eraginkortasun eta segurtasun profilak kontuan hartuta.

Modu honetan, bigarren kapituluan, daptomizinaren populazio-eredu farmakozinetiko bat garatu zen. Konpartimentu bakarreko eredua izan zen informazioa ongien deskribatu zuena, eta batez beste 12,3 L-ko banaketa-bolumena estimatu zen. Antibiotikoaren eliminatzea giltzurrun-kanpoko argitzapenaren (0,16 L/h) eta giltzurrun-menpeko argitzapenaren menpe egon zen

(batez beste 0,37 L/h), bigarrena kreatinina argitzapenaren menpe egonik. Gainera, EGOTak ezarriak zituzten subjektuetan, gorputz-kanpoko argitzapena (CL_{EC}) ere argitzapen-ekuazioan sartu zen, CL osoaren %39tik 80ra bitarteren erantzule izanik. Aintzat hartuta guztizko argitzapenean %25etik gorako CL_{EC}-ren ekarpena esanguratsutzat jotzen dela[19], teknika horien bitartez antibiotikoa nabarmen ezabatzen dela ondoriozta daiteke. Daptomizinak boluntario osasuntsuetan %90eko proteina-lotura erakutsi duen arren, askotan adierazi da gaixo larrietan antibiotikoen proteinekiko lotura normalean baxuagoa dela (hipoalbuminemiaren eraginez, beste hainbat arrazoien artean)[20]. Hortaz, aztertutako gaixoetan ikusitako sieving koefizientea (batez besteko balioa: 0,2) bat etor daiteke odoleko daptomizinaren frakzio askearekin.

Daptomizina gaixoaren pisuaren arabera dosifikatzea gomendatzen bada ere, ereduan parametro hau aldagai moduan sartzeak ez zuen hobekuntzarik eragin. Baliteke azterketan bildutako gaixoen kohortearen tamaina txikia (n = 16) izatea horren arrazoia, bai eta gaixo gehienek (%75) obesitatea edo gehiegizko pisua zutela ere. Beste azterketa batzuekin bat etorriz pisua kontuan hartu ez bazen ere[21,22], kontuz ibili behar da populazio-eredua askoz gorputz-pisu gutxiagoko gaixoentzako dosi egokiak edo kontzentrazioak aurresateko erabiltzean.

Daptomizina 4 mg/kg-ko dosian dago onartuta larruazal eta ehun bigunetako infekzio (LEBI) zailen tratamendurako, eta 6 mg/kg-ko dosian, *S. aureus*-ek eragindako bakteriemietarako, eskuineko endokarditisaren tratamendua

[19] Schetz M, Ferdinande P, Van den Berghe G, Verwaest C, Lauwers P. Pharmacokinetics of continuous renal replacement therapy. Intensive Care Med. 1995;21(7):612-20.

[20] Ulldemolins M, Roberts JA, Rello J, Paterson DL, Lipman J. The effects of hypoalbuminaemia on optimizing antibacterial dosing in critically ill patients. Clin Pharmacokinet. 2011;50(2):99-110.

[21] Di Paolo A, Tascini C, Polillo M, Gemignani G, Nielsen EI, Bocci G, et al. Population pharmacokinetics of daptomycin in patients affected by severe Gram-positive infections. Int J Antimicrob Agents. 2013;42(3):250-5.

[22] Falcone M, Russo A, Venditti M, Novelli A, Pai MP. Considerations for higher doses of daptomycin in critically ill patients with methicillin-resistant *Staphylococcus aureus* bacteremia. Clin Infect Dis. 2013;57(11):1568-76.

ere barnean hartuta[23]. Bestalde, indikaziotik kanpo erabili izan da bakterio Gram-positiboek eragindako nerbio-sistema zentraleko infekzioak edo VRE-ek eragindako bakteriemia tratatzeko[24,25]. Era berean, daptomizinak oso ondo jarduten du biofilmen aurka, eta, beraz, abantailatsua izan daiteke infekzioaren eragileak kateterrak edo bestelako gailuak direnean[26]. Bestalde, deskribatu izan da *S. aureus*-ek eragindako infekzio baten susmoa dagoenean, daptomizina-dosi handi batekin (8-10 mg/kg/egunean) egindako tratamendu enpirikoa eraginkorragoa dela glukopeptidoen edo betalaktamikoen erregimen enpiriko bat baino, bereziki MRSAren prebalentzia altua dagoenetan[27].

Hala ere, oraindik ez dago adostasunik daptomizina dosi egokienari dagokionez. Ikerketa honetan egindako analisi farmakozinetiko /farmakodinamikoek eta Monte Carlo simulazioek erakutsi dutenez, daptomizina-dosi estandarrek ez lukete estaliko 4 mg/L-ko MIC balioek eragindako infekzioak, eta hori da, hain zuzen ere, CLSIk (Clinical and Laboratory Standard Institute)[28] eta EUCAST erakundeek (European Committee on Antimicrobial Susceptibility Testing)[29] markatutako mozte-puntu klinikoa enterokokoentzat. Dosi-maila horiek 1 mg/L-ko MIC balioak (estreptokoko eta estafilokokoentzako mozte-puntu

---

[23] European Medicines Agency. Cubicin®: summary of product characteristics. Eskuragarri: *http://www.ema.europa.eu/docs/en_GB/document_library/EPAR_-_Product_Information/human/000637/WC500036049.pdf* [Kontsulta: 2017ko maiatza].

[24] Rybak JM, Barber KE, Rybak MJ. Current and prospective treatments for multidrug-resistant gram-positive infections. Expert Opin Pharmacother. 2013;14(14):1919-32.

[25] Mohr JF, Friedrich LV, Yankelev S, Lamp KC. Daptomycin for the treatment of enterococcal bacteraemia: results from the Cubicin Outcomes Registry and Experience (CORE). Int J Antimicrob Agents. 2009;33(6):543-8.

[26] Bauer J, Siala W, Tulkens PM, Van Bambeke F. A combined pharmacodynamic quantitative and qualitative model reveals the potent activity of daptomycin and delafloxacin against *Staphylococcus aureus* biofilms. Antimicrob Agents Chemother. 2013;57(6):2726-37.

[27] Bassetti M, Ansaldi F, De Florentiis D, Righi E, Pea F, Sartor A, et al. Is empiric daptomycin effective in reducing mortality in *Staphylococcus aureus* bacteraemia? A real-life experience. Intensive Care Med. 2015;41(11):2026-8.

[28] Clinical and Laboratory Standards Institute. Performance Standards for Antimicrobial Susceptibility Testing. 28th Edition. M100-S28. CLSI, Wayne, PA, USA, 2018.

[29] The European Committee on Antimicrobial Susceptibility Testing. Breakpoint tables for interpretation of MICs and zone diameters. Version 8.0, 2018. Eskuragarri: *http://www.eucast.org* [kontsulta 2018ko martxoa].

klinikoa) dituzten mikroorganismoek eragindako infekzioak estaliko lituzkete gaixoek giltzurrun-gutxiegitasuna izatean (≤ 30 mL/min) eta EGOTak ezarriak ez dituztenean bakarrik. Emaitza horiek bat datoz IDSAren (*Infectious Diseases Society of America*) jarraibideekin eta aurretiazko ikerketekin; izan ere, dosi altuak lehenetsi dituzte ere (8-12 mg/kg/egunean edo 560-840 mg/egunean) [21,22,30,31].

3. kapituluan, populazio-eredu farmakozinetiko bat garatu zen linezolidentzat. ZIUko 41 gaixoren antibiotikoen plasma-mailak neurtu ziren eta kontzentrazio-denbora kurba ongien deskribatu zuen eredua bi-konpartimentukoa izan zen. Aldakortasun interindibiduala (IIV) gehitu zitzaion argitzapenari (CL) eta konpartimentu zentraleko banaketa-bolumenari (V_1), eta gaixoen arteko aldakortasun handiak ikusi ziren, %61,5 eta %65,9, hurrenez hurren.

Estimatutako banaketa-bolumena (V_{ss} = 45,2 L) gorputzaren guztizko urari hurbildu zitzaion eta gaixo larriekin aurretik egindako beste ikerketa batzuetan lortutakoaren antzekoa izan zen (adibidez, Taubert et al.[32]: 41,55 L). Antibiotikoaren izaera lipofiloa dela eta, balio hori ez zen aldendu, ezta ere, boluntario osasuntsuentzat kalkulatutako balioetatik[33,34]. Linezoliden eliminatzeari dagokionez, giltzurrun-kanpoko nahiz giltzurrun-menpeko argitzapenak gehitu ziren ereduan, bigarrena gaixoen Clcr-ren eraginpean izanik. Aldatu gabeko linezoliden %30 soilik giltzurrunen bidez ezabatzen denez gero,

[30] Senneville E, Caillon J, Calvet B, Jehl F. Towards a definition of daptomycin optimal dose: Lessons learned from experimental and clinical data. Int J Antimicrob Agents. 2016;47(1):12-9.

[31] Liu C, Bayer A, Cosgrove SE, Daum RS, Fridkin SK, Gorwitz RJ, et al. Clinical practice guidelines by the infectious diseases society of America for the treatment of methicillin-resistant *Staphylococcus aureus* infections in adults and children. Clin Infect Dis. 2011;52(3):e18-55.

[32] Taubert M, Zoller M, Maier B, Frechen S, Scharf C, Holdt LM, Frey L, et al. Predictors of Inadequate Linezolid Concentrations after Standard Dosing in Critically Ill Patients. Antimicrob Agents Chemother. 2016;60(9):5254-61.

[33] Slatter JG, Stalker DJ, Feenstra KL, Welshman IR, Bruss JB, Sams JP, et al. Pharmacokinetics, metabolism, and excretion of linezolid following an oral dose of [(14)C]linezolid to healthy human subjects. Drug Metab Dispos. 2001;29(8):1136-45.

[34] MacGowan AP. Pharmacokinetic and pharmacodynamic profile of linezolid in healthy volunteers and patients with Gram-positive infections. J Antimicrob Chemother. 2003;51 Suppl 2:ii17-25.

kreatinina-argitzapenak guztizko argitzapenean duen eragina eztabaidagarria izan da. Nolanahi ere, Clcr-ren eta CL-ren arteko harreman estua atzeman zen, eta aldagaia gehitzeak argitzapenaren aldakortasun-interindibiduala jaitsi zuen %97,8tik %61,5era.

Linezolid EGOTen bidez partzialki eliminatzen denez gero, CLEC balioa gehitu zitzaion gorputzaren guztizko argitzapenaren ekuazioari[35]. CLEC balioak CLri egindako ekarpena % 5etik % 67rako tartean mugitu zen, eta kreatinina-argitzapenak baldintzatu zuen nagusiki. Hortaz, EGOTen bidez antibiotiko proportzio handiagoak eliminatu ziren gaixo anurikoetan edo giltzurrun-funtzio mugatua zutenetan. Ikerketa honetan kalkulatutako batez besteko sieving koefizientearen balioa (0,8) gaixo larrietan proteinei lotu gabeko frakzioaren antzekoa izan zen[36].

Linezoliden erabilera baimenduta dago pneumoniaren eta larruazal eta ehun biguinetako infekzioen tratamendurako. Hala ere, indikaziotik kanpo erabili izan da MRSAk eragindako bigarren mailako bakteriemia edota meningitis tuberkulosoa tratatzeko, besteak beste[37,38,39]. ZIUetako infekziorik ohikoenak arnas-bideetako infekzioak (bereziki pneumonia) direla aintzat hartuta, eta

[35] Villa G, Di Maggio P, De Gaudio AR, Novelli A, Antoniotti R, Fiaccadori E, et al. Effects of continuous renal replacement therapy on linezolid pharmacokinetic/pharmacodynamics: a systematic review. Crit Care. 2016;20(1):374.

[36] Tsuji Y, Holford NHG, Kasai H, Ogami C, Heo YA, Higashi Y, et al. Population pharmacokinetics and pharmacodynamics of linezolid-induced thrombocytopenia in hospitalized patients. Br J Clin Pharmacol. 2017;83(8):1758-72.

[37] Park HJ, Kim SH, Kim MJ, Lee YM, Park SY, Moon SM, et al. Efficacy of linezolid-based salvage therapy compared with glycopeptide-based therapy in patients with persistent methicillin-resistant *Staphylococcus aureus* bacteremia. J Infect. 2012;65(6):505-12.

[38] Pereira NM, Shah I, Ohri A, Shah F. Methicillin resistant *Staphylococcus aureus* meningitis. Oxf Med Case Reports. 2015;19;2015(11):364-6.

[39] Sun F, Ruan Q, Wang J, Chen S, Jin J, Shao L, et al. Linezolid manifests a rapid and dramatic therapeutic effect for patients with life-threatening tuberculous meningitis. Antimicrob Agents Chemother. 2014;58(10):6297-301.

heriotza-tasarik altuenak dituztenak direla jakinda, linezolid oso antibiotiko baliagarria bihurtzen da gaixo larrien infekzioak tratatzeko[40].

CLSI[28] eta EUCAST[29] erakundeen arabera, mozte-puntu klinikoa enterokokoen kasuan 2-4 mg/L-koa da eta estafilokokoen kasuan 4 mg/L-koa. Lan honetan gauzatutako analisi farmakozinetiko/farmakodinamikoa aintzat hartuta, linezoliden dosi estandarra (600 mg/12h) ez litzateke sarritan nahikoa izango gaixo larrietan helburua lortzeko probabilitate altuak izateko. Haatik, soilik Clcr ≤ 10 mL/min balioak dituzten pazienteek edota EGOTak ezarriak izatean paziente anuriakoek, lortuko lituzkete soilik PTA balio altuak 2 mg/L-tako MIC balioa duten mikroorganismoek eragindako infekzioak tratatzeko. Dosia 600 mg/8h-ra igotzeak ez luke nabarmen handituko eraginkortasuna lortzeko probabilitatea, baina pazienteen segurtasuna arriskuan jarriko luke. Dosi altuekin lotutako toxikotasun-arazo potentzialak saiheste aldera, ikerketa honetan lortutako emaitzek argi uzten dute dosifikazio-estrategia berriak bilatu behar direla, etengabeko perfusioa barnean hartuta. Estrategia hori bereziki betalaktamikoekin erabiltzea iradoki bada ere[41,42], hainbat ikertzailek linezolidekin erabiltzeko ere proposatu dute[32,43]. Etengabeko perfusioa bereziki onuragarria izan daiteke giltzurrun-funtzioa handitua duten gaixoentzat; izan ere, kasu horietan, infusio motz bidez emanez gero, tratamenduak arrakasta izateko oso probabilitate baxuak dituelako. Etengabeko perfusioaren kasuan, lan honetan lortutako emaitzak baikorrak diren arren, ikerketa gehiago egin behar dira arlo horretan.

Ikerketa honetako hainbat muga kontuan hartzekoak dira. Alde batetik, arestian adierazi den moduan, analisi farmakozinetiko/farmakodinamikoak MIC

---

[40] Magill SS, Edwards JR, Bamberg W, Beldavs ZG, Dumyati G, Kainer MA, et al. Multistate point-prevalence survey of health care-associated infections. N Engl J Med. 2014;370(13):1198-208.

[41] Vardakas KZ, Voulgaris GL, Maliaros A, Samonis G, Falagas ME. Prolonged versus short-term intravenous infusion of antipseudomonal β-lactams for patients with sepsis: a systematic review and meta-analysis of randomised trials. Lancet Infect Dis. 2018;18(1):108-20.

[42] Van Herendael B, Jeurissen A, Tulkens PM, Vlieghe E, Verbrugghe W, Jorens PG. Continuous infusion of antibiotics in the critically ill: The new holy grail for beta-lactams and vancomycin? Ann Intensive Care. 2012;2(1):22.

[43] Richards GA, Brink AJ. Therapeutic drug monitoring: linezolid too? Critical Care. 2014; 18:525.

balioetan oinarritutako ereduetan egin dira, eta, beraz, balio estatikoak izan dira kontuan bakarrik. Beste aldetik, infekzioaren eremua ez da aintzat hartu dosifikazio-gomendioak zehazteko, eta plasma-kontzentrazioak erabili dira bakarrik. Gainera, erresistentzien garapenaren ondorioak ez dira aztertu, nahiz eta oso baliagarriak izan daitezkeen, bereziki antibiotiko horien gaineko erresistentzien agerpena dagoeneko atzeman dela kontuan hartuz gero. Ildo horretatik, linezolidekiko eta daptomizinarekiko erresistenteak diren *Staphylococcus aureus* bakterioak aurkitu dira[44,45], baita linezolidekiko erresistenteak diren *Staphylococcus epidermidis*[46] bakterioak ere, besteak beste.

[44] Karavasilis V, Zarkotou O, Panopoulou M, Kachrimanidou M, Themeli-Digalaki K, Stylianakis A, et al. Wide dissemination of linezolid-resistant *Staphylococcus epidermidis* in Greece is associated with a linezolid-dependent ST22 clone. J Antimicrob Chemother. 2015;70(6):1625-9.

[45] Sánchez García M, De la Torre MA, Morales G, Peláez B, Tolón MJ, Domingo S, et al. Clinical outbreak of linezolid-resistant *Staphylococcus aureus* in an intensive care unit. JAMA. 2010;303(22):2260-4.

[46] van Hal SJ, Paterson DL, Gosbell IB. Emergence of daptomycin resistance following vancomycin-unresponsive *Staphylococcus aureus* bacteraemia in a daptomycin-naïve patient--a review of the literature. Eur J Clin Microbiol Infect Dis. 2011;30(5):603-10.

ONDORIOAK

Ondorioak

1. Daptomizinaren populazio-eredu farmakozinetiko bat garatu egin da gaixo larrientzat. Kontzentrazio-denbora datuak ongien deskribatu zituen eredua konpartimentu bakarrekoa izan zen. Antibiotikoaren argitzapena, giltzurrun-kanpoko argitzapenaren (CL_{NR}) eta giltzurrun-menpeko argitzapenaren (CL_R) arteko batura moduan kalkulatu zen; eta azken hori Clcr-aren eraginpean zegoen. Gainera, EGOTak egotziak zeuzkaten pazienteen kasuan, gorputz-kanpoko argitzapena gehitu zitzaion ekuazioari.

2. Daptomizinaren dosi estandarrak sarritan ez dira nahikoak izango gaixo larriak tratatzeko. Horrela, giltzurrun-gutxiegitasunik gabeko subjektuak eta etengabeko gorputz-ordezkatze teknikak ezarriak dituzten pazienteak izango lirateke bereziki infradosifikazio arrisku handiena dutenak. Izan ere, tratamenduaren arrakasta izateko probabilitate baxuak lortuko lirateke 1 mg/L-tako zein 4 mg/L-tako MIC balioentzat; alegia, estreptokoko eta estafilokokoentzat zein enterokokoentzat ezarri diren mozte-puntu klinikoentzat, hurrenez hurren.

3. Gauzatutako analisi farmakozinetiko/farmakodinamikoaren arabera, daptomizinaren tratamenduaren arrakasta ziurtatzeko, 60 mL/min eta 90 mL/min arteko kreatinina argitzapena duten gaixoek 700 mg/24h-ko dosia beharko lukete. Clcr balio altuagoak dituzten pazienteetan, aldiz, 840 mg/24h-ko dosia administratu beharko litzateke. Nahiz eta arrakasta terapeutikoa izateko probabilitate altuagoak izan 30 mL/min edo Clcr balio baxuagoak dituzten pazienteetan, toxikotasunarekin erlazionatutako kontzentrazioak lortzeko arriskua ere handitzen da. Hortaz, terapiaren onura-arrisku balantza aztertu beharko litzake horrelakoetan. EGOTak ezarriak dituzten pazienteetan, gutxienez 560 mg/24h beharko litzateke. Dena den, azken hau CL_{EC}-ren menpe egongo da.

4. Linezoliden populazio-eredu farmakozinetiko bat garatu da gaixo larrientzat. Antibiotikoaren farmakozinetika bi konpartimentutako eredu batekin deskribatu zen ongien. Kreatinina argitzapenak argitzapen totala baldintzatu zuen. Gainera, EGOTak ezarriak zituzten pazienteetan, CLa gorputz kanpoko argitzapenaren menpe egon zen ere.

5. Infekzioa 2 edo 4 mg/L-ko MICa duen mikroorganismo batek eragiten duenean, linezoliden dosi estandarrak (600 mg/12h) ez ditu bermatuko arrakasta izateko probabilitate altuak. Balio hauek enterokoko eta estafilokokoen mozte-puntu klinikoak dira CLSI eta EUCAST erakundeen arabera.

6. Linezoliden dosia 600 mg/8h-ra handitzeak ez ditu arrakasta izateko probabilitateak handitzen, baina toxikotasuna pairatzeko aukerak areagotzen ditu. Hortaz, dosifikazio-erregimen alternatiboak aztertu beharko dira, besteak beste, etengabeko perfusioa.

1. ERANSKINA

I. ERANSKINA. HPLC bidezko daptomizinaren eta linezoliden kuantifikazioa gaixo kritikoen plasma eta efluente laginetan

1. Produktu kimikoak eta erreaktiboak

Daptomizina eta linezolid estandarrak Novartis Pharma AG-ri eta Pfizer Pharmaceuticals-i esker lortu ziren, hurrenez hurren. Propil-4-hiroxibenzoatoa (PHB4) eta amonio fosfatoa Sigma Aldrich-i (Bartzelona) eskatu zitzaizkion eta azetonitriloa, aldiz, Merck-i (Darmstadt, Alemania). Ur-ultrapurua Milli-Q® aparatua erabiliz lortu zen (Millipore). Azkenik, giza-plasma Gasteizko Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroari esker eskuratu zen.

2. Laginen prozesamendua eta analisia

Plasma eta efluente laginen antibiotiko kuantifikazioa bereizmen handiko kromatografia likido bidez (HPLC) egin zen, detekzio ultrabioleta zuen teknika erabiliz (UV). **1. taulan** daptomizinaren eta linezoliden kuantifikaziorako erabilitako baldintzak bildu dira.

1. taula. Aztertutako antibiotikoen kuantifikaziorako erabilitako baldintza kromatografikoak.

	Baldintza kromatografikoak	
	Daptomizina	**Linezolid**
Zutabea	Symmetry® C8 4,6 mm x 150 mm x 5μm	Symmetry® C8 4,6 mm x 150mm x 5 μm
Uhin-luzera (nm)	224	254
Tenperatura (ºC)	30	30
Injekzio-bolumena (μL)	20	20
Fluxua (mL/min)	1,2	1
Fase-mobila	Amonio fosfatoa (%0,5): Azetonitriloa (62:38, v: v)	Amonio fosfatoa (%0,5): Azetonitriloa (66:34; v: v)

Plasma laginen prozesamendua proteinen prezipitazioa eginez hasi zen. Horretarako, azetonitriloa gehitu zitzaien laginei, non barne estandarra (propil 4-hidroxibenzoatoa) disolbatua zegoen aurretik. Ondoren laginak bortexean irabiatu ziren (30 segundo) eta 10 minututan zehar zentrifugatu, 4ºC-tan. Lortutako gainjalkinen 20 μL sistema kromatografikoan injektatu ziren. **1. irudian** bi antibiotikoentzat jarraitutako prozesamenduak irudikatu dira.

Efluente laginei dagokionez, ez zitzaien inolako prozesamendurik aplikatu. Beraz, behin laginak desizoztu ostean, zuzenean mikro-bialetan sartu eta sistema kromatografikoan injektatu ziren.



1. irudia. Daptomizinaren eta linezoliden plasma laginen kuantifikaziorako jarraitutako prozesua. ACN: azetonitriloa; P4HB: propil 4-hidroxibenzoatoa.

3. Metodo analitikoaren balidazioa

Metodo analitikoek analito baten kontzentrazioa kuantifikatzen dute matrize biologiko batean, besteak beste, odolean, plasman edota gernuan. Lortutako balioen fidagarritasuna bermatzeko, ezinbestekoa da aurretik metodo horren balidazioa burutzea.

Lan honetan plasma eta efluente laginetan daptomizinaren eta linezoliden kuantifikazioa egin ahal izateko, aurretik erabilitako metodo analitikoaren balidazioa burutu zen, EMAren jarraibideak aintzat hartuta (*Guideline on*

bioanalytical method validation)[1]. Protokolak adierazten duen moduan, emaitza analitikoen eraginkortasunaren onesgarritasuna eta fidagarritasuna bermatzeko ezinbestekoak izango dira honako ezaugarriak: selektibitatea, linealtasuna, doitasuna, zehaztasuna eta egonkortasuna.

3.1. Selektibitatea

Metodo analitikoa gai izan behar da analitoa(k) eta barne estandarra (*internal standard*, IS) matrizean dauden osagai endogeno zein laginean dauden bestelako osagarriengandik bereizteko. Selektibitatea aztertzeko, gutxienez 6 indibiduoren matrize "zuriak" beharrezkoak dira, banaka analizatu eta interferentziak dauden ala ez ebaluatzeko. Horrela, interferentziarik ez dagoela onartuko da erantzuna analitoaren beheko kuantifikazio-limitearen %20 baino gutxiago denean eta barne estandarraren %5 baino baxuagoa denean.

Selektibitate entsegua gauzatzeko, 6 emaile desberdinen giza-plasma erabili zen. Analitoaren erretentzio denboran barne-estandarraren interferentzia erpinak agertzen ziren edo ez ikertu zen, eta alderantziz. Horretarako, plasma bakoitzeko, honako laginak prestatu ziren: plasma-zuria, barne estandarra zuen plasma lagina, eta azken lagin bat non antibiotikoa ere gehitu zen, linealtasun-tarteko kontzentrazio minimoan.

3.2. Linealtasuna

Kontzentrazio tarte batean, metodo analitikoak analitoaren kontzentrazioei proportzionalki linealak diren erantzunak lortzeko duen gaitasunari deritzo linealtasuna. Tarte hau beheko eta goiko kuantifikazio-limiteek

[1] European Medicines Agency. Guideline on bioanalytical method validation. Committee for Medical Products for Human Use (CHMP), 2011. Eskuragarri: *www.ema.europa.eu/docs/en_GB/document_library/Scientific_guideline/2011/08/WC500109686.pdf* [kontsulta: 2018ko martxoa].

zehaztuko dute, alegia LLOQ (*lower limit of quantification*) eta ULOQ (*upper limit of quantification*).

Metodoaren linealtasuna neurtzeko, plasma eta efluentean LLOQ eta ULOQ zituzten antibiotiko disoluzioak prestatu ziren; baita gutxienez linealtasun-tarte barruan zeuden beste 6 antibiotiko kontzentrazio disoluzio ere. Laginak hiru aldiz prestatu ziren, hiru egun desberdinetan, eta antibiotiko kontzentrazioaren eta antimikrobianoaren eta P4BH-ren (IS) azaleren ratioaren arteko linealtasuna aztertu zen.

Kasu bakoitzean errore erlatiboaren ehunekoa kalkulatzeko (%E), ondoko ekuazioa erabili zen:

$$\%E = \frac{Kontzentrazio\ teorikoa - Kalkulatutako\ Kontzentrazioa}{Kontzentrazioa\ teorikoa} \times 100 \qquad \textbf{(Eq.1)}$$

Teknika analitikoak linealtasun irizpideak betetzen dituela ondorioztatzeko, kalibrazio estandar bakoitzarentzat errore erlatiboa %15 baino baxuagoa izan behar da, beheko kuantifikazio-limitearen kasuan izan ezik, non %20 baino baxuagoak diren erroreak onartzen diren.

3.3. Doitasuna eta zehaztasuna

Kuantifikatutako analito kontzentrazioa balio teorikoari zenbat gerturatzen zaion deskribatzen du doitasunak (%E moduan adierazia). Doitasuna LLOQan eta kalitate kontroletan (*quality controls*, QC) ebaluatu behar da. Azken horiek, linealtasun tartearen barruan dauden balioak izango dituzte: hiru aldiz LLOQ (QC baxua), kalibrazio kurbaren tartearen %30-50 bitartean dagoen

kontzentrazioa (erdiko QC) eta gutxienez goiko kuantifikazio-limitearen %75 den balioa (QC altua). Kalitate kontrol hauek kalibrazio kurba aintzat hartuta analizatuko dira, eta kuantifikatutako kontzentrazioak balio teorikoarekin konparatu. Doitasunaren ebaluaketa saiakuntza berean eta saiakuntza desberdinen artean gauzatu beharko da (intra eta inter-saiakuntza doitasuna, hurrenez hurren).

Teknika baten zehaztasunak errepikatutako analitoaren neurketa indibidualen arteko gertutasuna neurtzen du eta aldakuntza-koefiziente bezala adierazten da (*coefficient of variation*, CV, %). Doitasunarekin gertatzen den bezala, zehaztasuna LLOQ eta QC laginetan ebaluatu behar da, saiakuntza berean eta saiakuntza desberdinen artean. Horrela, kuantifikazio-limitea doitasun eta zehaztasunarekin neurtu daitekeen kalibrazio kurbako kontzentrazio baxuena izango da.

3.4. Egonkortasuna

Normalean lagin biologikoen analisia ez da bildu bezain laster egiten. Hori dela eta, ezinbestekoa izango da laginak egonkor mantentzen diren biltegiratze eta kontserbatze baldintzak zehaztea. Egonkortasuna analitoaren ezaugarri bat da, denboran zehar, eta manipulazio prozesuen ostean, aldatu gabe mantentzea baimentzen diona. Behe eta goi kalitate kontrolak erabiliz ebaluatzen da. Horrela, QCak prestatu eta zuzenean analizatzen dira, baita ebaluatu behar diren biltegiratze baldintzak aplikatu ondoren ere. Lagin hauek kalibrazio-kurba erabiliz analizatuko dira, momentuan prestaturiko kalibrazio estandarrek osatuko dutena. Lortutako kontzentrazioak balio nominalarekin alderatuko dira. Kalibrazio kontrol bakoitzaren batezbestekoak kontzentrazio nominalaren ±%15 barne egon behar du.

Laginen egonkortasuna baieztatzeko, honakoak aztertu ziren:

3.4.1. Analitoaren egonkortasuna matrize biologikoan biltegiratze denboran zehar

Plasma laginen egonkortasuna biltegiratze baldintza desberdinetan (-80ºC eta -20ºC) aztertu zen denbora tarte desberdinetan. Horretarako goi eta behe kalitate kontrol bakoitzeko 3 lagin erabili ziren.

3.4.2. Analitoaren egonkortasuna matrizean izozte-desizozte prozesuetan, izozte baldintzetatik giro tenperaturara

Goi eta behe QCen 3 lagin gorde ziren -80ºCtan. Lagin hauei 3 izozte-desizozte ziklo ezarri zitzaizkien. Zikloen artean, laginak gutxienez 12 orduz mantendu ziren izozkailuan. Ondoren, alikuotak analizatu ziren eta beraien egonkortasuna kalkulatu.

3.4.3. Egonkortasuna sistema kromatografikoan

Alikuotak analizatu eta kromatografia bialetan mantendu ziren 24 orduz. Behin denbora hau pasatuta, berriz ere analizatu ziren, neurketen artean desberdintasunik zeuden ala ez aztertzeko.

3.4.4. Analito eta barne estandar disoluzio-amen egonkortasuna

Antibiotikoen ama-disoluzioak prestatu ziren, baita barne estandarrarenak ere. Kontzentrazio bakoitzeko 3 lagin prestatu ziren. Disoluzio-amen erantzun kromatografikoak (azalera) zero denboran eta 24 ordutara neurtu ziren, eta beraien artean konparatu.

Nahiz eta balidazioa plasma zein efluente laginentzat burutu, gehiegi ez luzatzeko asmoz, eranskin honetan soilik plasma laginentzat lortutako emaitzak gehitu dira; izan ere, hauen prozesamendua konplexuagoa da.

4. Daptomizina: balidazioaren emaitzak

4.1. Selektibitatea

Analizatutako lagin guztietan interferentziazko erpinen erantzuna, alegia, azalera kromatografikoa, kuantifikazio limitearen %20 baino baxuagoa izan zen daptomizinaren erretentzio-denboran. Bestalde, barne estandarraren erretentzio-denboran agerturiko interferentzien erantzuna analisian erabilitako barne estandarraren kontzentrazioaren (80 μg/mL) %5 baino baxuagoa izan zen beti.

Adibide moduan, **2.irudian** analizatutako sei paziente horietako baten kromatograma azaltzen da:



2. irudia. Zuriaren eta daptomizina gehi P4HB zuen laginaren kromatogramak. Erretentzio denbora 5,5 minutu daptomizinarentzat eta 8,2 minutu P4HBrentzat izan zen.

4.2. Linealtasuna

2. taulan lortutako emaitzak eta errore erlatiboa (%E) bildu dira. Bestalde, **3. taulan** gehitu egin dira kalibrazio kurba bakoitzeko kalkulatutako malda (a), oinarrizko jatorria (b), korrelazio-koefizientea (r) eta determinazio-koefizientea (r^2).

Emaitzei erreparatuz gero, teknika analitikoak linealtasun irizpideak betetzen dituela esan daiteke, estandar guztietan errore erlatiboa %15 baino txikiagoa izan baitzen (%20 kuantifikazio-limitearen kasuan).

2. taula. Linealtasun-azterketaren emaitzak.

Kontzentrazio teorikoa (µg/mL)	Kalkulatutako kontzentrazioa (µg/mL)			% Errore erlatiboa (%E)		
	1.zuzena	2.zuzena	3.zuzena	1.zuzena	2.zuzena	3.zuzena
2,5	2,44	2,63	2,38	2,44	-5,11	5,02
5	4,95	5,02	5,12	1,08	-0,34	-2,36
10	9,16	9,41	9,57	8,40	5,94	4,32
25	25,73	24,83	25,74	-2,93	0,70	-2,95
50	56,43	50,92	54,94	-12,86	-1,84	-9,87
100	100,78	98,62	92,92	-0,78	1,38	7,08
150	143,01	151,08	151,84	4,66	-0,72	-1,23

3. taula. Plasma kalibrazio-kurba bakoitzarentzat kalkulatutako malda (a), oinarrizko jatorria (b), korrelazio-koefizientea (r) eta determinazio-koefizientea (r^2).

Parametroa	1. zuzena	2. zuzena	3. zuzena
a	0,012	0,012	0,011
b	0,004	0,007	-0,001
r	0,998	0,999	0,998
r^2	0,996	0,999	0,996

4.3. Doitasuna eta zehaztasuna

4. taulan plasmarentzat lortutako doitasun eta zehaztasun entseguen emaitzak bildu dira.

4. taula. Doitasun eta zehaztasun emaitzak plasman.

	Kontzentrazio teorikoa (μg/mL)	Kalkulatutako kontzentrazioa Batez bestekoa ± SD (μg/mL)	Intra-saiakuntza (n = 6) CV (%)	Intra-saiakuntza E (%)
1. eguna	2,5	2,41 ± 0,16	6,51	3,59
	7	6,7 ± 0,27	4,00	4,10
	40	44,39 ± 1,08	2,44	-0,97
	120	133,39 ± 4,35	3,27	-11,16
2. eguna	2,5	2,67 ± 0,18	6,74	-6,72
	7	6,93 ± 0,02	1,93	0,95
	40	37,22 ± 1,31	3,51	6,99
	120	114,83 ± 7,18	6,25	4,31
2. eguna	2,5	2,25 ± 0,14	6,06	10,43
	7	6,65 ± 0,32	4,87	5,03
	40	41,66 ± 0,94	2,26	-4,15
	120	132,34 ± 5,33	4,03	-10,28
	Kontzentrazio teorikoa (μg/mL))	Kalkulatutako kontzentrazioa Batez bestekoa ± SD (μg/mL)	Inter-saiakuntza (n = 18) CV (%)	Inter-saiakuntza E (%)
	2,5	2,44 ± 0,23	9,51	2,32
	7	6,77 ± 0,27	3,99	3,32
	40	41,09 ± 3,22	7,84	-2,72
	120	126,85 ± 10,28	8,11	-5,71

*SD: desbiderapen estandarra; CV: aldakuntza-koefizientea; E: errore erlatiboa.

Ikus daitekeen moduan, kalitate kontrolen aldakuntza koefizientea eta errore erlatiboa ez zen inoiz %15 baino altuagoa izan. Bestalde, 2,5 μg/mL-ko daptomizina kontrolarentzat intra zein inter-saiakuntzen errore erlatiboak eta

aldakuntza koefizienteak %20 azpitik egon zirela baiezta daiteke. Hortaz, demostratua geratzen da metodo analitiko honek beharrezko doitasun eta zehaztasuna dituela 2,5 μg/mL-ko daptomizina kontzentrazioak kuantifikatzeko, eta, beraz, kuantifikazio-limitetzat har daiteke.

4.4. Egonkortasuna

4.4.1. Analitoaren egonkortasuna matrize biologikoan biltegiratze denboran zehar

5. taulan biltegiratze kondizioetan laginen egonkortasunaren emaitzak azaltzen dira. Ikus daitekeen moduan, desbiderapena %15 baino baxuagoa izan zen beti. Hortaz, gutxienez hilabete batez, plasma laginetan daptomizina egonkorra dela esan daiteke , -20 eta -80ºC-tan.

4.4.2. Analitoaren egonkortasuna matrizean izozte-desizozte prozesuetan, izozte baldintzetatik giro tenperaturara

5. taulan 3 izozte-desizozte ziklo jasan ostean laginen egonkortasunaren emaitzak bildu dira. Lagin bakoitzaren errorea %15 baino baxuagoa izan zen beti. Horrek esan nahi du prozesu honetan zehar laginak egonkor mantendu zirela.

4.4.3. Egonkortasuna sistema kromatografikoan

Hurrengo taulan ikus daitekeen moduan, gutxienez 24 orduz, laginak egonkor mantendu ziren sistema kromatografikoan, errorea beti %15 azpitik egon baitzen.

5. taula. Egonkortasun entseguan lortutako emaitzak.

Kontzentrazio teorikoa (µg/mL)	7		120	
	Kalkulatutako kontz. Batez bestekoa ± SD	E (%)	Kalkulatutako kontz. Batez bestekoa ± SD	E (%)
Egonkortasuna biltegiratze-denboran zehar				
1 hilabete (-20ºC)	7,48 ± 0,32	-1,04	113,33 ± 0,80	9,64
1 hilabete (-80ºC)	6,88 ± 0,04	7,03	115,29 ± 1,29	8,08
Egonkortasuna matrizean izozte-desizozte prozesuetan	7,14 ± 0,38	3,51	116,04 ± 1,51	7,48
Egonkortasuna sistema kromatografikoan (24h)	7,37 ± 0,39	0,40	118,37 ± 1,336	5,62

*SD: desbiderapen estandarra; E: errore erlatiboa; Kalkulatutako kontz.: kalkulatutako kontzentrazioa

4.4.4. Analito eta barne estandar disoluzio-amen egonkortasuna

6. taulan daptomizina eta barne estandar disoluzio-amen batezbestekoa eta desbiderapena (SD) bildu dira, 0 denboran eta handik 24 ordutara. Aztertutako disoluzion azalera 0 eta 24 ordu pasa ostean %95-105 artean mantendu zen beti; hau da, errore erlatiboa %5 azpitik egon zen beti.

6.taula. Disoluzio-amen egonkortasuna 24 ordutan.

Disoluzio-amak (µg/mL)	Azalera ± SD		E (%) (versus t= 0 h)
	t = 0 h	t = 24 h	
Daptomizina			
50	1.506.860 ± 84.485	1.518.243 ± 20.492	0,76
500	15.094.098 ± 134.168	15.076.133 ± 197.449	-0,12
Barne estandarra			
80	98.4168 ± 20.603	1.006.699 ± 1.860	2,29

*SD: desbiderapen estandarra; E: errore erlatiboa.

5. Linezolid: balidazioaren emaitzak

5.1. Selektibitatea

Analizatutako lagin guztietan interferentziazko erpinen erantzuna, alegia, azalera kromatografikoa, kuantifikazio limitearen %20 baino baxuagoa izan zen linezoliden erretentzio-denboran. Bestalde, barne estandarraren erretentzio-denboran agerturiko interferentzien erantzuna, analisian erabilitako barne estandarraren kontzentrazioaren (15 μg/mL) %5 baino baxuagoa izan zen beti.

Adibide moduan, **3. irudian** analizatutako sei paziente horietako baten kromatograma azaltzen da:



3. irudia. Zuriaren eta linezolid gehi P4HB zuen laginaren kromatogramak.
Erretentzio denbora 2,8 minutu linezolidentzat eta 7,2 minutu P4HBrentzat izan zen.

5.2. Linealtasuna

7. taulan lortutako emaitzak eta errore erlatiboak (%E) bildu dira. Bestalde, **8. taulan** gehitu dira kalibrazio kurba bakoitzeko kalkulatutako malda (a), oinarrizko jatorria (b), korrelazio-koefizientea (r) eta determinazio-koefizientea (r^2).

Emaitzei erreparatuz gero, teknika analitikoak linealtasun irizpideak betetzen dituela esan daiteke, estandar guztietan errore erlatiboa %15 baino txikiagoa izan baitzen (%20 kuantifikazio-limitearen kasuan).

7. taula. Linealtasun-azterketaren emaitzak.

Kontzentrazio teorikoa (μg/mL)	Kalkulatutako kontzentrazioa (μg/mL)			Errore erlatiboa (%E)		
	1.zuzena	2.zuzena	3.zuzena	1.zuzena	2.zuzena	3.zuzena
0,5	0,46	0,45	0,41	8,91	8,94	18,70
2	2,10	1,96	2,25	-5,00	2,22	-12,58
5	5,11	5,51	5,31	-2,27	-0,24	-6,09
20	20,28	20,23	19,73	-1,37	-1,12	1,36
30	30,86	30,82	31,33	-2,87	-2,73	-4,44
50	48,70	48,53	48,48	2,61	2,93	3,04

8. taula. Plasma kalibrazio-kurba bakoitzarentzat kalkulaturiko malda (a), oinarrizko jatorria (b), korrelazio-koefizientea (r) eta determinazio-koefizientea (r^2).

Parametroa	1.zuzena	2.zuzena	3.zuzena
a	0,003	0,007	0,014
b	0,035	0,040	0,036
r	1,000	0,999	0,999
r^2	0,999	0,999	0,998

5.3. Doitasuna eta zehaztasuna

9. taulan plasmarentzat lortutako doitasun eta zehaztasun entseguen emaitzak bildu dira.

9. taula. Doitasun eta zehaztasun emaitzak plasman.

	Kontzentrazio teorikoa (μg/mL)	Kalkulatutako kontzentrazioa Batez bestekoa ± SD (μg/mL)	Intra-saiakuntza (n = 5) CV (%)	Intra-saiakuntza E (%)
1. eguna	0,5	0,48 ± 0,04	9,19	3,52
	1,5	1,49 ± 0,05	3,54	0,35
	10	10,94 ± 0,30	2,77	-9,44
	40	40,11 ± 1,26	3,15	-0,29
2. eguna	0,5	0,47 ± 0,08	17,50	7,00
	1,5	1,54 ± 0,06	4,17	-2,41
	10	9,36 ± 0,13	1,39	6,36
	40	40,56 ± 3,63	8,94	-1,41
3. eguna	0,5	0,43 ± 0,03	7,67	14,48
	1,5	1,50 ± 0,09	6,35	0,33
	10	11,26 ± 0,30	2,63	-12,61
	40	44,14 ± 1,64	3,71	-10,34
	Kontzentrazio teorikoa (μg/mL)	Kalkulatutako kontzentrazioa Batez bestekoa ± SD (μg/mL)	Inter-saiakuntza (n = 15) CV (%)	Inter-saiakuntza E (%)
	0,5	0,46 ± 0,02	5,22	8,33
	1,5	1,51 ± 0,07	4,66	-0,58
	10	10,52 ± 0,89	8,46	-5,23
	40	41,60 ± 2,91	6,99	-4,01

*SD: desbiderapen estandarra; CV: aldakuntza-koefizientea; E: errore erlatiboa.

Ikus daitekeen moduan, kalitate kontrolen aldakuntza koefizientea eta errore erlatiboa ez zen inoiz %15 baino altuagoa izan. Bestalde, 0,5 μg/mL-ko linezolid kontrolarentzat intra zein inter-saiakuntzen errore erlatiboak eta

aldakuntza koefizienteak %20 azpitik egon zirela baiezta daiteke. Hortaz, demostratua geratzen da metodo analitiko honek beharrezko doitasun eta zehaztasuna dituela 0,5 μg/mL-ko linezolid kontzentrazioak kuantifikatzeko, eta, beraz, kuantifikazio-limitetzat har daiteke.

5.4. Egonkortasuna

5.4.1. Analitoaren egonkortasuna matrize biologikoan biltegiratze denboran zehar

10. taulan biltegiratze kondizioetan laginen egonkortasunaren emaitzak azaltzen dira. Ikus daitekeen moduan, desbiderapena %15 baino baxuagoa izan zen beti. Hortaz, gutxienez hilabete batez, plasma laginetan linezolid egonkorra dela esan daiteke , -20 eta -80ºC-tan

5.4.2. Analitoaren egonkortasuna matrizean izozte-desizozte prozesuetan, izozte baldintzetatik giro tenperaturara

10. taulan 3 izozte-desizozte ziklo jasan ostean laginen egonkortasun emaitzak bildu dira. Lagin bakoitzaren errorea %15 baino baxuagoa izan zen beti. Horrek esan nahi du prozesuan zehar laginak egonkor mantendu zirela.

5.4.3. Egonkortasuna sistema kromatografikoan

Hurrengo taulan ikus daitekeen moduan, gutxienez 24 orduz, laginak egonkor mantendu ziren sistema kromatografikoan, , errorea beti %15 azpitik egon baitzen.

10. taula. Egonkortasun entseguan lortutako emaitzak.

Kontzentrazio teorikoa (µg/mL)	1,5		40	
	Kalkulatutako kontz, Batez bestekoa ±SD	E (%)	Kalkulatutako kontz, Batez bestekoa ±SD	E (%)
Egonkortasuna biltegiratze denboran zehar				
1 hilabete (-20ºC)	1,56 ± 0,02	-4,00	37,11 ± 1,03	7,22
1 hilabete (-80ºC)	1,56 ± 0,02	-4,00	43,49 ± 1,96	-8,73
Egonkortasuna matrizean izozte-desizozte prozesuetan	1,49 ± 0,02	0,67	41,67 ± 1,03	-4,19
Egonkortasuna sistema kromatografikoan (24 h)	1,72 ± 0,10	-14,67	44,78 ± 1,23	-11,96

*SD: desbiderapen estandarra; E: errore erlatiboa; Kalkulaturiko kontz.: kalkulatutako kontzentrazioa.

5.4.4. Analito eta barne estandar disoluzio-amen egonkortasuna

11. taulan linezolid eta barne estandar disoluzio-amen batezbestekoa eta desbiderapena (SD) bildu dira, 0 denboran eta handik 24 ordutara. Aztertutako disoluzion azalera 0 eta 24 ordu pasa ostean %95-105 artean mantendu zen beti; hau da, errore erlatiboa %5 azpitik egon zen kasu guztietan.

11. taula. Disoluzio-amen egonkortasuna 24 ordutan.

Disoluzio-amak (µg/mL)	Azalera ± SD		E (%) (versus t=0 h)
	t =0 h	t = 24 h	
Linezolid			
10	541.053 ± 2.953	556.340 ± 3.880	2,82
100	4.910.858 ± 24.212	5.029.011 ± 28.178	2,4
Barne estandarra			
15	1.445.212 ± 5.370	1.466.392 ± 25.763	1,46

*SD: desbiderapen estandarra; E: errore erlatiboa.

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco

Euskal Herriko Unibertsitatea



Population pharmacokinetics and pharmacokinetic/pharmacodynamic analysis of daptomycin and linezolid for dosing optimisation in critically ill patients

Amaia Soraluce Olañeta

Vitoria-Gasteiz 2018

CONTENTS

INTRODUCTION

Chapter 1

Pharmacokinetic/pharmacodynamic modelling to optimise antimicrobial agents' dosage in critically ill patients

A. Soraluce[1], A. Rodríguez-Gascón[1], A. Isla[1]

EKAIA. 2018;33:19-33

[1]Pharmacokinetics, Nanotechnology and Gene Therapy Group, Faculty of Pharmacy. Centro de Investigación Lascaray-ikergunea, University of the Basque Country UPV/EHU, Vitoria-Gasteiz, Spain.

ABSTRACT: Nowadays, the treatment of infectious diseases has become a global health issue, due to multi-drug resistant bacteria. The lack of new antibiotics enhances urgent need for current antimicrobials' dosing regimens optimisation. This could become an extremely challenging duty when treating some kind of patients, such as the critically ill; as due to their physiophatological situation, both pharmacokinetics and pharmacodynamics might be altered. PK/PD analysis, together with Monte Carlo Simulation, might be a useful tool to optimise dosing regimens of antibiotic agents and, therefore, improve clinical outcome and diminish emergence of resistances.

1. Introduction

Nowadays, diagnosis and treatment of infectious diseases is becoming an increasingly complicated duty for physicians. On the one hand, increasing life expectancy, mainly in western countries, implies a burden on health systems because of the high rate of infections affecting old people, such as influenza or pneumococcal disease, which usually increases the need for long-term care. Moreover, some medical treatments (e.g. cancer chemotherapy or organ transplantation) have led to an increase in the number of immunocompromised individuals, who are highly vulnerable to infections[1,2].

Since their discovery and introduction in therapeutics, almost 90 years ago, antimicrobial agents have played a crucial role in treating infections. However, over the last few decades there has been a relevant increase in the number of pathogens resistant to multiple antimicrobial agents, meaning that some infections that were previously treatable no longer respond properly to medication. Despite the fact that developing resistance is a natural evolutionary phenomenon for microorganisms, it is clear that this has been accelerated by antimicrobial abuse and misuse[3]. It is estimated that, today, antimicrobial resistance (AMR) causes more than 700,000 deaths per year worldwide; which could rise to 10 million deaths in 2050, if no measures are taken to stop the resistance from spreading[1]. This means that AMR could become the first cause of death, beating cancer and resulting in one person dying every three seconds due to infections caused by resistant bacteria.

[1] Review on Antimicrobial Resistance. Tackling drug-resistant infections globally. Available at: *https://amr-review.org/Publications.html* [Accessed May 2018].

[2] European Centre for Disease Prevention and Control. ECDC strategic multi-annual programme 2014–2020. Stockholm: ECDC; 2014.

[3] Ventola CL. The antibiotic resistance crisis: part 1: causes and threats. P T. 2015;40(4):277-83.

Thus, drug-resistant infections have not only become a modern medicine issue, but also a global health threat[4,5,6]. Proof thereof is the fact that in September 2016, global leaders met at the United Nations (UN) General Assembly to commit to fighting antimicrobial resistance together[7]. This was the fourth time in the history of the UN that a health topic had been discussed at the General Assembly, previously focussing on the human immunodeficiency virus (HIV), noncommunicable diseases and ebola.

In 2017 the World Health Organization developed a global priority pathogens list of antibiotic-resistant bacteria. Experts agreed on grouping what they considered to be the 12 most dangerous pathogens into three priority tiers: critical, high and medium[8,9]. The most critical group of all includes multidrug resistant bacteria that pose a particular threat in hospitals or nursing homes, including *Acinetobacter baumannii, Pseudomonas aeruginosa* and various Enterobacteriaceae. The high and medium priority categories contain other increasingly drug-resistant bacteria that cause more common diseases, namely, *Enterococcus faecium, Staphylococcus aureus* or *Haemophilus influenzae*. The main goal of this list is to help prioritize the research and development (R&D) of new and effective antibiotic treatments, ensuring global coordination.

---

[4] Roca I, Akova M, Baquero F, Carlet J, Cavaleri M, Coenen S, et al. The global threat of antimicrobial resistance: science for intervention. New Microbes New Infect. 2015;16;6:22-9.

[5] PLOS Medicine Editors. Antimicrobial Resistance: Is the World UNprepared? PLoS Med. 2016;13(9):e1002130.

[6] Hernández-Marrero P, Martins Pereira S, de Sá Brandão PJ, Araújo J, Carvalho AS. Toward a bioethical framework for antibiotic use, antimicrobial resistance and for empirically designing ethically robust strategies to protect human health: a research protocol. J Int Med Res. 2017;45(6):1787-93.

[7] General Assembly of the United Nations. High-level Meeting on Antimicrobial Resistance. Available at: *https://www.un.org/pga/71/event-latest/high-level-meeting-on-antimicrobial-resistance/* [Accessed May 2018].

[8] World Health Organization (WHO). Global priority list of antibiotic-resistant bacteria to guide research, discovery, and development of new antibiotics. Available at: *http://www.who.int/medicines/publications/global-priority-list-antibiotic-resistant-bacteria/en/* [Accessed May 2018].

[9] Tacconelli E, Carrara E, Savoldi A, Harbarth S, Mendelson M, Monnet DL, et al. Discovery, research, and development of new antibiotics: the WHO priority list of antibiotic-resistant bacteria and tuberculosis. Lancet Infect Dis. 2018;18(3):318-327.

Regardless of evident medical needs, the investment made by the pharmaceutical industry in antimicrobials is far from ideal. Proof of this is that, between 2003 and 2013, less than 5% of capital investment in pharmaceutical R&D targeted this kind of drugs[10]. The main reason for the lack of interest is that commercial sales of antibiotics are not high enough to justify further investigation[9,11]. As a result, over the last few years the development of antimicrobials has decreased considerably. To counteract this decline, different initiatives have been implemented, such as the 10 x '20 Initiative, started in 2010 by the Infectious Diseases Society of America (IDSA). This initiative seeks a global commitment to produce 10 new systemic antibiotics by the year 2020[12].

The lack of new antibiotics in the coming years, means that current antimicrobials should be protected urgently. To do so, not only the susceptibility of the pathogen against the antibiotic should be taken into consideration, but also the complex interactions among host, microorganism and drug (**Figure 1**), since variability among these interactions could be the source of a great variability in dose-effect relationship.

Unlike with other drugs, such as antihypertensives or vasopressors, it is not easy to measure the effect of antibiotics in clinical practice. Thus, in some groups of patients (e.g. the critically ill or paediatric patients), selecting the most suitable antibiotic and the optimal dosage becomes particularly challenging.

[10] Silver LL. Challenges of Antibacterial Discovery. Clin Microbiol Rev. 2011; 24(1): 71–109.

[11] Davies J. Where have All the Antibiotics Gone? Can J Infect Dis Med Microbiol. 2006;17(5):287-90.

[12] Infectious Diseases Society of America. The 10 x '20 Initiative: pursuing a global commitment to develop 10 new antibacterial drugs by 2020. Clin Infect Dis. 2010;50(8):1081-3.



1. The bacteria cause the infection in the host.
2. The hot's immune response is activated.
3. The host and the antibiotic interact and determine the pharmacokinetics.
4. The antibiotic induces bacteriostatic or bactericidal effect.
5. The antibiotic may alter the physiology of the patient, provoking toxicity or side-effects.
6. The bacteria could develop resistances against the drug.

Figure 1. Interactions between the host, bacteria and antibiotic.

2. Antibiotic therapy in critically ill patients

Despite the great variability found among different services and between patients, infectious diseases maintain a remarkable presence in intensive care units (ICU) worldwide. On the one hand, many ICU admissions are due to infections (such as pneumonia, meningitis or sepsis). Moreover, a high rate of patients

admitted into these services for non-infectious disorders get infected during their stay, that is, they develop healthcare-associated infections (HAI)[13].

Although HAI involve all infectious diseases associated with patient care (especially in hospitals and long-term care facilities), it is well known that HAI usually occur at a greater rate in the ICU than in general wards[14,15]. This is due to the general weakness of the patients. Furthermore, the invasive techniques used, such as endotracheal or nasogastric intubation and urinary catheterization, could contribute to the development of infections[16]. In this context, in a point prevalence research work carried out in 75 European countries (EPIC II), 51% of the 14,414 patients from 1,265 different ICUs were considered to be infected. Moreover, higher mortality was observed in the group of infected patients when compared to the non-infected group (25% vs. 11%, respectively). The most prevalent diseases were pulmonary (63.5%) and intra-abdominal (19.6%) infections, and bacteraemia (15.1%)[17].

Even though critically ill subjects represent less than 10% of hospitalized individuals, they are administered ten times more antibiotics than any other patients[18]. Apart from the greater number of infections observed in the critically ill, another reason for this high use of antimicrobials is that pathogens found in ICUs are usually less susceptible, since the higher rate of antibiotic use puts selective

---

[13] Burke A. Cunha. Infectious Diseases in Critical Care Medicine (Third Edition). Informa Healthcare USA, Inc. 52 Vanderbilt Avenue New York, NY 10017. 2010.

[14] World Health Organization (WHO). Healthcare-associated infections: fact sheet;2014. Available at: *http://www.who.int/gpsc/country_work/gpsc_ccisc_fact_sheet_en.pdf.* [Accessed: May 2018]

[15] Bianco A, Capano MS, Mascaro V, Pileggi C, Pavia M. Prospective surveillance of healthcare-associated infections and patterns of antimicrobial resistance of pathogens in an Italian intensive care unit. Antimicrob Resist Infect Control. 2018;7:48.

[16] Alberti C, Brun-Buisson C, Burchardi H, Martin C, Goodman S, Artigas A, et al. Epidemiology of sepsis and infection in ICU patients from an international multicentre cohort study. Intensive Care Med. 2002;28(2):108-21.

[17] Vincent JL, Rello J, Marshall J, Silva E, Anzueto A, Martin CD, et al. International study of the prevalence and outcomes of infection in intensive care units. JAMA. 2009;302(21):2323-9.

[18] Abdul-Aziz MH, Lipman J, Mouton JW, Hope WW, Roberts JA. Applying pharmacokinetic/pharmacodynamic principles in critically ill patients: optimizing efficacy and reducing resistance development. Semin Respir Crit Care Med. 2015;36(1):136-53.

pressure on producing resistance[19,20]. The emergence of resistant pathogens forces clinical practice to constantly adapt. In this context, over the last few years, the lack of alternatives made researchers develop new pharmaceutical forms, while physicians started to administrate old antibiotics which had fallen into disuse due to their toxicity profile, such as colistin[21,22].

An antibiotic dosage regimen is generally established through results obtained from clinical trials conducted among healthy volunteers after which, dose-adjustment is performed in mildly to moderately ill patients. Results from these trials are usually extrapolated for use among critically ill patients. However, such extrapolations assume similar drug pharmacokinetics and pharmacodynamics in critically ill patients compared to subjects with mild illnesses, which is hardly presumable. On the one hand, and as mentioned above, because the microorganisms that cause infections are often more resistant. On the other hand, due to several pathophysiological changes observed during illness, concomitant treatment used to improve their health outcomes and other drug administration. Therefore, selecting the most suitable dosage regimen for critically ill patients using standard protocols usually becomes a hard task.

In brief, as the pharmacokinetics and pharmacodynamics of plenty of drugs are usually altered in critically ill patients, expected drug concentrations are

[19] Savage RD, Fowler RA, Rishu AH, Bagshaw SM, Cook D, Dodek P, et al. Pathogens and antimicrobial susceptibility profiles in critically ill patients with bloodstream infections: a descriptive study. CMAJ Open. 2016;4(4):E569-E577.

[20] Rhomberg PR, Fritsche TR, Sader HS, Jones RN. Antimicrobial susceptibility pattern comparisons among intensive care unit and general ward Gram-negative isolates from the Meropenem Yearly Susceptibility Test Information Collection Program (USA). Diagn Microbiol Infect Dis. 2006;56(1):57-62.

[21] Cassir N, Rolain JM, Brouqui P. A new strategy to fight antimicrobial resistance: the revival of old antibiotics. Front Microbiol. 2014;5:551.

[22] Muller AE, Theuretzbacher U, Mouton JW. Use of old antibiotics now and in the future from a pharmacokinetic/pharmacodynamic perspective. Clin Microbiol Infect. 2015;21(10):881-5.

not always achieved. Therefore, therapeutic failure (due to low dosages) or toxicity (associated with drug accumulation) may often occur[23,24].

3. Pharmacokinetics (PK)

3.1. Concept

